

# Jakin190

maiatza-ekaina  
2012



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



## ZENBAKI HONETAN

**7**

### GAIAK

- 11** Murrizketak bai, bultzagarririk ez:  
bihotza gelditu  
**JUAN JOSE IBARRETXE**
- 23** Albisteen kalitatea: *Euskadi Irratia, ETB1* eta  
*Euskaldunon Egunkaria / Berria*  
**MARIA GONZALEZ GOROSARRI**
- 57** Frankismoa ikusezin. Biolentzia politikoaren  
inguruko «oroimen historiko» instituzionala  
**DANIEL ESCRIBANO**  
**PAU CASANELLAS**

## EGUNEN GURPILEAN

- 81** **HAIZEA BARCENILLA**  
**INAKI IRAZABALBEITIA**  
**GOIZALDE LANDABASO**  
**LIONEL JOLY**  
**JOSU LARRINAGA**

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2012ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,20 €	12 €
EUROPAN		
Harpidetza	70 €	—
Ale arrunta	11,70 €	15,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	85 €	—
Ale arrunta	15 €	18 €



## **CUTS WITHOUT INCENTIVES: ENOUGH TO BRING ON A HEART ATTACK**

Juan Jose Ibarretxe, university lecturer and ex *Lehendakari* (Basque President), analyzes the consequences that the economic crisis is having in the world at large and the Basque Country. The author maintains that current policies which focus on austerity and cuts in public expenditure are not the solution needed to overcome the crisis, nor is indebtedness that fails to invest in productive sectors or encourage research and innovation.

**JUAN JOSE IBARRETXE**

## **NEWS QUALITY: *EUSKADI IRRATIA*, *ETB1* AND *EUSKALDUNON EGUNKARIA / BERRIA***

Maria Gonzalez Gorosarri, researcher in social and communication science, conducts an analysis of the journalistic activity carried out by the media in the Basque language. The author applies the journalistic quality model, designed using journalistic indicators which are accepted by the international community, to the most widespread Basque language media in three journalistic forms: the radio (*Euskadi Irratia*), TV (*ETB1*) and the written press (*Euskaldunon Egunkaria / Berria*). **MARIA GONZALEZ GOROSARRI**

## **THE INVISIBLE FRANCO YEARS: THE INSTITUTIONAL «HISTORIC MEMORY» WITH REGARD TO POLITICAL VIOLENCE**

Daniel Escribano, a graduate in Sociology, and Pau Casanellas, who holds a PhD in History, analyze the setbacks that there have been in discrediting the Franco years from the time since the Amnesty Law was passed in October 1977 until the present. The authors focus on the implications of the «historic memory» with regard to the victims of political violence in this account about the Franco years. **DANIEL ESCRIBANO / PAU CASANELLAS**

## **NEWS TODAY**

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Haizea Barceñilla, Inaki Irazabalbeitia, Goizalde Landabaso, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 190. zenbakia da eta 2012. urteko hirugarrena.

Zenbaki honetan ez da gai nagusirik lantzen. Horren ordez, *Gaiak* sailean, elkarren artean lotura zuzenik ez duten hiru artikulua aurkezten dizkizugu. Honako gaiak lantzen dira, hain zuzen, artikulua horietan: krisi ekonomikoaren ondorioak eta irtenbideak; euskarazko hedabideen kazetaritza-jardueraren kalitatea; frankismoaren kontaketa eta biolentzia politikoaren biktimen inguruko oroimen historikoa.

Lehenengo artikuluan, bada, Juan Jose Ibarretzek nazioartean zein Euskal Herrian krisi ekonomikoaren ondorioz bizi dugun egoera aztertzen du. Egilearen ustez, krisiari aurre egiteko gaur egun lehenesten diren politikak, gastu publikoaren murrizketetan oinarritutakoak, ez dira irtenbide egokia, ez baitute hazkunde ekonomikoa sustatzen; bestetik, ikerkuntza, berrikuntza eta inbertsio produktiboa sustatzen ez dituen zorpetzeak ere ez garamatza inora.

Maria Gonzalez Gorosarrik, bigarren artikuluan, euskarazko hedabideak ikuspegi profesionaletik aztertzen ditu, hedabide horiek gauzatzen duten kazetaritza-jarduerari erreparatuz. Horretarako, nazioartean erabili ohi diren kazetaritza-adierazleetatik abiatuta, albisteen kalitatea neurtzeko metodologia —Albisteen Kalitate-Eredua— aplikatzen die hiru euskarritako euskarazko hedabide zabalduenei: *Euskadi Irratia* (irratia), *ETB1* (telebista) eta *Euskaldunon Egunkaria / Berria* (eguneroko prentsa idatzia).

Hirugarren artikuluan, azkenik, Daniel Escribanok eta Pau Casanellasek, 1977ko amnistiaren legeaz geroztik, euskal matxineriaren biktimei erreparazioa egiteko politikaren babesean sortutako «oroimen historikoak» frankismoari buruzko kontaketa inguruan izan dituen inplikazioak aztertzen dituzte. Egileen arabera, biolentzia politikoaren biktimek politikoki erabiltzeaz gain, politika eta diskurtso horiek atzerakada nabarmena

ekarri diote frankismoaren deslegitimazioari, erregimena eta haren izaera autokratiko eta zeharo bortitza leunduz.

*Egunen gorpilean* saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta biziak egin dituzte Haizea Barcenillak Arteari buruzko atalean, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Goizalde Landabasok Literaturan, Lionel Jolyk Soziolinguistikan eta Josu Larrinagak Glokalian. ¶





- 11** **JUAN JOSE IBARRETXE**  
Murrizketak bai, bultzagarririk ez:  
bihotza gelditu
- 23** **MARIA GONZALEZ GOROSARRI**  
Albisteen kalitatea: *Euskadi Irratia*, *ETB1* eta  
*Euskaldunon Egunkaria / Berria*
- 57** **DANIEL ESCRIBANO**  
**PAU CASANELLAS**  
Frankismoa ikusezin. Biolentzia politikoaren  
inguruko «oroimen historiko» instituzionala

# Murrizketak bai, bultzagarririk ez: bihotza gelditu

**JUAN JOSE IBARRETXE**

Unibertsitateko irakaslea eta lehendakari ohia

Zer pentsatu ugari ematen bazuten 2011 urtearen amaierako langabeziari buruzko datuek, zer esan 2012ko lehen hiruhilekoei buruz. Berretsi baino ez dute egiten egunetik egunera gehiago direla neke handia pairatzen duten pertsona eta familiak. Eustaten datuen arabera, Euskadin 190.500 lagun daude lanik gabe, 2011ko lehen hiruhilekoan baino 25.300 langabe gehiago eta orain dela urtebete baino 22.752 lagun gutxiago Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenak —+%13,5 EAEn (16.700 langabe gehiago); +%20,6 Nafarroan (8.600 langabe gehiago)—. Espainiako datuak, berriz, ikara sortze-koak dira: 5.639.500 langabe, iaz garai honetan baino 729.300 langabe gehiago eta 439.641 afiliazio gutxiago Gizarte Segurantzaren. Espainian dago Europako langabe guztien laurdena. Datu horiek, argazki horiek, gauza askoren erakusgarri izan daitezke; baina, ez dago horretan inolako zalantzarik, hondamendi soziala erakusten dute.

Izan ere, nolako gaitz larria duen gaur ekonomiak islatzen du, batetik, langabeziak, eta, bestetik, orain arteko errezetek ez dutela balio izan gizartearen gaitz larri horri irtenbidea aurkitzeko. Egoera horren aurrean, alor bakarrera bildu du-

gu gure «jakituria» guztia, bai Europan, bai Espainian eta, zoritxarrez, baita Euskadin ere —EAEn eta Nafarroan—, aurrekontu publikoak murrizteko lasterketa zoro batera, alegia, batez ere enplegu publikoari, soldatei, gizarte gastuari eta inbertsio produktiboari dagokienez.

Hedabide gehienek eta ekonomia-aditu gehienek diotenez, murrizketa «saihestezinak» dira mundu osora hedatu den krisiari aurre egiteko; hala errepikatzen dute, konpartsa hutsak balira bezala. Gure arazoa, diote, gehiegizko defizit publikoa da, zor publiko eta pribatu handia, Europako erregio baten baino gehiagoren eta haien erakundeen sinesgarritasunik eza eta, are, kaudimenik eza ere. «Ongizate Estatuaren gehiegizko tamaina ere aipatzen dute.

Baina, hori guztia, dugun gaitzaren diagnostiko partziala baino ez da, eta, horrexegatik, azkenean okerra gerta daitekeena. Dugun arazoa bestelakoa dela ere esan baitaiteke; hau da, hazkunde ekonomikorik ezak, aberastasunik ez sortzeak ekarri gaituela gauden puntura, horregatik ezin dela lanposturik sortu. Ez dago eskaririk, ez dago kontsumorik, ez dago hazkunde ekonomikorik; eta horrek ezinbestean garamatza gaurko zerga-desorekara. Isatsari hozka egiten dion arraina.

Paul Krugman Nobel saridunak ematen digu arrastoren bat defendatzen duenean oraingo ziklo ekonomikoaren ikuspegi zabal eta osoa izan behar dugula, eta ihes egin epe laburreko ikuspegi eta analisi estatikoetatik. Beste gomen-dio bat ere ematen digu Krugmanek: ez dezagula har sektore publikoan murrizketak egitea EBko egoeraren irtenbide bakartzat.

Ematen du inor ez dela jabetzen %3 inguru hazi dela mundua 2011n, eta beste horrenbesteko hazkundera espero dela 2012rako. Ekonomia aurreratuak direla portaera okerre-na dutenak, %1,4 eta %1,3ko hazkundera izango baitute, hurrenez hurren, 2011 eta 2012an, Munduko Bankuak 2012ko urtarrilaren 18an argitaratu dituen datuen arabera. Eta ekonomia «aurreratu» horien artean, bereziki txarrak dira euroroguneari dagozkion datuak, ekonomiaren %0,3ko beheral-

dia aurreikusten baita 2012rako. Beraz, Europaren ikuspegitik, ez dugu hazkunde arazoa bakarrik, badugu banaketa arazoa ere, ekonomian berria ez den arazoa, bestalde. Nahikoa dugu XX. mendeari begiratu bat ematea: hazkunde erritmo bera izan zuten ekonomiak eta herrialde batzuen eta besteen arteko aldeek.

Era berean, ematen du inor ez dela jabetzen Espainiak %61eko zorra zuela BPGarekin alderatuz 2010eko amaieran; hau da, Europako beste herrialde askok baino txikiagoa: Holanda (%62,9), Belgika (%96,2), edo are Erresuma Batua (%79,9), Frantzia (%82,3) edo Alemania ahalguztidunak (%83,2). Hala ere, merkatuek zigortu egin dute arrisku-prima handia ezarriz, eta horrek ikaragarri garestitzen du defizit publikoa finantzatzeko behar duen dirua.

Batzuek dagoeneko Ongizate Estatuaren «lasta» deitzen diotenari dagokionez, berriz, gogoan izan behar dugu askoz handiagoa dela Gizarte Ongizatearen pisua Alemanian —zer esanik ez iparraldeko herrialdeetan—, interbenituak izan diren Irlandan, Portugalen edo Grezian baino... Edo «azkenak» diren herrialdeetan baino. Ez al dira horiek guztiak gogeta egiteko motiboak?

Guztiok dakigu eska daitekeela mailegu bat etxea edo autoa erosteko (eztabaidagarriagoa da oportetara joateko egin daitekeen ala ez). Baina ez dago inolako zalantzarik ez dela mailegurik eskatu behar supermerkatuan erosketa egiteko. Bestela esanda, ongizate-sistema izan nahi badugu, aberastasun eta diru-sarrera nahikoa sortu beharko dugu sistema hori finantzatzeko, oker handia delako maileguetara jotzea gizarte-politikak finantzatzeko. Murrizketak dira horrelako jokabidearen ondorioa. Gakoa ekonomia bizkortzea da, horixe baita bidea gizarte-gastua razionalizatzeko, horixe da bidea babes sozialeko mekanismoak ez desmuntatzeko.

Etorkizunari begira, zentzuzkoa da aitortzea azkenean ez dela izango zor-maila etorkizun hori baldintzatuko duena. Beste faktore batzuk izango dira benetan baldintzatuko dutenak: ezagupenek, trebetasunek, gure gizon-emakumeen

*jakituriak*, beren komunitatearekin duten konpromisoak, naturarekin eta munduarekin duten konpromisoak. Beste modu batean esanda, kapital soziala eta kapital naturala, hortxe jokatzeko dugu etorkizuna.

Zoritxarrez, gaurko errezetek beste bide bat daramate. Buro-belarri sarturik gaude *murrizketen olimpiada* zentzugabe horretako lehian. Zenbat eta murrizketa handiagoak proposatu, hainbat eta kudeatzaile hobea izan. Baina, Erdi Aroan gaixoei egiten zitzaizkien odolusteen pareko izango dira murrizketak ez badute ondoan bultzagarri ekonomikorik, lana, eskaria, aberastasuna eta zerga bidezko sarrerak sortuko dituenik. Odolustutako pertsona haiek ziurrenik min gutxiagorekin hilko ziren, baina hil egiten ziren. Bultzagarririk gabeko murrizketek ere azkenean gerarazi egiten dute gaitxoaren bihotza.

Iritzi hori bera agertu zuen Keynesek 1937an honakoa esan zuenean: «Hedaldi garaia da austeritate fiskalerako une egozia, ez atzeraldi garaia». Bitxia bada ere, urte haietan saiatu zen Franklin Delano Roosevelt AEBetako presidentea aurrekontu publikoak orekatzen, Beheraldi Handiaren ondoren ekonomia suspertzen ari zela ikusirik. Baina azkarregi joan nahi izan zuen, eta jokabide horrek atzeraldi sakonera eraman zuen berriro ere estatubatuar ekonomia. Gainera, Paul Krugmanek zentzuz dioten bezala, zor handiak dituzten herrietatik bakar batek ere ez du lortu finantza-merkatuen ongintzia erakartzerik murrizketa drastikoak eginez.

Gogoetaren bat egin beharko dugu, etorkizuna ez baita batere erakargarria. Sala i Martinek dioenez, aurreko urtearen amaierako ahultasun ekonomiko berberarekin hasi da 2012a ere. Europako periferia atzeraldian dago berriro ere (hots, hazkunde ekonomiko negatiboa duela) eta AEBak anemiak jota daude oraindik. Bai han eta bai hemen, zorrak kendu nahian dabilta gobernauk, bankuak eta familiak, eta horrek gastuak murriztera daramatzate; gastu-murrizteek, aldi berean, eskaria gutxitzea dakarte eta ekonomia uzkurteza eragiten dute.

Bi fenomeno berri gehitu behar zaizkio horri guztiari: batetik, lehertu egin da Txinako etxebizitzaren burbuila, nahiz oraindik ikusteko dagoen nolakoa izango den erorialdia, hondamendira eramaterainokoa edo geldiagoa. Ikuskizun dago, halaber, nolako eragina izango duen garatzeko bidean dauden gainerako herrialdeetan. Bestetik, eurogunearen erdialdeko herrialdeak ere kutsatu ditu Europaren periferiako krisi ekonomikoak; beraz, Espainiak, Italiak edo Greziak bi delagun izan ditzakete eremu horretako herrialdeak, Alemania edo Holanda esaterako, beren gurutze-bide sozio-ekonomikoan. Argi geratuko da, hartara, guztien etorkizunerako dela lasta europar lidergorik eza. Edo, nahiago bada, gaurko europar politika insolidario eta egoskor horrek guztiok itoarrak gaitzakeela.

Horrek guztiak pentsarazten dit gaurkotasun *mingarria* dutela Albert Einsteinek orain dela 100 urte esandako hitzek: «bitartekoetan perfektioa, helburuetan konfusioa, horixe da, nire iritziz, garai hauen ezaugarria».

Adibide argigarri bat. Osasun arloan, soldatetan, pentsioetan murrizketak egitea eta, aldi berean, zergak igotzea (PFEZ, OHZ...) izan dira Espainiako gobernu aukeratu berriak hartu dituen lehen neurriak. Ondorio bakarra izan dezakete horrelako neurriek, ekonomiaren egoera okerrago-tzea. Badirudi bat datozela oraingo gobernuko politikariak eta aurreko gobernuak ere: hobe da askori zerbait kentzea, gutxi batzuei asko kentzea baino. Uste dute pertsonak asko izanik, eta kentzen zaien kopurua txikia, ez diotela igarriko; gutxi direnak, aldiz, kexatu egingo lirake eta ez lukete hain erraz etsiko.

Hori guztia, lidergo falta nabarmena erakutsi duen EB batean, *ahal duena salba dadila* motako politikak aplikatuz guztiok hondora gaitzakeen EB honetan, egunerokoak baitira diagnostikoa egiteko orduan erakusten dituzten aldeak, liskarrak sortzeraino heltzen direnak. Arrazoi osoz dio honakoa Iñaki Beristainek *Crisis financieras y perspectivas* lanean:

uste dut neurri partzialen bidez egin nahi zaiola aurre arazo global bati (sektore publikoa & sektore pribatua, ekonomia erreala & finantza ekonomia, arlo guztiak hartzen dituenari). Arazoaren erdiari eman diezaioките irtenbidea neurri partzial horiek, horixe baita sektore publikoa ekonomia osoan, %50 (eta sektore publikoa murriztea edo orekatzea izan da azken garaietako politiken helburu ia bakarra).

Arrainak oraindik ere isatsari hozka ari dira, ez dakite besterik egiten.

Alde horretatik ezer berririk ez Espainian, euroguneko norabiderik gabeko bideari jarraika hor ere. Ez dirudi zentzuzkoa arazo bati irtenbidea eman nahia arazo horren %50az bakarrik arduratuz, eta albo batera utziz eragile pribatuek ordezkatzan duten beste %50a. Izan ere, eragile pribatu horiengan ere badu eragina zorpetze handiak, likidezia eskasiak, espektatiba negatiboek, langabezia-tasa altuek, beherantz doazen kanpo-merkatuek, eta abarrek.

Hori bai, dagoeneko badakigu *erruduna* nor den. Lehen, finantza-krisi esan zitzaion hartan, aurrezki kutxak ziren errudunak; oraingoan autonomia erkidegoak dira defizit publiko ikaragarriaren erantzuleak. Eta sendabidea: horiek interbenitzea. Baina, egia esan, ez da gauza berria Estatuko administrazioek autonomia erkidegoetako aurrekontuak kontrolatu eta horien gaineko erabakiak hartu nahi izatea.

Kontua da Espainiako gobernuak Bruselari agindu ziola 2011 urtea ixtean defizita ez zela izango BPGaren %6 baino handiagoa. PPK, gobernura iritsi ondoren, onartu behar izan du defizita %8 baino handiagoa izango dela, eta 40.000 milioi eurora helduko dela 2012an egin beharreko egokitza-pena. Gainera, Raxoi buru duen lehen ministro kontseilua-ren ondoren emandako datuek adierazten zuten gertatu den goranzko desbideratze horren %0,3 bakarrik dela administrazio zentralak sortua. Autonomia erkidegoak dira gainerakoaren, hau da, %1,7ren, erantzule.

Eta datu horrek agerian uzten du, batetik, nolako aldeak dauden autonomia erkidegoen artean: batzuk nazio dira, ge-neetan daramate autogobernua eta badakite eskumenak zen-

tzuz gauzaten; beste batzuk, aldiz, artifizialki sortu ziren, eta ospea eta entzutea jarri dituzte erantzukizunaren aurretik. Eta, bestetik, argi geratu da arazo politiko larria sortuko dela batez ere Estatuko nazio historikoekin, baldin eta Alemaniak berarekin jokatu duen moduan jokatu nahi badu Espainiako gobernuak autonomia erkidegoekin; izan ere, nazio diren erkidegoek erantzukizunez jokatu dute eta baita frogatu ere badakitela nola kudeatu efikaziaz baliabide publikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak badute, gainera, zerga- eta finantza-autonomia zabalak, oro har buru argiz garatu dutena, geure kultura sozio-ekonomikora egokitutako neurri propioak hartuz (orain ere ez dituzte zertan kopiatu Raxoiren zerga-igoerak, ezta hezkuntzan eta osasun arloan egin dituen murrizketak ere). Ez erkidego batek eta ez besteak sortu die inoiz desorekarik Estatuaren kontuei, ez behintzat PSE/PP itunak iritsi diren arte; aitzitik, autogobernua ongizatearekin dagoela lotua erakutsi dute. Beraz, oso erne egon beharko lukete biek ala biek zer gertatzen den, guztientzat zuzenketa-neurri berak aplikatu nahi izate hori benetako mehatxua baita; berdin dio alde zentzuzko zentsore moduan jokatzeko duten edo ondorengo berresle moduan.

## Eusko Jaurlaritza, bultzagarri gabeko zorpetzea

Azken hilabeteetan eten gabe egin du gora arrisku-primak Estatu osoan. Bilakaera horrek berehalako ondorioa izan du: administrazio publikoek baldintza garestiagoak izango dituzte zorra birnegoziatzeko garaian. Hainbat herrialdek izan dituzten zailtasunek —hor ditugu Portugal, Irlanda edo Grezia—, eta Italiak eta Espainiak gaur dituztenek argi asko erakusten digute zenbateraino eragiten digun eta eragingo digun guri ere zorra garestitzeak.

Zorpetzea berez ez da txarra, baldin eta neurri eraginkorrak hartzeko bada, eta ez gastu korrontea handiagotzeko.



Hau da, garai hauetan kontu handiz erabaki behar dugu zertarako zorpetu nahi dugun eta zenbateko zorra hartu nahi dugun geure gain, bestela ikaragarria izango baita kostua. Zorpetu bai, ekonomiaren dinamismoa emendatuko duten bultzagarriak sortzeko, ikerkuntzan eta berrikuntzan inbertitzeko, prestakuntzaren eta jakintzaren aldeko apustu estrategikoa egiteko; gaur, zalantzarik gabe, erabaki beharrezkoak eta egokiak dira horiek guztiak.

Baina, azter dezagun Eusko Jaurlaritzaren zorra. 2008an baino zorpetuago dago gaur EAE, eta are zorpetuago egongo da datorren urtean. 2008an, Eusko Jaurlaritzaren zorra ez zen 700 milioi eurora heltzen. Gaurko Eusko Jaurlaritzak egin duen ekonomia eta aurrekontu-kudeaketaren ondorioz, 5.500 milioi euroraino egin du gora zorrak 2011n; eta ez dezagun ahaztu PPre abala ere izan duela kudeaketa horrek. Eta gobernuaren lehen aurreikuspenak berresten badira behintzat, zorra 7.000 milioikoa izatera iritsiko da 2012an. Halakorik gertatzen bada inguruan arrisku-primak gora egingen jarraitzen duen bitartean, eta Espainiako primak kutsatzen gaituen bitartean, guztiz logikoa da ondorio honetara iristea: zorpetzea garestien gertatzen den unean, Jaurlaritzaren zorra zortzi aldiz biderkatuko da lau urtean, dagoeneko hautsi den PSE eta PPre arteko itunari esker. Garesti, oso garesti aterako zaio herri honi bi alderdien arteko ituna; euskaraz esaten den bezala, larrutik ordainduko dugu.

Makroekonomiaren ikuspegitik, horrek esan nahi du Jaurlaritzaren zorra gure BPGaren %8koa izango dela 2012an; duela lau urte, berriz, 2008an, %1ekoa zen. Aurrekontuei dagokienez, zorra handitze horrek eragin izugarria du, suntsitzailea. 425 milioi euro gorde beharko dira datorren urteko aurrekontuan zorrari erantzuteko, 170 milioi amortizaziorako eta beste 255 milioi interesak ordaintzeko. Kopuru hori 800 milioi eurokoa baino handiagoa izango da 2014an, zama finantzario oso garrantzitsua epe ertainera, hurrengo gobernuaren jarduna lotuko duena, zalantzarik gabe. Nahikoa da datu bakarra zifra horien neurria ulertzeko. Admi-

nistrazioko funtzionarioen eskubideak murriztea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Gobernuak dioenez, 100 milioi euroko *aurrezkoa* ekarriko dute neurri horiek; baina 225 milioi euroko gastua ekarriko du, ekitaldi berean, zorraren interesak ordaintzeak.

Hala ere, galdera hau egin behar diogu geure buruari: zertarako erabaki du gaurko Jaurlaritzak horrenbeste zorpe-tzea? Eta ez dirudi erantzuna izango denik helburu egokietarako erabiliko direla mailegu bidez lortutako baliabideak: alegia, egoera ekonomikoa bizkortuko duten bultzagarriak eskaintzeko, edo berrikuntzan, jakintzan inbertsioak egitea sustatuko dutenak.

Adibide batekin azaldu dezakegu hori guztia. Euskal Autonomia Erkidegoak ehuneko 18,24 murriztu du berrikuntza teknologikoan egindako gastua 2008-2010 epean; eta Nafarroak %10,38, INEk (Estatistika Institutu Nazionalak) 2011ko abenduaren 14an argitaratu zituen datuen arabera. Estatuan oraindik ere erreferente izaten jarraitzen dugun arren, bereziki larria da halako murrizketa gure enpresen arteko lautik bat berritzaileak direnean teknologiaren alorrean; zehazkiago esanda, %24,70 EAEn, %25,72 Nafarroan. Berziki larria da, oraindik ere teknologikoki aurreratuak diren enpresa asko dituen herria garelako, eta EAEn enpresek egiten dituzten salmenten %35,87 berrikuntzari loturikoak direlako. Baina horrek ez du luzaro iraungo berrikuntzan inbertitzeari uzten badiogu.

Bitxia da Euskal Autonomia Erkidegoan aldi berean inbertsioek behera egin izana eta zorra, berriz, neurri gabe gehitu —sei aldiz biderkatu baita—. Bestalde, hor dugu dagoeneko inbertsioak gutxitzearen lehen ondorioa: Europarekin alderatuta, atzera egin izana berrikuntzarekiko konpromisoan. Ahalegin handia egin ondoren, 2008an lortu zen, lehen aldiz, Europako batez bestekoaren gainetik egoeta: 2008ko Berrikuntzaren Europar Indizeak (EIS) emandako datu ofizialen arabera, 0,49 zen EAeko indizea, eta 0,48 Europako batez besteko indizea. 2010ean eman dituz-

ten datuek, aldiz, erakusten dute atzera egin dugula: 0,52 da Europaren batez besteko indizea, 0,45 gurea. Orain artekoa nahikoa ez eta, 2011ko aurrekontua eta 2012koa alderatuz gero, ohartuko gara 175 milioi euroko murrizketa izan dutela gure etorkizunerako guztiz funtsezkoa den I+B+g alorra sustatzeko diru-partidek.

Eta ez du ematen gobernuak programaturiko inbertsio produktiboa denik ere zorpetzea eragin duena. 2012an (Euskal Yaren eragina albo batera utziz) 151,5 milioi euro gutxiago izango dira inbertsio errealetarako, iaz baino %9,2 gutxiago.

Horri gehitu behar zaio, krisia burua erakusten hasi zenean, 500 milioi erabili zituela Eusko Jaurlaritzak, batetik, laguntza finantzarioko programak ezarriz enpresa txiki eta ertainei, ETE (PYME) delakoei, laguntzeko, eta, bestetik, gure enpresen aktibo zirkulatuak sendotzeko. Programa horretako 300 milioi baino gehiago erabiliak zeuden PPren laguntzari esker sozialistak Eusko Jaurlaritzan sartu zirenerako. 2009ko maiatzean osatu zen euskal administrazioak erabaki zuen abal-emaile izateari utziko ziola, baina programari eutsi zion. Ondorio hauxe izan du erabaki horrek: iaz 57 milioi euro eskas erabili ziren laguntza finantzarioaren behar gorrian dauden euskal ETEak sustatzeko. Beste modu batean esanda, egunetik egunera handiagoa zorra, baina murriztagoa ekonomia errealearen, prestakuntzaren eta berrikuntzaren sustapena. Murrizketak bai, baina bultzagarririk ez.

Begi-bistakoak dira horrelako politiken ondorioak. Orain dela bi urte baino pobregoak gara. Hauxe diote Eustaten estatistikek: 2008 eta 2010 artean, bost puntu jaitsi da euskaldunen per capita errenta Europako batez bestekoarekin alderatuz; %138koa zen 2008an, eta 2010ean, berriz, %133koa.

Ez dago zalantzarik, gaurkotasan *mingarria* dute orain dela 100 urte Albert Einsteinek esandako hitzek; nik ere bat egiten dut uste horrekin: «bitartekoetan perfektzioa, helburretan konfusioa, horixe da, nire iritziz, garai hauen ezau-garria». Gezurra dirudi, baina horixe da gertatzen zaiguna. Hain zuzen, Europa bitartekoak perfektzionatzen ari da aha-

leginean krisi historiko honetatik ateratzeko, baina ez daki nora joan nahi dugun. Ezagutzan aurrerapen handiak, ezagutza hori behar bezala aplikatzeko behar dugun jakiturian ere aurrerapen handiak egin beharko ditugu aurrean ditugun arazoei irtenbidea aurkitu nahi badiegu, izan ditzakegun aukerak ongi baliatu nahi baditugu.

Oraingoz Zainketa Intentsiboko Unitatean gaude. Garaiz ohartuko ote gara murrizketek gaitza arindu dezaketela, baina, bultzagarrikerik ezean, denbora kontua dela zorigaiztoko amaiera izatea? Jabetuko ote gara zenbaterainoko garrantzia duten, egoera makurrean aurkitzen garenean, inbertsioa, zientzia, hezkuntza, azpiegiturak, ordezeko energiak sustatzeko politikek, tokiko aurrezkoa (Kutxabank) bideratzea sustatzeko politikek? Jabetuko ote gara murrizketak ez direla nahikoa ekonomia biziko bada, edo, areago, murrizketak bakarrik eginez, bultzagarrikerik ez badago, gaixoa hil egingo dela azkenean? Konturatuko al gara behingoz oparotasun urteak aprobetxatu behar direla finantza publikoak saneatzeko, oparoaldia ongi kudeatzen jakin behar dela, Espainiak egin duenaren guztiz alderantzizkoa egin behar dela, alegia —horretan, umiltasun osoz diot, egokiago jokatu dugu duela hiru urte arte—, horixe delako bide bakarra gero ur nahasietan zuzen nabigatu ahal izateko; konturatuko al gara oparoaldia ongi kudeatzeak bakarrik berma dezakeela aurrekontu publikoaren eta Estatuaren *betekizun antiziklikoa*? Jakingo ote dugu esperientziatik ikasten, XX. mendeko gertakizun ekonomikoetatik: 29ko *Depresio Handia*, 70 eta 80ko hamarkadetako krisiak, Japoniako krisia, Latinoamerikakoa?

Hori guztia iradoki nahi du gogoeta honen tituluak eta baita mamiak ere: ondoan bultzagarrikerik ez duten murrizketek bihotza gerarazten dute, ekonomia eta pertsonak ausertitatean itotzen dituzte.¶

# Albisteen kalitatea: *Euskadi Irratia, ETB1 eta Euskaldunon Egunkaria / Berria*

**MARIA GONZALEZ GOROSARRI**

EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko NOR  
eta HGH ikerketa taldeetako kidea

Euskarazko kazetaritzak aurrera egingo badu, kalitatezko gutxi-  
eneko estandar batzuk bermatzen direlako izango da.

*Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresuaren 4. ondorioa (2005)*

## Sarrera

Artikulu honetara ekarritako datuak «Albisteen kalitatea: *Euskadi Irratia, ETB1 eta Euskaldunon Egunkaria / Berria* (Research on Basque Media's News Quality)» doktore tesia-  
ren emaitzak dira<sup>1</sup>. Txema Ramirez de la Piscinaren zuzen-  
daritzapean, euskarazko hedabideak ikuspegi profesiona-  
lek aztertu gura izan ditugu. Horregatik, nazioarteko kazeta-  
ritza-adierazleen arabera euskarazko hedabideek gauzatzen  
duten kazetaritza-jarduerari erreparatu diogu, hizkuntza  
normalizaturik ez duen testuinguruan lanean aritzeak da-  
kartzan ahuleziez errukitu barik. Azken batean, euskarazko  
hedabideak berez erdarazkoekin ere lehiatzen dira, bigarren  
horiek nagusitasun osoa duten egoeran.

Bikaintasuna definitzean bat datozen zenbait eremutako  
(enpresa, kazetaritza...) eta eredu ekonomikotako (kapitalista,

sozialista) ezaugarrien arabera, kalitatearen kontzeptu integratzailea garatu dugu. Nazioartean erabili ohi diren kazetaritza-adierazleekin albisteen kalitatea neurtzeko metodologia osatu dugu: Albisteen Kalitate-Eredua, hain zuzen. Horrekin, hiru euskarritako euskarazko hedabide zabalduenak aztertu ditugu: irratia (*Euskadi Irratia*), telebista (*ETB1*) eta egunero-ko prentsa idatzia (*Euskaldunon Egunkaria / Berria*). Ikerketak epe luzea hartu du: hedabideon sorrera urtetik 2008ra bitartean (*Euskadi Irratia* kenduta, albistegien fonotekaren faltan, 2008ko albisteak bakarrik aztertu ahal izan ditugulako).

## Albisteen kalitatea

Euskarazko hedabideek informatiboki asetzen duten gizartean parte hartzeko gakoak eskaintzeko helburua haien sorrera dokumentuetan bertan agertzen dute. Alde batetik, EiTb sortzeko 1982ko Legeak «euskal herritarrek informazioa jasotzeko eta parte-hartze politikorako» daukaten eskubidea bermatzeko eskatzen du. Bestetik, zatiketa ideologikoak zein administratiboak gainditzeko, *Euskaldunon Egunkariak* euskalduntasuna oinarri izango duten «zerbitzu informatiboak» abiatzeko xedea finkatu zuen. Horrenbestez, *Egunkariak* kalitatea «oinarritzat» hartu zuela propio nabarmendu zuen, eta ez helburutzat.

Nazioarteko egileak, baina, ez dira kalitatearen kontzeptuan bat etorri. Gainera, bikaintasunarekin lotutako zenbait alde nahastu dute, etikaren eta erlijioaren ikuspegitik eratorritako aginduak batik bat. Horregatik, Denis McQuail-ek kazetaritza-jardueraren kontzeptua finkatzean (*Media Performance: Mass Communication and the Public Interest*, 1992), kalitatea edukiarekin lotu zuen eta hedabideen gizarte erantzukizuna azpimarratu ere. Honela definitu zuen McQuailek hark garatutako kazetaritza-jardueraren analisirako teoria arau-emailea (*media performance analysis*):

Hedabideen horniduraren ebaluazio askea, gizarte onurarako irizpide alternatiboen arabera, ikerketa metodo objektibo

eta sistematikoen bitartez, bestelako nabaritasun egokiak eta aztergai diren hedabideen ohiko jardunaren baldintzak zein betebeharrak kontuan izanik (McQuail, 1992: 17).

Horrenbestez, albisteen kalitatearen helburua gizartean parte hartzeko gakoak eskaintzen dituen informazioa zabaltea dela ondorioztatu zuen McQuailek.

Horregatik, albisteen kalitateak ez du profesionaltasuna bakarrik kontuan hartzen, hedabideon gizarte-erantzukizuna ere bai. Azken hori hedabideak abiatu zituzten sorrera dokumentuek zehazten dute. Zenbait hizkuntzatan garatutako komunitate zientifikoek albisteen kalitateari egindako ekarpenak aztertutakoan, kontzeptu horrek honako ezaugarri komunak agertzen ditu: formatuari, edukiari eta gizarte-erantzukizunari buruzko atal berezituak. Hortaz, albisteen kalitateak hiru dimentsio horiek dituela esatean bat datoz egileak. Ondorioz, kalitatearen azterketak ere hiru maila horiek neurtu behar ditu.

Lehenengo eta behin, formatu-kalitateak albiste akastunak identifikatzen ditu: hornidurako hutsegiteak (seinalea eteten da, tinta-orbanek albisteen irakurgarritasuna trabatzen dute...) edota aurkezpen akatsak (irudia eta ahotsa bat ez etortzea, diseinu arauak urratzea...).

Bigarrenik, edukia aztertzeko bi alderi erreparatzen diete egileek. Alde batetik, aniztasunak gaiak, protagonistak eta albisteen sorterrria kontuan hartzen ditu. Bestetik, profesionaltasuna azaltzen duten hamar adierazleek kalitate-indizea osatzen dute (albiste-iturriak, tituluaren zehaztasuna eta informazioaren sakontasuna, besteak beste).

Azkenik, gizarte-kalitateak albistearekin hedabideak azaltzen duen jarrerari begiratzen dio, hots, hedabideak agertzen duen gizarte atxikimenduari. Horrela, jendarte antolatutako ereduaren eta kultur-komunitatearen arabera zehazten da.

Ondorioz, Denis McQuailen kazetaritza-jarduna (*media performance*) kontzeptutik abiatuta, zenbait euskarritan argitaratutako albisteak aztertzeko zeharkako irizpideak (*cross media*) barneratzen dituen metodoa garatu dugu. Horrela,

hainbat azterlanetan erabilitako adierazleek osatutako Albisteen Kalitate-Eredua eratu dugu. Ondoren, metodoaren beraren barne fidagarritasuna egiaztatu dugu. Orduan, *Euskadi Irratiko*, *ETB1eko* eta *Euskaldunon Egunkariako* / *Berriako* albisteak aztertu ditugu.

## Hipotesiak eta iker-galderak

Euskarazko hedabideetako albisteen kalitatea aztertzea doktore tesiaren helburu izanik, nazioarteko kazetaritza-jardunaren jarraibideen arabera neurria hartzea izan du xede. Horrela, euskarazko hedabideen indarguneak eta ahuleziak identifikatu ditugu. Euskaratik sortutako informazioaren gakoak nazioarteko albisteen kalitatearen eztabaidaren argitan interpretatu ditugu.

Dena den, lan honek kalitatearen hainbat alderi erreparatuko dio. Horrenbestez, honakoak izan dira ikerketaren hipotesiak eta horiek ebazteko iker-galderak:

1. *Hipotesia: Euskarazko hedabideek, nazioarteko hedabideen antzera, gizartean parte hartzeko gakoak azaltzea dute eginkizun nagusi.*
  - 1.1. Iker-galdera: Nolakoa da euskarazko hedabideen aniztasuna?
  - 1.2. Iker-galdera: Nazioarteko hedabideen *tabloidization* joerak ba al du islarik euskarazko hedabideetan?
  - 1.3. Iker-galdera: Zein da *Euskadi Irratiak*, *ETB1ek* eta *Euskaldunon Egunkariak* / *Berriak* plazaratzen dituzten albiste sendoen (*hard news*) eta arinen (*soft news*) arteko proportzioa?
2. *Hipotesia: Euskarazko hedabideek zabaltzen duten errealitateak euskalduntasuna egituratzen du.*
  - 2.1. Iker-galdera: Zein da euskarazko hedabideek zabaltzen duten agenda geografikoa?
  - 2.2. Iker-galdera: Albisteen kalitateari erreparatuz, gertuko berrien eta atzerrian sortutako ardeko alde-rik al dago?



- 2.3. Iker-galdera: Zenbateraino dira euskarazko hedabideek zabaltzen dituzten berriak komunitatearen adierazle?
3. *Hipotesia*: Euskadi Irratia, ETB1 eta Euskaldunon Egunkaria / Berria hedabideetako albisteen kalitatea, oro har, erdarazko hedabideetako berrien parekoa da.
  - 3.1. Iker-galdera: Zeintzuk dira euskarazko hedabideek erabiltzen dituzten albiste-iturri nagusiak?
  - 3.2. Iker-galdera: Euskarazko hedabideetako albisteak lan-  
duak dira?
  - 3.3. Iker-galdera: Hedabideen urtetako esperientziak akats kopurua gutxitzera lagundu du?
4. *Hipotesia*: Euskarazko hedabideen arteko aniztasunak berezko kazetaritza-eredua sortzea ekarri du.
  - 4.1. Iker-galdera: Zein ezaugarri dituzte euskarazko hedabideek plazaratzen dituzten albisteek?
  - 4.2. Iker-galdera: Izaera publikoak ala pribatuak berrien kalitatean eraginik badu?

## Ikerketaren lagina eta aztertutako aldiak

Euskarazko hedabideek zabaltzen dituzten albisteen kalitatea aztertzeko, sorrera urtetik 2008ra bitarteko epea kon-tuan izan dugu (*Euskadi Irratiaren* kasuan, esan bezala, az-ken urte horretako albisteak bakarrik). Gainera, telebistari dagokionez, 1986ko maiatzaren 31n *ETB2* gaztelera hutsez emititzeko katea abian jarri arte, *Euskal Telebistaren* albiste-giak elebidunak izaten ziren. Hiru hedabideek gehien na-barmendutako albisteak aztertu ditugu, hau da, titularretan edo lehen orrian azaldu dituztenak.

*Euskadi Irratiak*, *ETB1ek* eta *Euskaldunon Egunkariak* / *Berriak* zabaltzen dituzten albisteen kalitatea aztertu eta gero, 2008ko emaitzok Euskal Herrian gehien jarraitzen diren ha-mabost hedabiderek alderatu ditugu. Horrela, EAEz gain-diko tokiko irratiekin ez ezik (*Euskalerrria Irratia*, *Euskal Irra-tiak* eta *France Bleu*), EAEko *Radio Euskadirekin* eta Espai-

niako *Cadena Serrekin* ere alderatu dugu *Euskadi Irratia*. Era berean, *ETB1*eko albistegiak eta honako telebisten edukia aurrez aurre ipini ditugu: *ETB2*, *France 3*, *TF1* eta *Telecinco*. Azkenik, *Berria* erdal egunkariekin kontrajarri dugu: *Diario de Navarra*, *Diario de Noticias de Alava*, *El Diario Vasco*, *El Correo*, *Gara* eta *Le Journal du Pays Basque*. Guztira, hartutako lagin horrek ia 2.000 albiste aztertzeraz eraman gaitu.

## Euskarazko hedabideak

Lan honetan, euskal komunitatearen zati geografikorik handiena hartzen duten hiru euskarritako hedabideak aztertuko ditugu: *Euskadi Irratia*, *Euskal Telebista* eta *Euskaldunon Egunkaria / Berria*. Alde batetik, EiTB taldeko bi hedabideak euskaraz zabaldutako ikus-entzunezko hedabide publiko nagusiak dira. Bestetik, *Euskaldunon Egunkaria / Berria* herri ekimenak sortutako eguneroko prentsa da eta, horrenbestez, ez du EAEko gobernu-erakundeekin loturarik.

### *Euskadi Irratia*

Euskal Irrati Telebista (EiTB) sortzeko legearen lehen ondorioa *Euskadi Irratia* bera izan zen. Euskarazko irratiak 1982ko azaroaren 21ean lehen emanaldia aineratu zuen. Hortaz, EiTB eratzeko araudiak irratiaren helburuak zehaztu zituen<sup>2</sup>. Egileek xedeok hiru kategoriatan sailkatu ohi dituzte. Lehenengo eta behin, EiTBren jardunak «euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta zabalkundea» ditu helburu. Bigarrenik, EiTBk «euskal herritarrek informazioa jasotzeko eta parte-hartze politikorako» daukaten eskubidea bermatzeko eskatu zuen 1982ko Legeak. Hirugarrenik, EiTBri «euskal hezkuntza-sistemaren lagungarri» izateko eginkizuna egotzi zion (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 135-137; Gutierrez Paz, 2002: 72-78).

Euskaraz jarduten duten irratietatik lur-eremurik zabalean hartzen duena *Euskadi Irratia* da. Horrenbestez, hasieran

EAEn bakarrik zabaltzen zen. Nafarroara oso seinale ahula heltzen zen, ez zen etxean irratia entzuteko bestekoa. Horregatik, Iruñerriko Komunikabideak elkartearen ekimenez, 1984tik aurrera Euskadi Irratiaren seinalea hartu eta beste frekuentzia batera eraman zuten, eskualde horretako etxeetan artez jaso zezaten. Horren haritik, Iruñerriko Komunikabideak elkarteak Nafarroako berriak bilduko lituzkeen albistegia 1988an emititzen hasi zen; *Euskalerrria Irratiaren* lehen urratsa izan zen. Dena den, Nafarroan ez da oraindik *Euskadi Irratiaren* uhin bidezko seinalea taxuz zabaltzen. Alde batetik, seinalea urrunetik datorrenez, oso ahul heltzen delako. Bestetik, seinale horrek hartzen zuen lekua Nafarroako Gobernuak gerora hainbatetan banatu dituen frekuentziek eskuratu dute. Are gehiago, Ipar Euskal Herrian ere ez da herri guztietara heltzen. Lapurdi eta Baxenabarreko zati bat baino ez ditu hartzen (Oronos, Etkezaharreta eta Arbelbide, 2008: 188-189; Tubia, 1-6).

Martxan ipini eta hamar urtera, 1992an alegia, *Euskadi Irratiak* 100.000 entzule izateko helburua lortu zuen. Geroagoko datuek *Euskadi Irratiari* 107.000 entzule aintzatesten zizkioten 2010ean<sup>3</sup>, baina CIESen datu horiek ez dituzte Ipar Euskal Herriko entzuleak kontuan hartzen (Otermin eta Diez Unzueta, 2006: 162-167; SEI, 2004: 120).

*Euskadi Irratiko* entzuleen soslaiari dagokionez, generoen arteko oreka badago, irratia jarraitzen dutenen artean %48,8 gizonak baitira eta %51,2, ostera, emakumeak. Orokorreko irratia izateko, entzuleria gaztea du, jarraitzaile gehienak 26-45 urte bitartekoak direlako. Horrez gainera, gizarte-egituraren goi mailan kokatzen dira. Gehien-gehien bizilekua 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten herriak dira (%79,1), baina hiriburuetan ere asko entzuten da. Are gehiago, horrelakoetan *ETB1*ek baino lau bider hartzaile gehiago ditu. Irratia ahozkotasunean oinarritzen denez, uste daitekeenaren aurka, entzuleen %80k euskaraz ulertzen dute eta, are gehiago, euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai ere badira (CIES, 2008).

**ETB1**

*Euskadi Irratia* bezala, EiTb sortzeko 1982ko Legeak Euskal Telebistaren jarduna arautzen du. Horrenbestez, EAeko telebista publikoa 1982ko abenduaren 31n aireratu zen lehenengoz. Dena den, 1983ko udara arte ez zen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herri guztietara heldu. Are gehiago, Nafarroara ez zen heltzen. Horregatik, Atarrabiako Paz Ziganda ikastolako gurasoen ekimenez, 1986ko otsailaren 28an Aralarako Done Mikelen santutegiko kapilau Inozentzio Aierbek Iruñerrira *Euskal Telebistaren* seinalea zabalduko zukeen errepikagailua santutegiko eremuan bertan kokatzea baimendu zuen, «euskararen onerako zelako». Gaur egun ere, Nafarroako Gobernuak *Euskal Telebista* Lurreko Telebista Digitaletik (LTD) kanpo utzi du. Horrenbestez, seinale analogikoa baino ez da heltzen. Are okerrago, EAko militanteek 2012ko urtarrilean Erreniegan *Euskal Telebista* LTD bidez Nafarroan ere ikusteko hedagailua ipini zuten, baina Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak zigor espedientea zabaldu die, hedagailua baimenik gabe ipini zutela argudiatuta.

Ipar Euskal Herrian, azkenik, *Euskal Telebistaren* seinalea Lapurdiko kostaldera hasieratik heltzen bazen ere, Euskararen Sostengurako sindikatuaren ekimenez zenbait errepikagailu ipintzeko dirua bildu zen. Horregatik, Iparraldean *ETB1*ek *Euskadi Irratiak* baino eremu handiagoa hartzen du. Dena den, LTDk etorkizun hurbilean Iparraldean *ETB1* ikusi ahal izatea kolokan ipini du (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 124-135; Urteaga, 2005: 323-336).

*Euskal Telebista* sortu berria euskaraz eta gazteleraz aritzen zen. Horrenbestez, 1983ko otsailaren 1eko 21:00etan lehen albistegi formatuko saioa aireratu zen, urtarriletik bertatik informatzen hasi arren. Hizkuntza hauturik ez zuen orduko *Euskal Telebistak* egin, baina 1983ko abenduaren 19an gaztelera hutsezko albistegia abiatzeak hizkuntzaren araberrako bi kateen bereizketarako oinarriak zehaztu zi-

tuen. Hortaz, 1986ko maiatzaren 31n *ETB2* gaztelera hutsez emititzeko katea martxan ipini zuten, euskaraz aritzen zen *ETB1* EAeko telebista publikoaren «osagarri» moduan. Hala ere, albistegietarako talde bakarra osatu zuten. Hortaz, kazetari berak albistea euskaraz eta gaztelera landu behar du (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 124-135; Garmendia, 2005: 14-28; Martín Sabarís, 1999: 17-20; Otermin eta Diez Unzueta, 2006: 102-109; Zupiria, 2005: 217-226). Gaztelera-razko kateak ikusle gehiago dituen, horren merkatu-es-  
trategia gailendu dela kritikatu izan diote *Euskal Telebistari*:

... La posibilidad de «ensayar» en un primer informativo (en euskara, con poca audiencia) los contenidos del segundo (con una audiencia mucho mayor al ser en castellano). Este «ensayo» permite además una censura previa, ya que el redactor jefe o editor permanece atento a los vídeos en euskara, ordenando las correcciones oportunas a los periodistas que en esos momentos están editando las noticias en castellano (Martín Sabarís, 1999: 18).

Are gehiago, *ETB*ren gaztelaniarekiko mendekotasun horrek euskal gizartea islatzeari bizkarra eman diola deritzote. Horrenbestez, *Euskal Telebistak* eta *ETB1*ek, bereziki, identitatean «pot» egin izana leporatu diote. Aldi berean, *ETB*ko kazetarien xenofilia («auto-komplexudunaren gaitza») «endemikoa» izatera heldu ei da (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 124-135; Arana, 1995: 127-157; Garmendia, 2005: 23-27; Martín Sabarís, 1999: 17-20; Zupiria, 2005: 217-226).

*ETB1*en ikusle datuak oso aspaldikoak dira, *Euskal Telebistaren* bi kateek batutako ikus-entzule kopurua baino ez dutelako zabaltzen. Horrenbestez, Hego Euskal Herrian 2002an 204.000 ikusle zituen eta Iparraldean, 2005eko datuen arabera, 76.000 euskaldunetatik 42.000k aurreko egunean *ETB1* ordu erdiz ikusi egin zuten (SEI, 2004: 133; Urteaga, 2005: 323-336).

*Gaur Egun* albistegiaren ikusleen soslaiari dagokionez, emakumezkoak nagusitzen dira (%60,5). Gainera, ikusle gehienak 45 urtetik aurreragokoak dira. Are gehiago, 65etik aurreragokoen kopurua guztirako %47koa da, eta 45-64ra

bitartekoena %31,5ekoa. Gizarte-maila ertaineko kideak dira eta horietatik %64,1 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan bizi dira. Euskararen mailari erreparatuta, ahozkotasuna gailentzen da (Sofres, 2008).

### *Euskaldunon Egunkaria / Berria*

*Euskaldunon Egunkaria* gizarte eragileen ekimenez eta Eusko Jaurlaritzaren babes ekonomikorik gabe sortutako euskarazko kazeta izan zen. Lehen zenbakia 1990eko abenduaren 6an kaleratu zuen. Egunkaria Sortzen sustatzailea osatu zuten lagunek «euskaldun guztion egunkaria» antolatzeko ildo editorialaren hamaika ezaugarri adostu zituzten 1989ko abenduaren 10ean. Ordutik aurrera, ezaugarriok «hamaika oinarriak» izena hartu zuten: «euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, alderdi politikoezikiko independentea, erdal hedabideekiko independentea, ez instituzionala, diruz lagundua, militantea, profesionala eta berria» (Zalakain, 1993: 193-277; Zalakain, 1992: 462-606).

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epailearen aginduz, 2003ko otsailaren 20an 300 guardia zibilek zenbait egoitza eta etxebizitza miatu zuten. *Egunkaria* itxi egin zuten, galarazi. Gainera, hamar lagun atxilotu zituzten. Den-denek «tratu txarrak eta torturak jaso izana» salatu zuten. Are gehiago, Martin Ugalde bera auzipetu zuten. Handik zazpi urtera, den-denak absolbitu zituzten: errugabeak ziren eta, beraz, inoiz ere ez zen *Euskaldunon Egunkaria* ixteko arrazoirik egon<sup>4</sup>. Hortaz, 2003ko otsailaren 21ean kaleratutako euskarazko egunkariak *Egunero* zuen izena. Azkenik, 2003ko ekainaren 21ean proiektu berria plazaratu zuten: *Berria*, hain zuzen (Agirre, 2004; Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 150-161; Zalakain, 2003; Zalakain 1993: 193-277; Zalakain, 1992: 462-606).

*Euskaldunon Egunkaria* itxi aurreko urtean, 2002an alea, 14.396 ale saltzen zituen. Orduko prentsa txandakatzearen indizea 3,2koa zela kontuan izanik, kazetak 46.067 ira-

kurle inguru zituen. *Berriak*, gainera, kopuru hori hobetu zuen. Horrela, 2008an 18.000 ale saltzen zituen<sup>5</sup>. Horrenbestez, 57.600 irakurle aintzatesten zitzaizkion (Ramirez de la Piscina et al., 2010: 19-25; SEI, 2004: 96).

*Berriaren* irakurleen soslaiak, azkenik, genero aldetik alde handiegirik erakusten ez badu ere, gizonak emakumeek baino gehiago kontsumitzen duten euskarazko hedabidea da. Egunkaria erosten duten gehienak adin ertainekoak dira: 46-55 urte bitartekoek guztirako %27,4 osatzen dute; 36-45 urte bitartekoek, %26,3; eta 26-35 urte bitartekoek, %23,8. Erosle gehienak euskal gune trinkoetan bizi dira: %59 Gipuzkoan, eta %24 Bizkaian. Erosleek ikasketa maila altua dute eta batez besteko hizkuntza gaitasuna baino altuagoa agertzen dute (Aztiker, 2008).

## Euskarazko albistegintzaren ahuleziak

Euskarazko hedabideak hizkuntzaren elementu estrategikotzat hartu izan dira. Ildo horretatik, hedabide erdaldunek agertzen ez duten euskal nortasun anitza garatzeko eragile egokiak izan daitezke. Hortaz, nazioarteko kazetaritzaren erroka bertsuei erantzun behar diete euskarazko hedabideek: horikeriari eta kazetaritza lasterrari. Geurean, gainera, globalizazioak zabalduko bi joera horiek euskaldunon akulturazioa areagotuko lukete.

## Horikeriaren arriskupean

Irakurle eta ikus-entzule gehiagorengana heltzeko asmoz, tabloideen agenda onartzearen ondorioa da horikeria (*tabloidization*). Erresuma Batuko *Daily Mirror* egunkariaren kazetaritza jarduerak *tabloide* izena hartu zuen. *Daily Mirror* 1903an sortu zen. Kioskoan erosleek arreta deitzeko, azalean agertzen zituen albisteak istorio laburrak izaten ziren. Gainera, irudi ikusgarriekin eta titulu sentsazionalistekin aurkezten zituen. Hartzaile gehiagorengana heltzeko as-

moz, XXI. mendeko kazetaritzak albisteak aurkezteko eredu hori nabarmen zabaldu du (Gripsrud, 2000: 289; Lasagni & Richeri, 2006: 64-69).

Euskarazko hedabideetan horikeriak zer ondorio izan dituen aztertzeke, hiru aldagairi erreparatuko diegu: titularretako eta lehen orriko albisten gaia, agertzen duten protagonista mota (administrazioa edo gizarte eragileak) eta informazioaren sorlekua. Izan ere, hiru adierazleok elkarrekin lotuta daude, Euskal Herritik kanpoko albiste-agentzien berriei lehenetsasuna ematean, haien agenda mediatikoa zabaltzen dutelako euskarazko hedabideek. Azter ditzagun titularretan eta lehen orrian aurkitzen diren albisten nolakotasuna dagokien sailaren arabera (Politika, Gizartea, Kultura eta Kirolak).

Lehenengo eta behin, *Politika atala* hiru hedabideotako sailik garrantzitsuena izan da, 2000ko hamarkadan *ETB1* en Gizartea nagusitu arte. Hortaz, *Euskal Telebistaren* lehen hamarkadan, Politika sailak ikusgarritasunik handiena zuen. Atal horretan hiru albiste-mota agertzen ziren, bakoitzak titularren herena hartzen zuen: Jaurlaritzaren jarduera, euskal gatazka eta Euskal Herritik kanpoko berriak (Frantzia eta Espainia, Europar Batasuna eta Nazioartea).

*Euskaldunon Egunkaria* sortu zen 1990eko hamarkadan, *ETB1*ek Jaurlaritzaren jardueraren inguruko albisten kopurua erdira murriztu zuen. Hortaz, euskal gatazkari eta Espainiako berriei nagusitasuna eman zien. *Egunkarian* gatazkak pisu handia bazuen ere, Frantziako eta Espainiako albisten arteko parekotasunari eutsi nahi izan zion kazeta sortu berriak (1-2ko proportzioan, *ETB1*ekoa 1-12koa zen bitartean). Horrenbestez, *Egunkariaren* azalean agertzen ziren politika albisten ia erdia nazioarteko berriak ziren. Horren ondorioz, ezker abertzalea *ETB1*eko albisteetan euskarazko kazetan baino maizago agertzen zen. Era berean, *ETAk* zein poliziak telebistan kazetan baino ikusgarritasun handiagoa zuten. Hala ere, oposizioko alderdi txikiak (*EAK* eta *EBk*, esaterako) *Egunkariaren* lehen orrian agertzen ziren bitartean, *ETB1*eko titularretan ez zuten lekurik. Dena



den, bi hedabideek aginteko alderdiak plazaratzen zituzten eta nazioarteko albisteetan, gainera, ia aginteko buruzagien berri baino ez zuten ematen.

Ondoren, 2000ko hamarkadan, euskarazko bi hedabidee-tako politika albisterik garrantzitsuenen erdiak gutxi gora-behera (%45ek *ETB1*en, eta %55ek, *Berriak*) euskal gatazka zuten hizpide. Horrela, albiste horien protagonistak kontuan hartuta, *ETB1*ek Hego Euskal Herriko bi gobernueta-ko alderdiak agertzen zituen bitartean (EAJ eta UPN), *Berriak* polizia lehen orriko politika albisteen ia erdian azaltzen zuen, euskal gatazkak bereganatu berri zuen ikusgarritasunaren ondorioz. Are gehiago, bi hedabideotan ETAk oposizioko euskal alderdiek baino protagonismo handiagoa zuen. Izan ere, azken horiek asteburuetan baino ez zuten titularretako edo lehen orriko albisteetan protagonista izate-rik, *ETB1*ek ez baitzituen asteburuetan aginteko alderdiak protagonista moduan azaltzen.

Azkenik, 2008an *Euskadi Irratiak*, *ETB1*ek eta *Berriak* ager-tu zituzten politika albisteak inoiz baino berdintsuagoak izan ziren. Euskal gatazkak nagusitasun osoa bereganatuta, munduko albisteek ere lekua galdu zuten. Gainera, nazioarteko albisteak AEBetan sortuak ziren, batez ere. Ondorioz, hiru hedabideek titularretan eta lehen orrian AEBetako albisteei egindako tarte Jaurlaritzaren jarduerari buruzkoen bikoi-tza izan zen. Are gehiago, AEBetako politika berriek Espai-niako gobernuari buruzkoak baino leku handiagoa hartu zuten: *Euskadi Irratiak* 1-1 proportzioari ekin zion bitartean, *ETB1*ek 2-1eko neurrian agertu zituen titularretan, eta *Berriak* 5-1ekoan. Hiru hedabideek AEBetako politika-albiste kopuru berdintsua plazaratu zutela kontuan izanda, hona-koa egiaztatu dugu: Espainiako berriek euskal politikaren jardunari lekurik ez kentzeko *Berriak* aplikatzen duen iragazki editorialak ez du AEBetan sortutako informazioa erre-fusatzen.

Bigarrenik, *Gizarte sailak* jardun sozialari buruzko haus-narketa sustatu ordez informazio arinaren alde egiteko, bi

ezaugarri bereganatu dituzte hedabideek. Alde batetik, Gizarte ataleko albisteetan gizarte eragileak baztertu dituzte. *ETB1*ek 1980ko hamarkadatik 1990era haien agerpena erdira murriztu zuen, eta, aldiz, protagonista identifikagarriak agertzen ez zuten albisteen kopurua bikoiztu zuen Gizarte sailean. Are gehiago, 1990eko hamarkada horretan, aginteko politikariek Gizarte ataleko albisteak ere protagonizatzeari ekin zioten, herri lanak inauguratuz ez ezik, horien ikuskatzea ere albiste bihurtzea lortu baitzuten. Ordutik aurrera, jokabide horiek gero eta ohikoagoak dira. Horrela, 2008ko datuen arabera, *ETB1*eko titularretan datozen Gizarte saileko albisteen %82,35ek ez dute protagonista pertsonifikaturik azaltzen. *Berriak* ere *Euskaldunon Egunkariak* baino tar-te bikoitza eskaintzen die protagonista mota horiei. Hala ere, bi kazetek Gizarte saileko albiste erditan gizarte eragileak agertzeari eutsi diote, eta *Euskadi Irratiak* ere bai, baina proportzio txikiagoan (protagonista identifikagarriak gabeko Gizarte saileko albisteak %58,33 izan ziren irrati publikoan, 2008an).

Ildo horretatik, protagonista identifikagarriak ez dakarten albisteen kopurua handitzearekin batera, informazio arina (adib.: istripuak, natur hondamendiak, elurteak zein beroaldiak) agertzen duten hedabideek Espainiako eta AEBetako gero eta albiste kopuru altuagoa azaltzen dute. Adibidez, *EiTB*ko bi hedabide publikoek 2008an aireratu zituzten Gizarte saileko albisteen herena Espainian sortuak ziren.

Hirugarrenik, *Kultura saila* euskal kulturaren berri ematen zuen atal bezala agertzen zuen 1980ko hamarkadako *Euskal Telebistak*. Hortaz, zenbait arte-diziplinaren inguruko albisteak eguneko garrantzitsuen artean zeuden eta kultur berrien ia erdia ziren. Are gehiago, zientziari buruzko albisteak kultur berrien %11,11 izaten ziren. Hurrengo hamarkadan, oster, *Euskaldunon Egunkariak* lehen orrian agertzen zituen kultura albisteak *ETB1*eko kultur berrien kopuru bikoitza ziren. Dena den, bi hedabideek hainbat arte-diziplina, euskara eta euskarazko hedabideak titularretan eta lehen

orrian azaltzen zituzten. Hala ere, 2000ko hamarkadan *ETB*iek ez zuen euskarazko kulturarekiko atxikimendurik agertzen. Gainera, kultur albisteek gero eta leku gutxiago zuten eguneko titularretan. Aldi berean, telebista publikoak aineratzen zituen kultur albisteek gero eta arte-diziplina gutxiago agertzen zituzten. Ondorioz, *Euskadi Irratiak* eta *Berriak* euskarazko kulturatik abiatutako albisteak plazaratzen zituzten bitartean (literatura, bertsolaritza, euskarazko hedabideak...), *ETB*iek Espainiako eta AEBetako kultura gaiei ere lekua egin zien (titularretan agertutako kultur albisten %10 eta %20, hurrenez hurren).

Azkenik, *Kirol sailak* futbolaren nagusitasuna ekarri du. *ETB* sortu berrian, ostera, futbolak eguneko albisten herena hartzen zuen, txirrindularitzak beste. Horrela, 1980ko hamarkadan, eguneko kirol albiste nagusiak beste zortzi diziplinaren ingurukoak izan ziren. Dena den, 1990ean Gizarte saileko albiste arinen kopurua biderkatzean (istripuak, natur hondamendiak, elurteak zein beroaldiak), titularretan agertzen ziren kultura eta kirol albisteak erdira murriztu zituen *ETB*iek. Aldi berean, futbolaren erabateko nagusitasuna finkatu zen: *ETB*ieko titularretako albisten %56,25 futbolari buruzkoak ziren, eta *Egunkarian* %62,86. Hurrengo hamarkadan, telebistak futbolaren agerpena oraindik gehiago indartu zuen. *Berriak*, aldiz, futbola lehen orrian agertzen jarraitu bazuen ere, txirrindularitzari eta saskibaloari berebiziko garrantzia ematen hasi zitzaizen. *Euskadi Irratia*, ostera, kirol albisterik anitzena zabaltzen duen euskarazko hedabidea da. Gainera, pilotaren inguruko albisteei nagusitasuna ematen dien euskarazko hedabide bakarra da: 2008an *Euskadi Irratiko* berrien %37,5 pilotari buruzkoak ziren bitartean, *Berriako* lehen orriko kirol albisten %9,09k baino ez zuten pilotaz informatu, eta *ETB*iek ez zuen pilotari titularretara eraman.

Ondorioz, 2000ko hamarkadatik hona *ETB*ieko titularrek euskararekiko atxikimendua lausotu dutenetik, euskarazko hiru hedabideen informazioa bat etortzeko gakoa ez da eus-

kara, politika baizik. Are gehiago, 2008an, *hiru hedabideek zabaldu zituzten kirol albisteek kultur berriek baino konbergentzia handiagoa agertu zuten, ETB1ek ez baitzuen euskal kulturaren inguruko albisterik titularretan eman* (AEBetako telebista-saioak, ordea, bai).

### *Fast journalism* edo kazetaritza lasterraren zantzuak

Albisteen kalitatearen gainbehera horikeriarekin lotu izan dute AEBetako egileek. Europan, ordea, alemaniar akademiakoek ez diote bikaintasuna horikeriari mugatzen. Horrenbestez, kazetaritza-estandarren gainbehera utzikeria profesionalari dagokiola azaldu dute. Beraz, *kazetaritza lasterra* esamoldea erabili dugu *fast journalism* kontzeptua euskaraz esateko, *arin* izenondoa *soft news* izendatzeko erabili dugulako (albiste arinak). Gainera, «lan lasterra, lan alperra» esatera zaharraren haritik, kazetaritza *fast foodekin* parekatzen duen hitz jokoa euskaraz ere argiago ikus daitekeela deritzogu (Köster eta Wolling, 2006: 80-92; Maurer eta Trebbe, 2006: 39-51; Rössler, 2006: 488-501; Schirmer, 2001: 92-94).

Kazetaritza ekimena erakundeetako komunikazio-arduradunen eta Euskal Herritik kanpoko albiste-agentzien esku geratzean, euskarazko hedabideen jardura profesionala ere baldintzatuta atera da. Izan ere, hedabideok agentziek bidalitako informazioaren gatibu bihurtu dira. Horrela, euskarazko hedabideek gero eta azken-azken orduko albiste gehiago plazaratzen dituzte. Gainera, Euskal Herritik kanpoko albisteek *oraingotasun* handiagoa erakusten dute, bertakoek baino. Ondorioz, informazio horren lanketan ere eragina du, agentzien berriek kalitatearen hiru adierazle mugatzen dituztelako: informazioaren osotasuna, ikuspegi-kopurua eta informazio-elementu osagarriak. Lehenengo eta behin, hedabideek lortu ez duten *informazioaren osotasuna* kolokan dago: bospasei kazetaritza-galderen erantzuna bilatzeko (*nork, zer, noiz, non, zergatik* edota *zelan*) esku-hartze mugatua dute euskarazko hedabideek. Bigarrenik, albistearen *ikus-*

*pegi askotarikoak* emateko ahalmena hedabideetatik informazioaren igorlearengana eskualdatzen da. Hortaz, hedabideon informazio-eredua kaltetuta ateratzen da. Azkenik, informazioa osatzeko *elementu gehigarriak* (soinuak, irudiak, argazkiak) ere ez daude euskarazko hedabideen esku. Tokiko albisterik argitaratzen ez duten neurrian, euskarazko hedabideon erabaki-ahalmena bi aukeratara mugatuta geratu da: agentziek edo komunikazio-kabineteek bidalitako irudiak edo argazkiak zabaltzea edo ez baino ezin dute ebatzi.

Aldi berean, ikus-entzuleek eta irakurleek Interneten albistean sakontzeko baliabideak aurki ditzaketen sasoian, hedabideek informazioaren *gardentasunik* ez dute bermatzen. Alde batetik, 2008an bi hedabide publikoetako albisteen herenak eta *Berriaren* erdiak baino ez zuten *informazioaren jatorria* aipatu. Hedabideak albistea zein bidetatik jaso duen azaltzen du jatorriak: prentsa-oharra, prentsaurrekoa, protagonistaren deia, albiste-agentziek bidalia... Izan ere, informazioa ez da neutrala. Horrenbestez, informazioaren helburua zehazteko, igorlea nor izan den argitzeak albistea bera interpretatzeko gakoak eskaintzen dizkie ikus-entzuleei eta hartzaileei. Beste aldetik, informazioaren jatorri ezkutua nagusi denean, *albiste-iturririk* ez aipatzeko joera ere nabarmen areagotu da. Albiste-iturri identifikatuak kopurua oso urria da hedabideotan; honakoak 2008ko datuak dira: *Euskadi Irratiko* albisteen %40,71k iturri identifikatuak agertu zituzten, *ETB1*en %28,87k, eta *Berrian* %51,88k. Ondorioz, euskarazko hiru hedabideek agertzen dituzten albistek informazioa hesitzen dut: haien hartzaileei informazio horretan sakontzea eragozten diete. Azken batean, komunikazio-paradigma horrek inbutuaren antza hartu du: informazio-igorle nagusiak albiste-agentziak dira eta horiek hedabideek agertzen dituzten berrien oinarritzko gakoak dituzte (osotasuna, ikuspegi-kopurua eta elementu gehigarriak). Ondoren, albiste mugatu horiek zabaltzean, ikus-entzuleei eta irakurleei informazioan sakontzeko baliabideak ukatu egiten dizkiete hedabideek. Beraz, herritarrek albiste-agentzien be-

riren zertzeladak dituzte, gizartean parte hartzeko aukerak gero eta urriago zein antzuago bihurtuz.

Kazetaritza lasterraren ezaugarriak *Euskal Herritik kanpo sortutako albisteetan* nabarmenagoak dira. Horregatik, kazetaritza-estandarrekiko utzikeriak euskarazko kazetaritza eredia ere kutsa dezake, bertako albisteak ematean kazetaritza jarduera oker hori nagusitzen bada: gardentasunik gabekoa, informazioaren osotasunik agertzen ez duena, ikuspegi-kopuru bakarra agertzen duena eta elementu gehigarri egokirik (irudiak, argazkiak) eskaintzen ez duena.

## Indarguneak

Euskarazko hedabideen ahulezia nagusiak euskalduntasunetik sortutako albisteei ez eustetik ondorioztatu direla ikusi berri dugu. Horrela, hedabideok horikeria zabaltzen hasi dira eta horrexek kazetaritza lasterraren zantzuak agertu ditu. Beraz, hedabideon sorrera-dokumentuetan azpimarratutako nortasunaren auziari kale egiteko arriskua dute. Aldiz, kazetaritza jarduera profesionala euskarazko hedabideon indargunerik handiena da. Horrenbestez, euskarazko kazetaritza-jarduera erdarazkoa baino bikainagoa da, euskararen inguruan informatzen ez dutenean ere.

## Euskarazko Komunikazio-Esparrua

Euskarazko Komunikazio-Esparruak «euskaraz aritzen garenon komunikazioaren espazioa» zehazten du. Hortaz, «*espazioa ez da euskararena, komunikazioarena baizik*» (Basterretxea eta Zuberogitia, 2005: 29).

Euskarazko komunikazioaren sorburua kultur ondare euskalduna da, eta helburua «euskaldunok asebeteko dituzten komunikabideak eskaintzea». Horrela, hedabideek euskaratik sortutako erreferentzia-sistema gizarteratuko dute. Ildo horretatik, euskalduntasunak muga administratiboak gainditzen ditu:

Muga administratiboez gaindiko esparru kultural eta linguistikoak zilegiak ez eze, gauzagarriak eta gorpuzgarriak ere badira. Guk geuk ere demostratu dugu hori behin baino gehiagotan, lehen legez baita orain ere: Urdazubiko Pedro Agerre Azpilkueta Saran egin zen *Axular*, eta Donostian jantzi zuen txapela Urepeleko Fernando Aire *Xalbadorrek* (Basarterretxea eta Zuberegoitia, 2005: 41).

Baina Komunikazio-Esparrua ez dator ikuspegi abertzalearekin bat, euskaldun izaerarekin baizik. Horregatik, euskaldun izateko modu anitzak sor ditzakeen espazio bakarra da. Alde horretatik, euskarazkoak diren neurrian, hedabideek ezaugarri komunak dituzte: euskarazko eztabaida publikora albisteak dakartzate. Horrenbestez, albisteen berri ematean, haien artean proportzio handiagoan egiten dute bat erdarazko hedabideekin baino:

**2008ko titularretako eta azaleko albisteen gaia (%):  
hedabideekiko konbergentzia metatua**

	Euskadi Irratia	ETB1	Berria
Euskarazko hedabideekin	<i>ETB1 eta Berria</i> %35,96	<i>Euskadi Irratia eta Berria</i> %44,84	<i>Euskadi Irratia eta ETB1</i> %43,75
EAEz gaindiko tokiko euskarazko hedabideekin	<i>Euskalerrria Irratia, France Bleuko Euskarazko Emankizuna eta Euskal Irratiak</i> (%15,84)	<i>France 3ko Euskal Herri albistegia</i> %5,81	
Erdarazko hedabide abertzaleekin			<i>Gara eta Le Journal du Pays Basque</i> (%35)
Erdarazko hedabide abertzale instituzionalekin	<i>Radio Euskadi</i> %28,22	<i>ETB2</i> %95,87	
Erdarazko hedabide erregionalistekin			<i>El Correo, El Diario Vasco, Diario de Noticias de Alava, Diario de Navarra</i> (%40,62)
Estatuetako erdarazko hedabideekin	<i>Cadena Ser</i> %13,15	<i>Telecinco eta TF1</i> %30,72	

Dena den, *ETB1*ek ez du albistegi propiorik, eta euskal kazetarien lana *ETB2*rekin partekatzen du. Hortaz, *Euskadi Irratiak* askatasun handiagoa agertu du *Radio Euskadirekiko* eta, horregatik, EAEz gaindiko euskarazko hedabideekin proportzio handiagoan etortzen da bat. Aldiz, *Euskadi Irratiak eta Berriak partekatzen zituzten albisteez euskara eta euskalduntasuna zituzten sorburu*. *ETB2* sortu artean, *Euskal Telebistako* albistegiak ere ezaugarri horiek agertzen zituzten. Hala ere, 1986tik aurrera, *ETB2*ko ikusleria erdaldunaren informazio-gogoia asetzeko, albistegi euskaratua aireratzen du *ETB1*ek. Horregatik, gainerako euskarazko hedabideekin bat egiteko ezaugarriak ez dira euskalduntasunetik sortzen; alderantziz, bat egiten zuten berrien erdia Politika saileko albistek izaten dira. Are gehiago, ekonomia berriek gizarte gaiak baino konbergentzia handiagoa erakusten dute. Hortaz, hiru hedabideak elkartzeko, kirolek kultur gaiak baino konbergentzia handiagoa egiaztatu zuten (%58,7koa, hain zuzen), *euskarazko hiru hedabideek komunean zituzten albisteez ez baitzuten euskararen inguruan informatzen*. Beraz, hirurek osatutako Euskarazko Komunikazio-Esparruaren ezaugarria ez litzateke hizkuntzari buruzko informazioa izango.

Hiru hedabideek berezko duten *Euskarazko Komunikazio-Esparruko albisteez kazetaritza-jarduera bikainagoa* suspertzen zutela egiaztatu dugu. Izan ere, banakako azterketan baino emaitza hobekak lortzen zituzten, *ETB1*ekin bat egin zuten *Berriak* albisteez kenduta. Hortaz, hiru hedabideetan agertzen ziren berriek gainerako albisteez baino ikuspegi-kopuru altuagoa azaltzen zuten. Horren ildotik, euskarazko hedabideen jarduna euskalduntasunetik alden du denetik, zabaltzen dituzten berriek kalitate eskasagoa agertu dute. Horrenbestez, euskalduntasuna alboratu duten euskarazko berriek Komunikazio-Esparrua ere eraldatzen dute, eztabaida publikoari ekarritako edukietan herritarrek ezin dezaketelako euskaraz eragin.

Beraz, Euskarazko Komunikazio-Esparru autozentratua kalitateari eusteko gakoa da. Bestela, albisteen kalitate-galera



dakarten berriek eztabaida publikoaren eremua ahultzen dute. Hala ere, euskarazko hedabideek kalitate gutxiagoko berriak plazaratzeak ez du kazetaritza-estandarrekiko utzikeria erdarazko hedabideetan ematen den proportzioan ekarri.

## Erdarazko hedabideek baino jarduera profesional bikainagoa

Euskarazko hiru hedabideok Euskal Herrian gehien zabalzen diren euskarri bereko beste hamabost hedabiderek alderatu ditugu. Erdarazko hedabideek landutako albisteen alderaketa horretan, euskarazko berrien bikaintasuna alderatu dugu: informazio bera bi hedabidetan agertzen denean, euskarazkoek edo erdarazkoek hobeto lantzen duten zehaztu nahi izan dugu. Izan ere, albiste-agentzia guzti-guztiek erdara hutsez jarduten dutenez, euskarazko albisteek erdarazkoen nazio ikuskera bera zabaltzen dute. Hortaz, erdarazko hedabideentzat berri horiek berezko eremukoak izan arren, *euskarazko hiru hedabideek hobeto informatzen dutela* egiaztatu dugu.

Lehenengo eta behin, albisteen *hautaketa prozesuari* dago kiola, euskarazko eta erdarazko hedabideen kazetaritza-jarduera nahiko antzekoa da. Izan ere, zenbaitetan albiste-agentziek zabaldutako informazio bertsuaren berri ematen dute. Horregatik, albiste horiek *ez dute gaurkotasunean eta adierazgarritasun sozialean alderik* agertzen. Dena den, informazio bera zabaltzean, euskarazko hiru hedabideak erdarazkoak baino *gardenagoak* direla egiaztatu dugu. Hortaz, *informazioaren jatorri argiagoa eta albiste-iturri identifikatu gehiago azaltzen dituzte euskarazkoek*. Izan ere, ez dago bi adierazleotan nagusitzen den erdarazko hedabide bakarra. Alde horretatik, *Diario de Navarra Berriak* baino informazioaren jatorri argiagoa plazaratu arren, *Berriak* hark baino informazio-iturri identifikatu gehiago azaltzen ditu. Alderantziz, *Cadena Serrek* eta *Diario de Noticias de Alavak* euskarazkoek baino informazio-iturri identifikatu gehiagore-

kin informatu arren, ez dute albistearen jatorria euskarazkoek bezain argi azaltzen. Gainerakoei euskarazkoak nagusitu zaizkie.

Bigarrenik, *informazioaren trataeran* euskarazko hedabideen jarduera erdarazkoena baino bikainagoa da, ustez hizkuntzak gehien baldintzatuko lukeen albistegintzaren bigarren prozesuan batik bat. Berri-agentziek igorritako informazioa tratatzean, *euskarazko hedabideek titulu egokiagoak ipintzen dituzte, albistearen bospasei kazetaritza galderei gehiagotan erantzuten diete eta informazio-elementu gehigarri esanguratsuagoak biltzen dituzte*. Gainera, hautaketa prozesuan gertatzen zen bezala, erdarazko hedabide bakarra ere ez zaie bikaintasunaren adierazle horietan guztietan euskarazkoei gailendu. Horrenbestez, informazioaren bospasei kazetaritza galderak (*nork, zer, noiz, non, zergatik edota zelan*) *Berriak* baino hobeto erantzuten dituzten *El Diario Vascok* eta *Diario de Navarra* euskarazko egunkariak baino ikuspegi-kopuru gutxiago agertzen dituzte. Beraz, informazio-elementu gehigarrietan bakarrik azaltzen du *El Diario Vascoren* eta *El Correoren* nagusitasunak *Berriarekiko* alde handia, infografiei dagokiela oro har.

Ondorioz, *euskarazko hedabideetako albisteen kalitatea erdarazkoen parekoa ez ezik, zenbaitetan bikainagoa ere badela egiaztatu dugu*. Izan ere, erdarazko hedabideek albiste-agentziekiko mendekotasun handiagoa agertu dute. Euskarak, hortaz, kazetaritza-ekimenari eusteko baliabideak garatu ditu, mendekotasun hori apalduz. Gainera, euskarazko kazetaritzaren gabezia endemikotzat har zitezkeen adierazleetan nagusitu dira euskarazko hedabideak, hau da, informazioaren lanketan.

## Euskarazko kazetaritzaren berezko ereduaren ezaugarriak

Euskarazko kazetaritza bera aztertzeke, zabalkunderik handiena duten hiru hedabideez gainera, *Euskadi Irratia* EAEz

gaindiko tokiko euskarazko irratiekin ere alderatu dugu. Bi alderaketetatik zenbait ondorio eratorri da. Alde batetik, euskarazko hiru hedabideen konbergentziako albisteak hiru bikaintasun adierazletan nabarmentzen dira. Lehenengo eta behin, informazioak agertzen duen *adierazgarritasunak* gizaritari ekarriko dizkion ondorioak azpimarratzen ditu. Horrenbestez, Euskarazko Komunikazio-Esparruko albisteak esanguratsuagoak izaten dira, hau da, ez dira albiste arinak (istripuak, natur hondamendiak, elurteak zein beroaldiak). Bigarrenik, *albisteen titulua bikaina* izaten da, informazioa laburbiltzen duelako, eta ez horren alde bat bakarrik nabarmendu edo engainura eramanez. Hirugarrenik, *albisteez azaltzen duten ikuspegi-kopurua ohikoa baino altuagoa* izaten da.

Bestetik, *EAEz gaindiko tokiko euskarazko irratia Euskadi Irratiari* bi kalitate adierazletan, batik bat, nagusitu zaizkio: informazioaren jatorrian eta osotasunean. Alde batetik, tokiko irratiek (*Euskal Irratiak*, *Euskal Irratiek* eta *France Bleuko Euskarazko Emankizunak*) *Euskadi Irratiak* baino *informazioaren jatorri argiagoa* ematen dute. Are gehiago, haien aldea bikoitza izan zen. Horrenbestez, informazio beraren berri ematean, tokiko irratien albisteekin bat zetozen berrien erdian *Euskadi Irratiak* ez zuen azaldu zer bidetatik jasozuen informazio hori. Beraz, tokiko irratien informazioa bi aldiz gardenagoa izan zen. Bestetik, albisteen osotasunari dagokiola, tokiko irratia *Euskadi Irratiari* alde handiz nagusitu zaizkio *kazetaritzaren oinarrizko bospasei galderei* (*nork, zer, noiz, non, zergatik* edota *zelan*) *erantzuterakoan*. Are gehiago, *Euskal Irratiak* eta *Euskal Irratiek* EAEko irratia publikoak baino kazetaritza-galderen zazpi erantzunak (aurreko seiak eta *nondik*) agertzen zituzten albiste gehiago aire-ratu zituzten, berri bera ematean. Ondorioz, tokiko irratiek honakoa egiaztatu dute: zenbat eta tokikoago, orduan eta kazetaritza-jardura bikainagoa garatzen dute hedabideok.

Gainera, hedabideek informatiboki asebetu gura duten erdidegoarekin erakusten duten loturari erreparatu, euskarazko hedabideek euskal gizaritearekiko atxikimendu txikia

erakutsi dute. Izan ere, hedabideek zabaltzen duten informazioarekiko jarrera neutrala agertzen dute. Hedabideon trataera neutroa izan duten albisteak ia guztiak izan dira: %99,12, *Euskadi Irratian*; %95,85, *ETB1en*; eta %88,13, *Berrian*. Ildo horretatik, hedabide publikoek jarrera kritikorik txikiena azaldu dute. *Euskadi Irratiak* gaitzespen tonua indarkeriari buruzko berri gutxi batzuekin erabili duen bitartean, *ETB1ek* kirol albisteekin baino ez ditu aldeko eta aurkako jarrerak azaldu. *Bi hedabide publikoen jarrera kritiko hori Euskal Herritik kanpo sortutako albisteetan gauzatu da. Berriak*, ordea, jarrera kritikoagoa agertu du eta euskal kultura zein giza eskubideak defendatzeko (besteak beste, tortura gaitzesteko, emakumeen ikusgarritasuna aldarrikatzeko) erabili du. Euskarazko hedabide publikoak ez bezala, *Berria* bertako informazioan kritikoagoa azaldu da. Horrenbestez, *Berriak* berezko irakurketa plazaratzea badu. Gainera, euskarazko hedabide publikoak Euskal Heritik kanpoko edukiekin kritikoen azaltzen diren legez, albiste-agentziek hautatutako berriak izaten dira batik bat. Hortaz, *Euskadi Irratiak* eta *ETB1ek* beste hizkuntza erkidegoetako albisteen berezko ikuskera zabaltzen dute; ez, ordea, bertan sortutako berriena. Ondorioz, euskarazko hedabide publikoek asebeste gura duten gizarteak esku-hartzerik ez duen eremuetako albisteak interpretatzen dituzte, haien sorrera-helburuetan zehaztutako aginduak desnaturalizatuz.

## Ondorioak

Ikerketa abiatu zuten hipotesi eta iker-galderei erantzunez, euskarazko albisteen kalitateari buruzko lanak lau ondorio nagusi plazaratu ditu. Lehenengo eta behin, euskarazko hedabideek gizartean parte hartzeko gakoak eskaintzea dute eginkizun nagusi, baina horikeria prozesuak eta irizpideen gainbeherak kazetaritza lasterra (*fast journalism*) eragin dute, nazioarteko hedabideek azaldu duten joera bera, alegia.

Bigarrenez, euskarazko hedabideek zabalitzen duten erreallitateak euskalduntasuna egituratzen du. Hortaz, komunikazio-proiektuen sorrera helburuek horrela jasotzeaz gain, hedabideak martxan ipini ziren sasoian xede horretatik gertuen zegoen kazetaritza-jarduera ere gauzatu zuten. Kazetaritza lasterraren ondorioz, baina, euskaratik sortutako albisteen eremua gero eta txikiagoa da.

Hirugarrenez, Euskadi Irratia, ETB1 *eta* Euskaldunon Egunkaria / Berria *hedabideetako albisteen kalitatea, oro har, erdarazko hedabideetako berrien parekoa da*. Horrenbestez, ahulezia bertsuak agertzen dituzte. Hala ere, erdarazko hedabideen bikaintasunaren gainbehera nazioarteko kazetaritza-jarduerarekin bat datorrela ulertzen da. Euskarazko hedabideen kalitatearen gainbehera, ordea, hizkuntza jakin hori erabiltzeari leporatzen diote, berezko gabezia balitz bezala.

Azkenik, euskarazko hedabideen arteko aniztasunak berezko kazetaritza-eredua sortzea ekarri ote duen ebazterik ez dugu izan. Hala ere, Euskarazko Komunikazio-Esparrua badela egiaztatzen duten ezaugarriak agertu dituzte. Are gehiago, euskarak hedabideetan duen eginkizun komunikatiboa zenbat eta autozentratuagoa izan, orduan eta zabalagoa da Euskarazko Komunikazio-Esparrua bera. Izan ere, Komunikazio-Esparruak eginkizun bikoitza du: alde batetik, hedabideek euskaratik hemengo eta kanpoko erreallitatea azaltzea, eta, bestetik, erreallitate horretan euskaraz eragiteko eremua aurkeztea.

Horrenbestez, euskarazko hedabideek, nazioartekoen antzera, kazetaritza lasterreko zantzuak (*fast journalism*) agertu dituzte: alde batetik, horikeria joerak albisteen aniztasunaren murrizketa ekarri du, eta, bestetik, berri-hornitzaileekiko mendekotasunak kazetaritza-jarduera osoa baldintzatu du.

## Aurrera begirako erronkak

Hiru hedabideek Euskarazko Komunikazio-Esparrua sortzeko eremua zehazten badute ere, erdarazko kazetaritzak

abiatutako horikeriari heltzen dioten neurrian, kazetaritza lasterraren ezaugarriak ere barneratu dituzte. Dena den, albiste arinek ikus-entzule eta irakurle berriak erakartzeko balio dute, istripuek batez ere. Euskarazko hedabideek al-bait anitzen izan behar dutenez, haien hartzaile potentzialen kopurua erdarazkoena baino urriagoa delako, albiste arin horien trataera profesionalean dago gakoa.

Azken batean, berri-agentziek zabaldutako albiste arinen trataera informatibo nagiak Euskal Herrian bertan sortutako albisteak ordezkatu ditu. Azken horien lanketa prozesuari ere kazetaritza lasterreko ezaugarriak nahastuko balizkio, euskarazko kazetaritzaren gainbehera ekarriko luke. Horregatik, aurrera begirako estrategiak bi jomuga izan behar ditu: bertako albisteak ugaritzea eta Euskal Herritik kanpoko berrien lanketa prozesuan hedabideon autonomia handitzea.

## Tokiko albisten irakurketa nazionala

Euskarazko hiru hedabideen sorrera helburuek euskal errealitatearen berri ematea jasotzen dute. Aldiz, erdaretatik sortutako albiste-agentzien merkatu-logikak Euskarazko Komunikazio-Esparruaren edukiak kaltetu ditu, herritarren parte-hartze soziala bultzatzeko gakorik ez baitute eskaini. Izan ere, atzerriko agentziek asebate behar duten merkatua- ren ezaugarriak ez datoz euskarazko hedabideetako hartzaile- len informazio-premiekin bat. Hala ere, euskarazko heda- bideok Espainiako eta AEBetako edukiak sail guztietara he- datu dituzte. Horregatik, erdarazko hedabideekiko konber- gentzia areagotu dute. Alde batetik, *Egunkariaren* sorrerare- kin bat, euskarazko hedabideek Espainiako albisteetatik as- katzeko informazio-ereduak garatu bazituzten ere, hogei ur- te eta gero, hiru hedabideak berriro Espainiako edukien mende agertzen dira. Bestetik, AEBetako informazioaren mendekotasun berria garatu dute. Bi ezaugarriek globaliza- zioaren norabide bakarra egiaztatu dute: *AEBetatik zabal- dutako informazioari Espainiako kultur ereduak egiten dion*

*interpretazioa inportatzen dute euskarazko hedabideek.* Ondorioz, euskarazkoen baterakidetasuna ere desnaturalizatu egin dute. Esaterako, *ETB1* eta *Radio Euskadi* bat etorri diren kultur albisteak AEBetako telebista-saioen ingurukoak izan dira. Hiru hedabideak zenbait albisteren hautaketan bat etorri arren, horiek dagoeneko ez dira euskaratik abiatu, euskarazko hedabideetara hedatutako Espainiako eta AEBetako eduki berdintzaileak baitira. Aldiz, bertako albisteen irakurketa euskaldun zabala *gure errealitatearen araberrako informazio-eredua* asetzeko giltza izan daiteke. Ikerketak egiaztatu duen bezala, tokiko albisteek euskarazko hedabideetako informazio-ereduari ezaugarri bateratzailea aintzatesten diote, baina aldi berean hiru hedabideetako nortasuna garatzen ahalbidetzen dute.

*Euskarazko Komunikazio-Esparrua autozentratua ez den neurrian, horren tamaina gero eta txikiagoa da.* Euskarazko hedabideek albisteak euskaraz eman arren, horiek azaltzen duten errealitatean euskaraz eragiteko eremurik aurkezten ez badute, euskarazko komunikazioa norabide bakarrekoa da. Are gehiago, *herritarren parte-hartze soziala erdaraz gauzatzera bultzatzen duten albisteak* biderkatzean, hedabideek Euskarazko Komunikazio-Esparrua murrizten dute.

Euskarazko hedabideen arteko aniztasunak, gainera, *euskaratik sortutako pluraltasuna islatzeko* abagunea du. Hurbileko eremu horretan euskarazko hedabideak erdarazkoekiko dibergenteak direnez, haien nortasun propioari eutsi ahal izango liokeen arloa da bertakotasuna. Bide horrek euskal nortasun anitz sortzeko eta islatzeko ildoak seinalatuko luke. Horretarako, gertuko albisteen irakurketa euskaldun zabala garatu beharko lukete euskarazko hedabideek. Beste era batera esanda, *tokiko albisteen irakurketa nazionalak Euskal Herria informatiboki egituratuko luke.* Azken batean, egitura politikorik sortzea ez dago hedabideon esku. Haien eginkizuna garen errealitatea ulertzeko eta horretan eragiteko informazio-tresnak ematea da. Horretarako, euskal nortasun anitz islatzeko gaitasuna berenganatzea funtsezkoa da.

*Kultur nortasuna islatzen duten hiru sailetan tokiko albisteak ezinbestekoak dira, hala nola: Gizartea, Kultura eta Kirolak. Lehenengo eta behin, Gizarte sailak bertako jendarteari eragiten dioten gaiak aurkezten ditu. Herritarrek gizarte egituran parte har dezaten bultzatzeko atala da. Euskarazko hedabideek euskal errealitatearen berri ematea helburu izanik, euskal gizartean parte hartzen duten eragileak gure errealitatearen albiste-iturri naturalak dira, zeren eta haiek sortzen dituzten eztabaidak herritarrek euskal gizartean parte hartzeko esparruak dira. Bigarrenik, Kultura sailak bertako edukia alboratzean ez du kanpoko kultura-eredurik ekarri, bertako akulturazioa eragin baizik. Gainera, kultur albisteak hirietako ekitaldietara lotzeak euskal kulturaren etengabeko birsortzearen berri ez ematea dakar. Tokikotasunaren irakurketa nazionalari esker, hedabideetan azaltzen ez diren euskal lurraldeek ere agerpena izango lukete: Lapurdin, Baxenabarren zein Zuberoan euskal kultura sortu eta ulertzeko zenbait adiera garatzen delako. Are gehiago, Arabak euskal hedabideetan isla izango luke. Ildo beretik, bertako kulturaren hobespenak ez du kanpoko edukirik baztertzen, munduko kulturetara gerturatzeko bidea ere izan daitekeelako: gurean bertan dauden zenbait kultur erkidegoren berri emateko ere, adibidez. Hirugarrenik, estatuen muga administratiiboak aisialdiaren bitartez barneratzeko tresna eraginkor bihurtu dituzte kirol txapelketak. Bertakotasunak gertuko kirolariekiko begikotasuna areagotuko luke: euskarak herri egiten gaituen gizarteko kidesasuna, hain zuzen.*

Ondorioz, horikeriak baztertu dituen euskal edukiak bermatzeko aniztasuna neurri egokia litzateke. Tokiko albisteen irakurketa nazionalak gai guztiak, protagonista denak eta sorterri oro berma ditzake, hau da, eduki askotarikoak sor ditzake. Hedabideen jardunak haien informazio-helburuetatik urrundu dituenean, aniztasunaren oreka joera horien muga izan daiteke. Esaterako, protagonistarik agertzen ez duten albiste arinei edo politikariak azaltzen dituzten kultur eta kirol albisteei neurria hartuko lieke denen arteko ore-



kak. Protagonisten aniztasunak gizarte eragileen agerpenaren murrizketa geldituko luke, eta sorterriaren araberrako aniztasunak bertako informazioaren garrantzia bermatuko luke. Horregatik, gaien, protagonisten eta sorterrien oreka berez islatze-aniztasunerako gakoa da: zenbait ikus-entzuleren eta irakurleren agerpena bermatzen du eta beste hartzaile potentzialengana heltzeko bidea zabaltzen du. Bertako ikuspegiaren iragazkia albiste asimilatzaileen akulturazioa ez zabaltzeko giltza izan daiteke.

### Subiranotasun informatiboa

Bertako informazioaz gain, Euskal Herritik kanpo jazotakoaren berri ere eman behar dute euskarazko hedabideek, Politika eta Ekonomia sailetan batez ere. Horrenbestez, *albiste horiek euskaratzeko ez ezik, euskalduntzeko ere* eskatzen du Euskarazko Komunikazio-Esparru autozentratuak: bertako premiei egokitzen zaien informazioa, hain zuzen.

Euskarazko hedabideen jarduna albiste-agentzien informazio mugatuarekin berezko ez duten erdal eremuan arituz gero, euskalduntasunak kale egingo du, albiste homogeenok areagotuko dituztelako. Euskal ikuspegiak, baina, ez du inolaz ere nazioartekotasuna trabatzen. Horregatik, edozein gaitan bertako ikuskera txertatzeko gai den kazetaritza-jarduerak bere eginkizunetan asmatuko du. Horretarako, *informazio-prozesuan esku-hartzea ezinbestekoa da*. Alde batetik, euskarazko hedabideek albiste-agentzien eta komunikazio-kabinetean mendekotasunetik askatu behar dute haien kazetaritza jarduera. Horretarako, lehenengo eta behin, horiek zabaltzen duten informazioarekiko gardentasuna bermatu behar dute hedabideek. Albiste hori zein bidetatik heldu zaien eta zein albiste-iturrik emandakoa den zehaztean, hedabideon autonomia berbatzen ari dira. Horrela, ez dute ezkutuko informazioen bozgorailu-lanik egingo. Bigarrenik, bertako ikuspegiaren iragazkiak albiste horiek lantzerako eramango ditu hedabideok, kazetaritza lasterrerrako joera gaindituz,

bertako ikuspegiak gertuko informazio-iturriak bilatzeko eskatzen baitu. Horrenbestez, ikuspegi-kopuru altuagoa, askotarikoagoa eta eskusiboa lortuko dute euskarazko hedabideek. Aldi berean, albistea osatzeko informazio-elementu gehiago eta hobeak eskuratuko dituzte.

Bestetik, berri-agentzien mendekotasuna gainditzeaz aparte, *hedabideok berezko kazetaritza-ekimena ere berreskuratu beharko lukete*. Lehenengo eta behin, agentziek igorritako zenbait albiste baztertzeak subiranotasun informatiboa bermatuko luke, hedabideak informatiboki ase nahi duen gizartean eraginik ez dutelako edota informazioa taxuz landuta agertzen ez delako. Gainera, Espainiako EFE eta Frantziako France Press albiste-agentziak estatu horiek diruz babestuak dira. Beraz, albiste-iturri identifikaturik ez dakarten berriak euren horretan ematean, gobernu horien propaganda zabaltzen ari direla ohartu behar dute euskarazko hedabideek.

Kazetaritza-ekimena berreskuratzearen eta informazio-prozesuan esku-hartzearen ondorioz, hedabideok subiranotasun informatiboa bermatuko lukete. Erdaretatik sortzen diren albisteak euskaldunon errealitatera egokitzeke haien iragazki propioak garatuko lituzkete hedabideok. Horrela, *euskarazko hedabideen arteko aniztasunak hainbat nortasun euskaldun isla lezake*, hau da, gizarte euskaldunaren berezko pluraltasuna. Gainera, tokiko albisteen irakurketa nazionala eginez, euskaratik sortutako berriak euskararen eremura zabalduko lirarteke. Beraz, euskarazko hedabideak kazetaritza-jarduera bikaina garatzeko baliabideen jabe badira.¶

1. Tesia 2011ko ekainaren 17an defendatu zen eta Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratu berri du (Leioa, 2011). Jaurlaritzaren ikertzaileak trebatzeko diru-laguntza (2006-2010) eta EHUren ikertzaile doktoreak espezializatzeko diru-laguntza (2012) jaso ditu ikerketak.
2. «3. art.: Autonomia Erkidegoaren jabetzapeko gizarte-adierazpideen jardunak honako oinarri-irizpide hauek izango ditu:
  - a) Berriemanketen gauzak direneantxe ikustea, egiatasuna eta alderdi-keriarik eza.
  - b) Berriemanketa eta iritziaren arteko zehazketa eta bereizketa, azken honek adierazten dutenak nor diren hertsiki eskatuz. Merkataritza-berriemanketak erabilkera zehatz eta berezi bera eskatuko du hertsiki.
  - c) Berdintasun-sortarauarekiko, politika, erlijio, gizarte, kultura eta linguistika-aniztasunarekiko begirunea.
  - d) Orotariko interesaren alde, Autonomia-Estatutuan eta Konstituzioan onartutako elkarbizitzaren herri-balioen aldezipen eta sustapena.
  - e) Konstituzioak eta Autonomia-Estatutuak onartzen dituzten eskubi-deekiko begirunea.
  - f) Pertsona ohorearekiko, izen onarekiko begirunea eta, bereziki, urkotasun eta berariazko irudirako eskubidearekikoa.
  - g) Gazteriaren eta haurtzaroaren babesa.
  - h) Kulturaren eta euskararen sustapena, euskara erabiltzearen xedeetarako, oinarrizko egitarau-sortarauak ezarriz, orotariko eskaintza mailan Autonomia Erkidegoan euskaraz irrati-telebistazko emankizunen oreka beharra kontuan izanik» (Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea).
3. Prentsan argitaratutakoaren arabera (*Berria*, 2010-05-20: «Gazteak 123.000 entzule ditu eta *Euskadi Irratiak* 107.000, CIESen arabera»).
4. Egunkaria aurrera ([www.egunkaria.info](http://www.egunkaria.info)) eta Egunkaria auzia ([www.berria.info/egunkaria](http://www.berria.info/egunkaria)). Azken bisita: 2012-02-22.
5. *Berria*, 2008-07-16: «Ez dago apustu estrategikorik?».

## Bibliografia

- Agirre, Lorea (2004): *Gezurra ari du*, Andoain: Zenbait argitaletxe.
- Alkorta, Lierni; Zuberogoitia, Aitor (2009): *Masa-komunikaziotik informazioaren gizartera*, Bilbo: UEU.
- Arana, Edorta (1995): *Gizarte eta nazio errepresentazioa telebista-albistegietan: Euskal Herria 'Teleberri', 'Telenavarra' eta 'Telenorte' albistegietan*, Bilbo: UEU.
- Arana, Edorta (2004): *Programaziogintza irratitelebistan*, Bilbo: UEU.
- Arrieta, Mikel; Basterretxea, Jose Inazio; Gonzalez Gorosarri, Maria; Gutierrez Paz, Arantza; Ramirez de la Piscina, Txema; Torregarai, Idoia; Urkiza, Ana; Zuberogoitia, Aitor (2005): *Kazetaritza euskaraz. Oraina eta ge-roa*, Leioa: EHU.
- Aztiker (2008): «*Berriako irakurleen soslaia*» (Berria Taldeko Komunikazio Sailak egileari emana).
- Basterretxea, Jose Inazio; Zuberogoitia, Aitor (2005): «Euskarazko Komunikazio-Esparrua», in Mikel Arrieta et al. (2005): 29-42.
- Berria (2008-07-16): «Ez dago apustu estrategikorik?» (<http://paperekoa.berria.info/iritzia/2008-07-16/006/009/.htm>, azken bisita: 2012-02-22).
- Berria (2010-05-20): «Gazteak 123.000 entzule ditu eta Euskadi Irratiak 107.000, CIEsen arabera» ([http://paperekoa.berria.info/agenda/2010-05-20/037/004/gazteak\\_123000\\_entzule\\_ditu\\_eta\\_euskadi\\_irratiak\\_107000\\_ciesen\\_arabera.htm](http://paperekoa.berria.info/agenda/2010-05-20/037/004/gazteak_123000_entzule_ditu_eta_euskadi_irratiak_107000_ciesen_arabera.htm), azken bisita: 2012-02-22).
- CIES (2008): «*Euskadi Irratiako entzuleen soslaia*» (EiTBko Ikerketa eta Audientzia Sailak egileari emana).
- Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea ([www.euskadi.net/bopv2/datos/1982/06/8200684a.pdf](http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1982/06/8200684a.pdf), azken bisita: 2012-02-22).
- Garmendia, Elixabete (2005): «Euskal kazetari modernoaren pausajea: ukapenetik izatera», in Mikel Arrieta et al. (2005): 13-28.
- Gripsrud, Jostein (2000): «Tabloidization, Popular Journalism, and Democracy», in Colin Sparks et al. (arg.) (2000), 285-300.
- Gutierrez Paz, Arantza (2002): *Euskal irratigintzaren historia*, Bilbo: UEU.
- Köster, Jens; Wolling, Jens (2006): «Nachrichtenqualität im internationalen Vergleich: Operationalisierungen und empirische Ergebnisse», in Siegfried Weischenberg et al. (arg.) (2006), 75-94.
- Lasagni, Maria Cristina; Richeri, Giuseppe (2006): *Televisión y calidad. El debate internacional*, Buenos Aires: La Crujía.
- Martín Sabarís, Rosa M. (1999): *La organización informativa y los procesos de producción de la noticia: La información diaria en 'Euskal Telebista'*, Leioa: EHU, doktorego tesia.
- Maurer, Torsten; Trebbe, Joachim (2006): «Fernsehqualität aus der Perspektive des Rundfunkprogrammrechts», in Siegfried Weischenberg et al. (arg.) (2006), 37-52.
- McQuail, Denis (1992): *Media Performance: Mass Communication and the Public Interest*, Londres: Sage.

- Oronos, Michel; Etchezaharreta, Lucien; Arbelbide, Xipri (2008): *Le mouvement culturel basque (1951-2001). Presse écrite, radio, télévision*, Donostia: Elkar.
- Otermin, Jose Mari; Diez Unzueta, Jose Ramon (2006): *EiTB 1982-2007. Hegaldi-kronika*, Iurreta: EiTB.
- Ramirez de la Piscina, Txema; Agirreazaldegui, Teresa; Ibarra, Pedro; Zallo, Ramón (2010): *'Egunkaria'. Amets baten egia*, Donostia: Ttarttalo eta Berria.
- Rössler, Patrick (2006): «'Erst mal sehen, was die anderen machen.' Vielfalt als Qualitätsmerkmal vs. mediale Koorientierung im journalistischen Alltag», in Siegfried Weischenberg et al. (arg.) (2006), 223-244.
- Schirmer, Stefan (2001): *Die Titelseiten-Aufmacher der BILD-Zeitung im Wandel: Eine Inhaltsanalyse unter Berücksichtigung von Merkmalen journalistischer Qualität*, Munich: Reinhard Fischer.
- SEI [Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen] (2004): *Euskararen eremu geografikoko hedabideetako esparruan adierazleak lantzea eta datuak jasotzea adierazle-sistema antolatzeke eta elikatzeke*, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Sofres (2008): «*ETB1*eko ikusleen soslaia» (EiTBko Ikerketa eta Audientzia Sailak egileari emana).
- Sparks, Colin; Tulloch, John (arg.) (2000): *Tabloid Tales. Global Debates over Media Standards*, Oxford: Rowman & Littlefield Publishers.
- Tubia, Iker (2009): *Euskarazko hedabideak Iruñerrian* ([http://kotalaia.files.wordpress.com/2009/05/euskarazko\\_hedabideak\\_irunerrian\\_iker\\_tubia.pdf](http://kotalaia.files.wordpress.com/2009/05/euskarazko_hedabideak_irunerrian_iker_tubia.pdf), azken bisita: 2010-12-08).
- Urteaga, Eguzki (2005): *Les médias en Pays Basque. Histoire d'une mutation*, Paris: Mare & Martin.
- Weischenberg, Siegfried; Loosen, Wiebke; Beuthner, Michael (arg.) (2006): *Medien-Qualitäten: Öffentliche Kommunikation zwischen ökonomischem Kalkül und Sozialverantwortung*, Konstantza: UVK.
- Zalakain, Jexuxmari (1992): *Euskal prentsa herri proiektua da*, Leioa: EHU, doktorego tesia.
- Zalakain, Jexuxmari (1993): *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*, Tafalla: Txalaparta.
- Zalakain, Jexuxmari (2003): «Egunkaria itxi dute, baina proiektua bizirik dago», *Uztaro* 45, 29-69.
- Zupiria, Bingen (2005): «XXI. mendeko EiTB: jomuga berriak», in Mikel Arrieta eta al. (2005), 217-230.

#### Sareko balibideak

*Egunkaria* aurrera ([www.egunkaria.info](http://www.egunkaria.info)). Azken bisita: 2012-02-22.

*Egunkaria* auzia ([www.berria.info/egunkaria](http://www.berria.info/egunkaria)). Azken bisita: 2012-02-22.

# Frankismoa ikusezin. Biolentzia politikoaren inguruko «oroimen historiko» instituzionala

**DANIEL ESCRIBANO**  
**PAU CASANELLAS**

Soziologian lizentziaduna  
Historian doktorea eta Bartzelonako Unibertsitate  
Autonomoko CEFID Frankismo eta Demokrazia  
Garaiei buruzko Ikerketa Zentroko kidea

Hondar urteotan, euskal matxineriak eragindako biktimei erreparazioa egiteko politikaren babesean, erakunde publikoek eta alderdi politiko nagusiek frankismoaren azken aldia ezitzen duen kontaketa taxutu dute, erregimena eta haren izaera autokratiko eta zeharo bortitza leunduta. Biolentzia politikoaren (matxinoaren) biktimak politikoki erabiltzeaz gain, atzerapauso nabarmena ekarri dute politika eta diskurtso horiek, amnistiarako Espainiako Kongresuaren urriaren 15eko 46/1977 Legearekin alderatuta. Izan ere, diktadura frankista zilegitasunik gabekoa zela aitortu zuen lege horrek, zehar-bidez aitortu arren. Horixe dugu hizpide ondoko lerroetan: atzerapauso hori, eta frankismoari buruzko kontaketa inguruan nolako inplikazioak dituen euskal matxineriaren biktimei erreparazioa egiteko politikaren kariaz sortutako «oroimen historikoak».

## Frankismoari zilegitasuna kentzea amnistiarako legean

46/1977 Legeari zer eta frankismoaren zapalkuntza-aparatuak iraun izanaren erantzukizuna leporatu izan diote.<sup>1</sup> Hala ere, erregimen frankistaren gainegitura juridiko-politikoaren deuseztatze-prozesuaren mugarri dugu amnistiarako Legea, erregimena zilegitasunik gabekoa zela aitortzeari dagokionez, hain zuzen. Izan ere, 1. artikuluan helburu politikodun ekintzetarako amnistia ematea aurreikusten zuen legegileak, honako data-muga hauen barne: salbuespenik gabe 1976ko abenduaren 15ean (erreforma politikorako Lege-egitasmoa erreferendum bidezko bozkatzeko-data) baino lehen egindakoetarako (*a* idatz-zatian); 1976ko abenduaren 15etik 1977ko ekainaren 15era (1936ko otsailetik alderdien bidez Espainian egindako lehendabiziko hauteskundeen data) bitartean burutu etarako, «cuando en la intencionalidad política se aprecie además un móvil de restablecimiento de las libertades públicas o de reivindicación de autonomías de los pueblos de España» (*b* idatz-zatian); eta 1977ko urriaren 6ra arte (parlamentu-taldeek legearen testuaren gaineko hitzarmena burutu zuten data) egindakoetarako, «siempre que no hayan supuesto violencia grave contra la vida o la integridad de las personas» (*c* idatz-zatian).<sup>2</sup> Xedapen horiek onartuta, zera aitortu zuen Espainiako legegileak: (*a*) erregimen frankista ez zela zilegia izan, libertate publikoak urratu zituen, eta Espainiako Estatuaren menpeko estaturik gabeko nazioak zapaldu zituen neurrian, bederen, eta (*b*) erregimen horren aurkako borroka zilegia izan zela, baita borroka armatua ere, 1977ko ekainaren 15era arte amnistiatzeko moduko bilakatuta.

## Amnistia irabazi

Legearen 2. artikulua hitzez hitz irakurrita, legegileak borrokalariak eta zapaltzaileak parekatzen zituela ondoriozta li-

teke, amnistiak honako kasu hauei ere eraginik: «delitos y faltas que pudieran haber cometido las autoridades, funcionarios y agentes del orden público, con motivo u ocasión de la investigación y persecución de los actos incluidos en esta Ley» (*e* idatz-zatian), eta «delitos cometidos por los funcionarios y agentes del orden público contra el ejercicio de los derechos de las personas» (*f* idatz-zatian). Bi idatz-zati horiek Legearen testuinguru historikoari adi interpretatzen baditugu, ordea, ondokoa baino ez zirela ulertuko dugu: Espainiako esparruko oposizio gehiengodunak aspalditik bereganatua zuen eta UCD Zentro Demokratikoaren Batasuneko gobernuak aldatzeko asmorik ez zuen aitzinetiko errealitate politikoa legez onartzea. Izan ere, JDE Espainiako Junta Demokratikoak honako hau aldarrikatu zuen bere lehendabiziko adierazpenean: «amnistía absoluta de todas las responsabilidades por hechos de naturaleza política»,<sup>3</sup> amnistia hori oposizioaren jardueretara mugatzen zuen bereizlerik zehaztu gabe. *Hechos de naturaleza política* terminoaren bidez JDEk zer erran nahi zuen jabetze aldera, aski lagungarria da Juntaren bultzatzaile nagusiak Burgosko espetxean zituen presoek 1968ko abenduan igorritako agiria. PCE Espainiako Alderdi Komunistako kideek honakoa eskatu zuten aipatu agirian: «una amnistía total que liquide todas las responsabilidades de ambos bandos, tanto las de la guerra como las derivadas de las actividades igual de la oposición que de la represión».<sup>4</sup>

1977ko bozetatik sortutako gobernuak frankismoaren arduradunendako eta polizia-agenteendako zigorgabetasuna legez babestea zuen helburu nagusietakoa, eta horren arabera aritu zen legearen bideratze-prozesuan. Euskal preso politikoeikiko zuen jarrera, aldiz, zeharo bertzenazkoa zen. Izan ere, euskal preso politikoak askatzea<sup>5</sup> monarkiaren bigarren gobernuari eta demokrazia parlamentarioko lehendabizikoari amnistiaren aldeko mugimenduak emanarazitako lorpena izan zen, kostu errepresibo itzela izan zuena.<sup>6</sup>

Lehenik eta behin, amnistiarako uztailaren 30eko 10/1976 Errege Lege Dekretuak, helburu politikodun ekintzetarako



amnistia ematen zuenak (1.1 art.),<sup>7</sup> eta graziatzko neurrietarako martxoaren 14ko 19/1977 Errege Lege Dekretuak, ekin-tza horietarako indultua ematen zuenak (1. art.),<sup>8</sup> «pertsoneen bizitzaren nahiz segurtasunaren» aurkakoak baztertu egin zituzten.<sup>9</sup> Bigarrenik, 1977ko maiatzean amnistiaren alde egindako mobilizazio-kanpaina nolako bortizkeriaz zapaldu zuen kontuan hartuta,<sup>10</sup> nekez antzematen ahal diogu Gobernuari neurri horiek preso politiko guztiei zabaltzeko borondaterik. Euskal erakunde matxinoetako zortzi preso espetxetik ateratzea erabaki zuenean, hilaren 20an, erbeste-ratzearen formula erabili zuen Ministroen Kontseiluak,<sup>11</sup> eta hori ez dator bat amnistia-kontzeptuari dagokion zigor-raren osoko deuseztatzearekin. Amnistiaren aldeko mobiliza-zioei bat-bateko erantzunaren tankera handia zuen neurri horrek, baita hilaren 24a baino lehenago amnistia osoa eman ezean hauteskondeen aurka KASek iragarritako boikotaren oihartzuna gutxitzeko saioarena ere.

Handik bi bat astera, berriz erakutsi zuen monarkiaren gobernuak nolako borondatea zuen, zinez, preso politiko guztiak askatzeko eskaeraren inguruan. Ekainaren 7an za-baldutako albistearen arabera, Migel Angel Apalategi *Apala* euskal errefuxiatua estraditatzeko eskaera-prozedura haste-ko izapideak prestatzen ari zen Espainiako Gobernua.<sup>12</sup> Frantziako Barne Ministerioaren aginduz, Porquerolles uhar-tean konfinatua zegoen Apala. Hurrengo hilabeteetako Eus-kal Herriko dinamika politikoa tenkatu egin zuen eskaera horrek, eta, Apalak hasitako gose-greba mugagabearekin batera, amnistiaren aldeko mobilizazioak suspertu egin zi-tuen. Izan ere, Apala askatzea eta osoko amnistia onestea udako euskal mobilizazioen arrazoi nagusi bilakatu ziren. Uztailaren 10ean, hurrengo asteetan Euskal Herria zeharka-tuko zuen Askatasunaren Ibilaldia abiatu zen, eta, hilaren 21ean, Durangotik igarotzean egindako ekitaldian, maiatzean erbeste-ratutako hamar preso ohi agertu ziren. Ibilaldia ago-rrilaren 28an amaitu zen Arazurin, Guardia Zibilak inda-rriz sakabanatutako elkarretaratze jendetsuan. Egun horre-

tan bertan, Ibilaldia hotz hartu zuen Euskal Parlamentarien Batzarrak ezohiko bilera egin, eta laster manifestaziora deituko zuela iragarri zuen, «en apoyo a las gestiones orientadas por los parlamentarios vascos», amnistia osoa lortzeko, erbestera tuak itzultzeko, alderdi guztiak legeztatzeko, eta Euskal Herriarendako aurreautonomiadun erregimena erdiesteko.<sup>13</sup> Bitartean, Gobernuaren alderdiak, UCDe, ezentzunarena egin zien uztailen Espainiako Kongresuan Euskal Parlamentarien Batzarreko eta PCE-PSUCeko diputatuek amnistiari buruz aurkeztutako mozioei.<sup>14</sup> Parlamentarien Batzarraren manifestazio-iragarpenak iragarpen, amnistia eta Apala aske uzteko eskatzeko amnistiaren aldeko batzordeek deitu eta KASek eta Espainiako esparruko ezker erradikaleko alderdiek babestutako manifestazio erraldoiekin hasi zen iraila, Bilbon, hilaren 2an, eta Donostian eta Gasteizen, hilaren 3an. Manifestazio horietan berriz agertu ziren maiatzean erbesteratutako zenbait preso ohi, eta, hilaren 6an, Aix-en-Provenceko Auzitegiak behin-behineko askatasuna eman zion Apalari. Parlamentarien Batzarrak hilaren 8rako antolatu zuen manifestazioa, Donostian. Askatasunaren Ibilaldiari EAJk eta PSOEek egindako kritikak<sup>15</sup> go-goan, herri-mugimendua berreskuratzeko eta desmobilizatze alderdi nagusien azpijokotzat salatu zuen deialdia amnistiaren aldeko mugimenduko sektore batek, eta KASeko alderdiek ez zioten babesik agertu manifestazioari. Espainiako esparruko ezker erradikaleko alderdiek atxikimendua eman zioten, baina manifestazioaren leloko Parlamentarien Batzarrari aipamena arbuiatuz eta antolatzaileek aldarrikapenak murriztu egin zituztela salatuz. Testuinguru okertu horretan, istilu larriak izan ziren manifestazioan. Izan ere, amnistiaren alde Hondarribian egindako manifestazioan Jesus Maria Zabala sindikalista Guardia Zibilak hil eta lehendabiziko urteurrenaren kariaz egindako elizkizunetik atera berriak ziren hainbat lagunak buru egin zieten Parlamentarien Batzarrak antolatutako manifestazioaren zaindariei, baita parlamentariei beraiei eraso egin ere. Handik astebe-

ra, zera iragarri zuen Kongresuan Salvador Sánchez Terán UCDko diputatuak: «amnistia orokorrari eta behin betikoari» buruz katalan eta euskal gutiengoak bezperan aurkeztutako mozioaren «izpiritua» berea egiten zuela haren alderdiak.<sup>16</sup> Iragarpen hori egin eta hiru astera, amnistiarako legerako hitzarmena adostu zuten parlamentu-taldeek.

Irailaren 6an, amnistiarako legerik negoziatzeko engaiamendurik artean agertu ez zuela, honakoa aitortu zion Gobernuko presidenteak berak Erresuma Batuko Estatuko idazkariari: amnistiaren aldeko mobilizazioek «eragin» handia izan zutela Gobernuak ordura arte emandako espetxetik ateratze-neurrietan.<sup>17</sup> Hori berresten duen bertze datu bat ondokoa dugu: amnistiaren alde Euskal Herrian egindako mobilizazio indartsu eta jarraituaren ostean, euskal preso politiko oro askatu zuten, 46/1977 Legea aplikatuta. Mobilizazio-maila ttipiagoa izandako bertze herrialde batzuetako zenbait dozena preso politikori, aldiz, Legeak ez zien eragin.<sup>18</sup>

## Biolentzia politikoari buruzko «oroimen historiko» instituzionala

46/1977 Legean Francoren erregimena zilegitasunik gabekoa zela aitortu zuen Espainiako legegileak, zeharka egin arren. Hamarraldi batzuk geroago, ordea, talde matxinoek eragindako biolentziaren biktimei buruzko diskurtsoek eta politikek atzerapausoa ekarri dute, frankismoaren balorapen historikoari dagokionez. Hemen aztergai dugun garaitik kanpo bada ere, ezin dugu aipatu gabe utzi 1936ko gatazka armatuaren inguruan zer kontraera berregin nahi duen Eusko Jaurlaritza berriak. Errepublikaren zilegitasunak eta antifrankismoak Katalunian eta EAE Euskal Autonomia Erkidegoan dute onarpenik handiena, gizarte zibilak eta bertako erakundeek beraiek ere onetsita. Horrenbertzez, herrialde horietan ere dute deslegitimaziorik handiena altxamendu ultraeskuindarrak eta diktadura frankistak. Hori ere aldatu nahi bide du egungo Jaurlaritzak. Jaurlaritza eskura-

tzeko frankismoaren defendatzaile historikoekin PSE Euskadiko Alderdi Sozialistak izenpetu zuen hitzarmenak bultzatuta zein, oro har, iragana berridazteko beharrak eraginda, Hego Euskal Herriko erakundeek diseinuak historikoki izan duen legitimazio-eskasia ezkutatze aldera, 1936ko gerlaren gainean Espainiako alderdi eta hedabide nagusiek taxututako kontraerak dakarren muin erlatibistari heldu berri dio Idoia Mendia Justizia sailburu eta Jaurlearitzako bozeramaileak.<sup>19</sup> Izan ere, erakunde demokratikoen aurka armadako sektore batek eman eta Espainia barruko eta kanpoko faxistek, alfonsinoekin eta karlistekin batera, babestu zuten estatu-kolpeak eragindako gerla jorratu beharrean, erantzuleak zein izan ziren ezkutatu nahi digu sailburuak, esamolde topikoetara mugatuz (hala nola «catástrofe» edota «guerra atroz»), ondokoa ondoriozta dezagun: indar demokratikoak eskuin muturreko matxinoak bezain errudunak izan zirela. Amoralismo politiko horrek helburu zehatza du, sailburuak berak onartua: «construir una memoria compartida de la guerra en Euskadi [...] que reivindique por fin el sufrimiento y el dolor de todas las víctimas de aquella guerra». Demokrata oro ikaratzen duten zenbait izen ultrasenak omentzeko eskatu du Mendiak, demokraziaren aldeko borrokalariak eta eskuin muturreko matxinoak parekatuz. Horretarako Errepublikako eremuan gertatutako gehiegikeriaren batera jo du sailburuak, nor eta Paul Preston aipatuta. Dena den, ospe handiko historialarien erranak nahierara interpretatzea politikari profesionalek aski higitutako amarrua dugu. Sailburuaren zoritxarrerako, alta, demokratak eta monarkiko-faxistak parekatzea zurrizko Prestonen obran ez da heldulekurik. Izan ere, britainiar historialariak ondokoa ohartarazi du argi eta garbi:

In contrast, the repression in the Republican zone was hot-blooded and reactive. Initially, it was a spontaneous and defensive response to the military coup which was subsequently intensified by news brought by refugees of military atrocities and by rebel bombing raids. It is difficult to see how the violence in the Republican zone could have happened with-

out the military coup which effectively removed all of the restraints of civilized society.<sup>20</sup>

[Errepublikako eremuko errepresioa, aldiz, beroan egindakoa izan zen, eta erreazio-moduan. Hasieran, kolpe militarri bat-bateko ihardespina izan zen, modu defentsiboan eman zutena, gero, armadak egindako lazarrikariei buruz iheslariek ekarritako berriek eta matxinoek egindako aire-bonbardaketek areagotu egin zutena. Zaila da irudikatzea nola gerta zitekeen halako biolentzia Errepublikako eremuan, zibilizatu-tako gizartearen muga oro izatez deuseztatu zuen kolpe militarra eman ez balute.]

Frankismoaren hondar aldiari buruzko diskurtso ofizialei dagokienez, erregimenaren izaera itxuragabetu eta eztitu egin dute. Jaurlaritzako Justizia sailburuak berriz ere eman digu horren adibide argia. EAEn 1968. eta 1978. urteen artean izandako motibazio politikoko biolentzia-egoeran gertatutako giza-eskubideen urraketaren ondorioz izandako sufrimendu bidegabeen biktimei aitortpena eta erreparazio osoa egiteko Dekretuaren zirriborroa aurkezteko Madrilen eskainitako prentsaurrekoan, 2012ko martxoaren 1ean, honela deskribatu zuen Mendiak zer dinamika zuen biolentzia politikoak frankismoaren amaierako Euskal Herrian:<sup>21</sup>

Euskadin ez zeuden bi indarkeri [sic] ezberdin eta paraleloak, baizik eta bat bakarrik, ETAkoa [sic]; eta, bestetik, bada, bueno, bazeuden, baita ere, mota honetako biktimak, polizien biktimak, baina ez zen gauza sistematiko bat, baizik eta gauza isolatua eta noizbehinka ematen zena.<sup>21</sup>

Ez dago erran beharrik hori ez datorrela bat garaiko zapalkuntzari buruzko datuekin. Zifra batzuk ematearren, 1960ko hamarraldi hondarretik 1977ko ekainera bitartean, ia ehun lagun hil zituzten polizia-indarrek eta talde parapolizialek; 1963tik 1977ra bitartean, 9.000 lagun auzipetu zituen TOP Ordena Publikorako Auzitegiak —kopuru horretan ez daude sartuta jurisdikzio militar pean gerla-kontseiluen bidez epaitutakoak—; 1960tik 1975era bitartean, hamar heriotza-zigor exekutatu zituzten auzi politikoengatik; eta 1956tik 1975era bitartean bederatzi aldiz ezarri zuten salbuespen-egoera (ia bi urtean behin).

Horrez gain, zera ukatu dute maiz: monarkiaren bi gobernuak (1975eko abendutik 1977ko uztailean) diktatorialak eta bortitzak izan zirela. 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertakariei buruz Eusko Legebiltzarrak eraturako Batzorde Bereziak 2008ko ekainaren 12an izan zuen bilkuran izan genuen horren adibide garbia. Antonio Riverak, orduan PSEko legebiltzarkidea zenak eta egun Eusko Jaurlaritzako Kultur sailburuordea denak, zera erran zuen: grebalaria elizan egiten ari ziren batzarra desegitean polizia frankistak bortz langile hil zitueneko testuinguru politikoa ez zen «una situación de dictadura», baizik eta «un intermedio un tanto extravagante y extraño». Riveraren iritziz,

la mayoría de nosotros vivíamos en aquel momento como seres más o menos maduros y no seríamos capaces de decir que aquello era también jurídicamente la misma dictadura del Fuero de los Españoles o la Ley de Principios del Movimiento Nacional.<sup>22</sup>

Halako adierazpenaren aitzinean, honakoa da egin beharreko lehendabiziko konstatazioa: langileen greben aurka erregimen frankistak ezarri zuen zapalkuntzaren historia luzean, Polizia Armatuaren interbentzio hori izan zela ekintzarik latzena. Bigarrenik, 1976ko martxoan legez kanpo zegoen oposizioko erakunde oro, eta indarrean zirauen, bertzeak bertze, terrorismoa saihesteko agorrilaren 26ko 10/1975 Lege Dekretuaren zenbait xedapen. Izan ere, leku itxiak miatzeari buruz lege-dekretu horrek Gobernuari ematen zizkion salbuespenezko eskumenek babestutakoa zen San Frantzisko elizan Polizia Armatuak egindako interbentzioa.<sup>23</sup> Zazpi hilabete geroago, ETA(m)k Juan María Araluce Gipuzkoako Diputazio Probintzialeko presidentearen eta haren bizkartzainen aurka egindako atentatua zela eta, probintzian salbuespen-egoera berriz ezartzea baztertu zuen Rodolfo Martín Villa monarkiaren bigarren gobernuko Gobernazio ministroak, zer eta «las posibilidades que nos da la legislación antiterrorista» argudiatuta. Hau da, ministroaren iritziz, ez zen beharrezkoa salbuespen-egoera jartzea, zeren eta, 10/1975 Lege Dekretua-

ri helduta, «las detenciones pueden circular en un marco de mayores facilidades, e incluso la entrada en los domicilios, en estos supuestos concretos, también son posibles».<sup>24</sup>

Hirugarrenik, jarduera politikoak epaitzen zituen TOP 1976an aritu zen indar handienez, 9.778 laguni eragin zieten 5.312 auzi zabaldua.<sup>25</sup> Eta, azkenik, Riveraren ustezko argudioak premisa faltsua du abiapuntu, aipatzen dituen bi legeek indarrean zirautelako Gasteizko gertaeren unean; hainbertze non biltzeko eskubidea arautzen zuen maiatzaren 29ko 17/1976 Legearen 1. artikuluko lehendabiziko idatz-zatiak zer eta Espainolen Foruaren 16. artikulua hartzen baitzuen zuzenbide-oinarri.<sup>26</sup>

Erakunde matxinoek eragindako biktimei erreparazio egi-tea aitzakia moduan erabili izan dute botere publikoek frankismo garaiko hondar urteetako arduradun politikoak eta polizialak zurrizteko, diktaduraren zapalkuntza ikusezin uzteko, eta, hein batean, hari zilegitasuna emateko. Terrorismoaren biktimekiko elkartasunerako Espainiako Kongresuaren urriaren 8ko 32/1999 Legean,<sup>27</sup> talde matxinoek noiztik eta 1968tik egindako ekintzek kaltetutako pertsona orrendako erreparazio-neurriak aurreikusi zituzten (2.2 art.). Izan ere, frankismoaren eta demokrazia parlamentarioaren arteko *continuuma* ezarri zuen 32/1999 Legearen 2. artikulua duen historia-kontaerak, 46/1977 Legearen 1. artikulua dakartzan premisei, diktadurari zilegitasuna kentzen diotenei, muzin eginik. Jarraitutasun-lerro horretan oinarrituta, atentaturik jaso zuten zapalkuntza frankistaren agenteei onarpen morala eta ekonomikoa ematea agindu zuen legegileak (1. eta 4. art.). Frankismoaren hondar aldia legea aplikatzeko denbora-eremuan sartzeak zer erran nahi duen argi ez bazegoen bezala, 4. artikuluko 3. idatz-zatiak xedatutakoari jarraiki, ondokoa onetsi zuen Espainiako Ministroen Kontseiluak, 2001eko urtarrilaren 19an: hil osteko ohorezko domina ematea nori eta Melitón Manzanos Gestaporen kolaboratzaile eta Ikerketa Sozialerako Donostiako Brigadako buruari, 1968ko agorrilaren 2an aitzinetik prestatutako atenta-

tuan ETAk hil zuen lehendabiziko pertsonari.<sup>28</sup> Manzanasi ohorezko domina emateak eragindako protesten ostean, 4. artikulua *ad hoc* erreformatu zuen Espainiako Kongresuak.<sup>29</sup> Erreformatutako testuan, zera ebatzi zuen Espainiako legegileak: 4. artikuluan aurreikusitako ohorezko dominak

en ningún caso podrán ser concedidas a quienes, en su trayectoria personal o profesional, hayan mostrado comportamientos contrarios a los valores representados en la Constitución y en la presente ley y a los derechos humanos reconocidos en los tratados internacionales [azpimarra gurea da].

Hau da, frankismoa eta demokrazia parlamentarioa paretatzea leuntze aldera, zapalkuntza frankista gutxiesten duen berrinterpretaziora jo du legegileak, norbanakoen jardunbide soiltzat aurkeztuz. Edonola ere, ondokoa ohartarazi behar dugu: kalte-ordaina jasotzeko eskubideak bere horretan dirauela, baita aipatu «jardunbide pertsonala» izan zuten «biktimendako» ere.

Espainiako legegileak zapalkuntza frankistaren agenteekin izan duen eskuzabaltasuna ez dator bat Justizia Ministerioak borrokalari antifrankistekin hartutako jarrerarekin. Izan ere, abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 7. artikuluko bigarren idatz-zatian aurreikusitako kalte-ordaina ukatu egin zion Ministerioak 1975eko irailaren 27an fusilatu zuten José Luis Sánchez Bravo FRAP Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Abertzaleko kidearen Silvia Carretero alargunari. Ezezko hori oinarritzeko, zeri eta guardia zibilaren aurkako atentatu mortalarengatik prozesu sumarismoaren bidez epaimahai militarrek emandako zigor-epaira jo zuen Ministerioak.<sup>30</sup> 1975eko irailaren 27an ere fusilatu zituzten Jon Paredes *Txikiren* eta Angel Otaegiren senideek aurkeztutako eskaerak ere gibelera bota zituen Ministerioak.<sup>31</sup> Ez dago erran beharrik legeak hitzez hitz dioena urratu zutela nabarmen ezezko horiek.<sup>32</sup> Era berean, Carreteroren eskaera gibelera botatzeko erabilitako argudioa Legearen 3. artikuluko bigarren idatz-zatia ere urratu zuen, auzitegi berezi frankistek zio politikoengatik emandako epaiei zilegitasuna kendu ziena.<sup>33</sup>



Egungo matxineriari zilegitasuna kentzeko xedez iraganaren berrinterpretatze-prozesuan, terrorismoaren biktimak aintzateste eta osoko babes emateko Espainiako Kongresuaren irailaren 22ko 29/2011 Legea bertze mugarri bat du. <sup>34</sup> Frankismoa zilegitasunik gabeko erregimena izan zen aitormena, 46/1977 Legearen 1. artikuluan zehar-bidez adierazita, berriro jarri du auzitan Espainiako legegileak, Francoren erregimenaren aurka aritu ziren talde matxinoei zilegitasuna kenduta, 29/2011 Legea aplikatzeko denbora-eremua noiz eta 1960ko urtarrilaren 1era arte atzeratuz (7. art.). Ez da zaila atzematea data-muga berri horrek honako premisa honetan duela abiapuntu: ETAk hil zuen estreinako pertsona ez zela José Pardines Guardia Zibileko agentea izan, 1968ko ekainaren 7an Villabonako errepide-kontrolan tirokatua, baizik eta 22 hilabete zituen Begoña Urroz izeneko haurra, 1960ko ekainaren 27an Donostiako Amara geltokian gertatutako leherketaren ondorioz hil zena. <sup>35</sup> Legearen 60. artikuluan bertan jaso dute eztanda horren data «terrorismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko egun» gisa. Izan ere, propaganda-ikuspegitik hagitz ezberdina da talde matxinoaren lehendabiziko biktima 22 hilabeteko haurra izatea edo Francoren polizia-indarretako agentea. Eta bi figura horien artean dagoen tarte amildegi bilakatzen da, agente hori Gestaporen kolaboratzaile ohia eta torturatzaile ezaguna bada, hala nola Manzanás, aitzinetik prestatutako atentatuan ETAk hil zuen lehen pertsona.

Historiaren berrinterpretazio teleologikoak goiti-beheiti, Amarako bonba bezperan hasitako atentatu-sortaren baitan zegoen. Izan ere, hilaren 26an Bartzelona-Madril trenaren aurkako bonba lehertu zen Quintoko eta Pinar del Río (Zaragoza) geltokien artean, eta Amarako zartatu baino ordu batzuk lehenago Bartzelonako eta Donostiako Iparraldeko geltokietan lehergailu banak egin zuen eztanda. Hilaren 27an ere bertze bonba bat lehertu zen Madrilgo Iparraldeko geltokian, eta, handik bi egunera, bertze bat, Bilboko Atxuri geltokian. <sup>36</sup> Ez dago erran beharrik sinesgaitza dela

hilabete batzuk baino ez zituen eta apenas ezagutzen zen erakundeak halako gaitasun operatiboa izatea. Are sinesgaitzago Euskal Herritik kanpo egin eta bere gain hartu zuen estreinako ekintza 1973koa dela aintzat hartuta. Gobernazio Ministerioak berak ez zuen ETA aipatu ere egin atentatuei buruzko agiri ofizialean. Aitzitik, «elementos extranjeros, en cooperación con separatistas y comunistas españoles» jo zituen Ministerioak leherketen egiletzat.<sup>37</sup> Hilaren 30ean, *Le Monde* egunerokoak ondokoa eman zuen ezagutzera: lehergailuak DRIL Askatasunerako Iberiar Direktorio Iraultzailuek jarri zituela.<sup>38</sup> Francoren eta Salazarren diktaduren aurka aritzen zen erakunde espainiar-portugesa zen DRIL, eta urte bereko martxoaren 8an haren kide bat fusilatu zuten Espainian, otsailaren 18an Madrilgo udaletxean eta Falangeren egoitzatik gertu lehertutako eta Prado erakustokian indargabetutako bonbak jarri izanaren erantzuletzat zigortuta.<sup>39</sup> Handik bi urtera, biolentzia matxinoari buruzko artikulua editorialean, *Abc* Espainiako egunkariak ere jo zuen DRIL, bertzeak bertze, Amarako atentatuaren egiletzat.<sup>40</sup> Zenbait iturrik erakunde hori Espainiako poliziarekin elkarlanean aritzen ziren elementuek infiltratua zegoela ohar-tarazi badu ere,<sup>41</sup> José Fernandes Vázquez DRILeko ekintzaile nagusietakoak berretsi egin zuen, zenbait urte geroago, atentatua erakunde horrek egindakoa izan zela:

En el verano de 1960, menos de un año después de la «Operación Madrid» [otsailean jarritako bonbak], el DRIL lleva a cabo varias acciones de sabotaje de mayores alcances: se incendian varias estaciones del ferrocarril en distintas capitales de provincias, así como el tren expreso Madrid-Barcelona. Pero la de mayor resonancia fue la operación de incendio de la estación de Bilbao [*sic*] a causa de la muerte de una niña de dos años, que correteaba lejos de su madre, cuando la bomba incendiaria hizo explosión. De todos los sabotajes fue la única víctima inocente. El DRIL no tuvo ninguna baja: ni muerto ni detenido.<sup>42</sup>

Amarako lehergailua ETAk jarritakoa zen tesiak Ernest Lluchek idatzitako hiru artikulutan du abiapuntu.<sup>43</sup> Artiku-

lu horietan agertutako tesiak, alta, Jose Antonio Pagola Donostiako bikario nagusi ohiaren *Una ética para la paz* liburuko honako pasarte hau zuen oinarri bakarra:

[1968ko] 7 de junio, ETA mata por primera vez.<sup>3</sup> En un control de carretera cercano a Tolosa, Txabi Etxebarrieta da muerte al guardia civil José Pardines, para no ser detenido. [...]

<sup>3</sup> En realidad parece ser que la primera víctima de una acción terrorista de ETA fue la niña de 22 meses Begoña Urroz Ibarrola, muerta el día 27 [sic] de junio de 1960, al hacer explosión un artefacto colocado en la estación de Amara (San Sebastián).<sup>44</sup>

Hala ere, Pagolak berak zehaztu du atentatu horren egilea ETA izatea Lasarte-Orian (Gipuzkoa) entzundako zurrumurru hutsa dela, dokumentazio-oinarririk ez duena, eta hipotesi soil gisa jaso zuela liburuko oin-oharrean. Hori dela eta, aierua nahierara interpretatzea leporatu dio Lluchi Pagolak, eta ohartarazi du liburuko tesi nagusia eta gaur egun defendatzen duen tesi bakarra honako hau dela: ETAk 1968an hil zuela lehendabizikoz. Pagolaren iritziz, gertaera horri buruz Lluchek idatzitako testuak ez dira historialariarenak, baizik eta artikulugilearenak.<sup>45</sup> Amarako lehergailuak zauritu zuen Baleren Bakaikoak ere ez du uste atentatua ETAk prestatutakoa izan zenik. Bakaikoaren erranetan, haren familia «nahiko politizatua izan da, baina inoiz ez zuten aipatu ETA izan zitekeela». Zenbait urteren buruan, erakundean sartu zen Bakaikoa, baina sekula ez zuen atentatu horri buruzko aipamenik aditu.<sup>46</sup> Terrorismoaren Biktimak Omentzeko Eguna ekainaren 27an ezarri baino pixka bat lehenago, *El País* egunkariaren *Domingo* gehigarriak babes nabarmena eman zion errebisionismo historikodun operazio horri,<sup>47</sup> Euskal Herri-*tik* kanpo *Diagonal* hamabortzekariak salatu duena.<sup>48</sup>

## Gibel-solasa

Aliatuek Bigarren Munduko Gerla irabazi ostean, faxismoaz askatu ziren mendebaldeko Europako herrialdeetako oroimen-politika publikoek antifaxismoa hartu zuten oina-

rri, oro har. Estatuak erresistentzia antifaxistako kideak omen-  
gai egin zituzten, eta haien mugarriak oroimen-leku, antifa-  
xismoaren oroimena oroimen publiko bihurtuz. Biziki erran-  
guratsua da Italian apirilaren 25a, herrialdea naziengandik  
askatu zen eguna, besta nazionala izatea. Espainian, aldiz,  
1977ko ekainaren 15eko hauteskunderen ondorioz sortu eta  
1978ko Konstituzioan finkatu ziren erakundeek ez dute  
Errepublikaren eta antifrankismoaren ondarea bereganatu.  
1936ko otsaileko hauteskundeetatik sufragio unibertsalaren  
bidez aukeratutako lehendabiziko Gorteen onetsi zuten es-  
treinako legean, amnistiari buruzkoan, zera aitortu zuten:  
frankismoaren aurkako borroka-molde oro zilegia izan zela,  
amnistiatzeko moduko bilakatuta. Alabaina, horrek ez du is-  
larik izan orduz geroztik egindako oroimen-politikagintzan  
(nahiko susmagarria da aipatu lege horrek berak, frankismo-  
tik birziklatutako elite politikoak gogoz kontra onartuta,  
zioen azalpenik ere ez izatea). Aitzitik, Euskal Herriko sekto-  
re politikoren batek borroka armatuari eutsi izana estakuru  
moduan erabili izan dute frankismoaren izaera errepresiboa  
leuntzea helburu duten diskurtsoa eta politikak taxutzeko.  
Eginkizun horretan, historia itxuragabetzea, zapalkuntza  
frankistaren adierazle nabarmenak aintzatestea eta borroka-  
lari antifrankistak gutxiestea batera etorri dira.¶

1. Ikus Jaime Pastor, «La Ley de Amnistía, un fruto especialmente amargo y duradero del 'consenso' de la transición», *Viento Sur* 110, 2010eko maiatza, 103-106.
2. «Ley 46/1977, de 15 de octubre, de amnistía», *BOE Boletín Oficial del Estado* 248, 1977-10-17, 22.765-22.766.
3. «Declaración de la Junta Democrática de España al pueblo español», 1974-07-29, Arxiu Biblioteca del Pavelló de la República de la Universitat de Barcelona, Fons Fulls Volants, 1974/1.
4. «A la opinión pública nacional e internacional de los presos políticos de la Prisión Central de Burgos», 1968ko abendua, AHPCE Archivo Histórico del Partido Comunista de España, Represión Franquista, jacket 1036.
5. Euskal Herriko manifestazioetan eskatutako amnistia 46/1977 Legean gauzatu zenentz ez dugu aztergai. Hala ere, zeinahi ikerketa zorrotzek ezetz ondorioztatu behar du. Izan ere, sakoneko aldaketa politiko prozesuaren baitan kokatutako neurri politiko moduan ulertzen zuen amnistia amnistiaren aldeko euskal mugimenduak. Horren arabera, ondokoarekin batera etortzekoa zen amnistia: alderdi guztiak legeztatzearekin, frankismoaren polizia-indarrak (Polizia Armatua, Guardia Zibila eta Poliziaren Kidego Nagusia) desegitearekin eta zapalkuntzarenegatik zigor-erantzukizunak eskatzearekin (frankismoaren hondar urteetako errepresioaren tamaina Euskal Herrian izan zen handien). Amnistiaren alde Euskal Herrian egindako manifestazio orotan plazaratutako *presoak kalera, txakurrak barrura* leloak ongi laburtzen zituen aldarrikapen horiek. Legea onartu zutenerako, lehendabiziko neurria ere hartzeke zuen Gobernuak, KAS Koordinadora Abertzale Sozialistako alderdiek elkarte politikoen erregistroan izena emateko aurkeztutako eskaera gibelerara bota zuelako Barne Ministerioak bi bat aste lehenago, alderdi horien helburuak Espainiaren «batasunaren aurkakoak» zirela argudiatuta (ikus *El Diario Vasco*, 1977-09-29, 1. eta 7. or.). Legearen berariazko edukiari dagokionez, Estatuko bertze lurralde batzuetako zenbait preso politiko ez askatzeak, sexu-askatasunaren eta ugaltze-eskubideen aurkako zigor-tipoei eusteak nahiz zio politikoenegatik eta sindikalengatik kaleratutako langileei berritze-eskubidea ez onartzeak Euskal Herrian amnistiaren alde egindako mobilizazioetan zabal plazaratutako aldarrikapenei muzin egitea zekarren. Hori hain zen nabarmena, ezen Francisco Letamendia *Ortzi* EE Euskadiko Ezkerreko diputatuak arrazoi horiek ia guztiak argudiatu baitzituen abstentziora jotzeko, Legeari buruzko parlamentuko eztabaidan. Ikus Ortzi, *Denuncia en el Parlamento*, Txertoa, Donostia, 1978, 24. or.
6. 1975eko agorriletik 1977ko maiatzera bitartean, gutxienez 25 lagun (horietako 17 Euskal Herrian) hil ziren amnistiaren aldeko manifestazioen eta amnistia lan-aldarrikapenekin bat zetozen greben aurka polizia-indarrek eta talde parapolizialek egindako ekintzen ondorioz. Zifra hori konnotazio politikodun gertaeretan segurtasun-indarrek eta talde parapolizialek eragindako hildakoen zati bat baino ez da. Kopuru horretatik kanpo dira, erraterako, kontrainsurgentzia-ekintzetan segurtasun-indarrek eragindako hildakoak (hala nola errepede-kontroletan zein talde matxinoetako kidee-

- kiko liskarretan), edota talde parapolizialen atentatuetan eta polizia-agenteen eraso arrazistetan hildakoak.
7. «Real Decreto ley 10/1976, de 30 de julio, sobre amnistía», *BOE* 186, 1976-08-04, 15.097-15.098. Izena eta terminologia goiti-beheiti, erakunde politiko eta sindikal antifrankista oro legez kanpo zegoen Dekretua onartu zutenean. Hori zela eta, 10/1976 Errege Lege Dekretuari helduta zenbait preso ateratzeak ez zekarren preso politikoaren jarduna delituzkoa ez den aitortza, amnistia-kontzeptuari dagokiona. Adolfo Suárez monarkiaren bigarren gobernuko presidentek berak zera aitortu omen zion bere ministro bati: «de verdad lo que hacemos es conceder un indulto al que le vamos a llamar amnistía». Ikus Alfonso Osorio, *De orilla a orilla*, Plaza & Janés, Bartzelona, 2000, 170. or.
  8. «Real Decreto ley 19/1977, de 14 de marzo, sobre medidas de gracia», *BOE* 65, 1977-03-17, 6.201-6.202.
  9. 10/1976 Lege Dekretuan, ekintzak zer ondorio eragin zuen ez ezik, Gobernuak ondokoa ere hartu zuen aintzat: zer ondorio ekar zitzakeen, eta nolako asmoa zuen. 19/1977 Lege Dekretuan, aldiz, ondorio errealei baino ez zien begiratu, soilik pertsoneri kalte fisikorik eragin zieten ekintzak baztertuz.
  10. Maiatzaren 9tik 15era bitartean, errebindikazio-ekintza kanpaina antolatu zuten Gipuzkoako amnistiaren aldeko batzordeek, hilaren 12rako greba orokorrerako deialdia zuena. Grebaren egunetik hilaren 16ra bitartean, bortz lagun hil zituzten polizia-indarrek elkarretaratzeak desegitean.
  11. Ikus *BOE* 179, 1977-07-29, 16.845. Ekainaren 2an, beste bederatzi preso politiko erbesteratu zituen Ministroen Kontseiluak. Ikus *BOE* 182, 1977-08-01, 17.122-17.123.
  12. *La Vanguardia Española*, 1977-06-07, 4. or.
  13. Ikus *Deia*, 1977-08-30, 6. or., *Deia*, 1977-09-02, 5. or.
  14. Ikus Francisco Letamendia, *El no vasco a la reforma. La consolidación de la reforma*, Txertoa, Donostia, 1979, 1. liburukia, 19. or.
  15. Ekainaren 30ean sinatutako agirian, zera adierazi zuen Askatasunaren Ibilaldiaren inguruan EAJren EBB Euzkadi Buru Batzarrak: «no considero necesario ni oportuno en este momento el acudir a una movilización popular en apoyo de las reivindicaciones expresadas, por entender que hasta la formación del nuevo Gobierno y la constitución del Parlamento no existe aún el interlocutor con quién discutir o a quién presionar». Biharamunean, PSOEek ere Ibilaldiaren gaineko agiria eman zuen ezagutzera, non iragartzen baitzuen ez zuela ekimena babestuko, honakoa argudiatuta: «no ha participado en su preparación ni se le ha invitado a participar en ella». Ikus bi agiri horiek in *Oficina Prensa Euzkadi*, 1977-07-05, 1. or.
  16. *Diario de Sesiones del Congreso de los Diputados* 8, 1977-09-14, 202.
  17. Ikus Erresuma Batuko Foreign Officeko agiriari aipamena in Oscar J. Martín, «Separatismo, 'subversión' y violencia colectiva en el País Vasco (1968-1976). Nuevas perspectivas del cambio político desde las fuentes del Foreign Office», in Manuel Ortiz (koord.), *Culturas políticas del nacionalismo español. Del franquismo a la transición*, Los Libros de la Catarata, Madril, 2009, 127. or. Izan ere, Andrés Casinello militarrek adierazi beza-

- la, «el cénit de las movilizaciones populares se produce precisamente en estas fechas, las de los meses de Agosto y Septiembre de 1977». Francisco Letamendia *Ortzik aipatua in id., Historia del nacionalismo vasco y de ETA. ETA en la transición (1976-1982)*, R & B, Donostia, 1994, 57. or.
18. 1977ko abenduaren amaieran, Espainiako espetxeetan 49 preso politiko zeudela salatu zuen abokatu-talde batek. Preso horiek honako erakunde politiko hauekin zuten lotura: PCE(r) Espainiako Alderdi Komunista (berrantolatua)rekin nahiz GRAPO Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistekin, 36; MPAIAC Kanariar Uharteendako Autodeterminazioaren eta Independentziaren aldeko Mugimendurekin, bederatzi; PCE(i) Espainiako Alderdi Komunista (internazionalista)rekin, hiru; eta ETAm Euskadi Ta Askatasuneko ildo militarrekin, bat. Ikus *El País*, 1977-12-28, 15. or. Alta, espetxean zegoen etakidea, David Alvarez Peña, Lemoizko zentral nuklearraren aurka abenduaren 18an —hau da, legean aurreikusitako data-mugetatik kanpo— egindako ekintza burutzean zauritu eta atxilotu zuen Guardia Zibilak. Beraz, abenduaren 9tik, Francisco Aldanondo 46/1977 Legean xedatutakoari men eginez askatutako azken presoa karrikaratu zuten egunetik, abenduaren 19ra bitartean ez zen euskal preso politikorik izan.
  19. Idoia Mendiá, «Memoria compartida», *El Diario Vasco*, 2011-07-16, 24. or.
  20. Paul Preston, *Spanish Holocaust. Inquisition and Extermination in Twentieth-Century Spain*, W. W. Norton & Company, New York / Londres, 2012, XIII. or.
  21. Entzun prentsaurrekoaren audioa in [www.irekia.euskadi.net/es/news/9354-mendia-decreto-busca-juzgar-nadie-sino-reparar-las-victimas?t=1](http://www.irekia.euskadi.net/es/news/9354-mendia-decreto-busca-juzgar-nadie-sino-reparar-las-victimas?t=1).
  22. 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertakariei buruzko Batzorde Berezia / Comisión Especial sobre los hechos ocurridos en Vitoria-Gasteiz el 3 de marzo de 1976, «Debate y aprobación, en su caso, del dictamen elaborado por la comisión en relación con los hechos ocurridos en Vitoria-Gasteiz el 3 de marzo de 1976», *Batzordearen Bilkuren Aldizkaria / Diario de Comisiones*, 2008-06-12, 10. or. ([www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/publi/3/08/15/20080612.pdf#2](http://www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/publi/3/08/15/20080612.pdf#2)).
  23. Ikus Director General de Seguridad, «Directrices para los casos de encierros en iglesias o centros de carácter público», 1976ko urtarrila, AHPA Archivo Histórico Provincial de Alava / Arabako Artxibo Historiko Prohibitziala, Gobierno Civil / Subdelegación del Gobierno: 1.099. k., 3. karp.
  24. Ikus Martín Villak TVE Espainiako Telebistari eskainitako elkarrizketaren transkripzioa in *Abc*, 1976-10-05, 95. or.
  25. Ikus Juan José del Aguila, *El TOP. La represión de la libertad (1963-1977)*, Planeta, Bartzelona, 2001, 260. or. Ipar Euskal Herriko astekari abertzaleak salatu bezala, «d'après les statistiques officielles, pour les 3 premiers mois de 1976, le nombre de condamnés par le TOP (Tribunal d'exception, Orden Público) de Madrid a été supérieur à celui des condamnés de 1975, pour la même période» (*Enbata* 399, 1976-04-15).
  26. «Ley 17/1976, de 29 de mayo, reguladora del derecho de reunión», *BOE* 130, 1976-05-31, 10.437-10.440.

27. «Ley 32/1999, de 8 de octubre, de solidaridad con las víctimas del terrorismo», *BOE* 242, 1999-10-09, 36.050-36.052.
28. «Real Decreto 55/2001, de 19 de enero, por el que se concede la Gran Cruz de la Real Orden de reconocimiento civil a las víctimas del terrorismo a las personas que se citan», *BOE* 18, 2001-01-20, 2.546. 2010eko urriaren 26an, agintari frankista nabarmenak zuritzeko estrategia berean, zera proposatu zuen PP Alderdi Popularrak Bizkaiko Batzar Nagusietako osoko bilkuran: foru-jauregian Javier de Ybarraren eta Augusto Unceta-aren omenez ohorezko plaka jartzea. Ybarra Bilboko alkate, Bizkaiko Diputazio Probintzialeko presidente, eta Erresumako Gorteetako prokuradorea izan zen frankismo garaian. 1977ko maiatzaren 20an, ETA(pm)ko Talde Bereziek bahitu eta, ekainean, hil egin zuten. Unceta 1977ko urriaren 8an hil zuen ETA(m)k, Bizkaiko Diputazio Probintzialeko presidentea zela. Bertzeak bertze, ikurrina erabiltzea despenalizatzearen aurka egin zuen Uncetak. PSEk proposamenaren alde egin bazuen ere, gainontzeko biltzarkideek kontrako botoa emateak gibelera bota zuen. Jon Andoni Atutxa Euzko Abertzaleetako (EAJ) biltzarkideak iradoki bezala, PSEk halako proposamenaren alde egin izanak zera erakutsi zuen: 32/1999 Legea erreformatzeko PSOEek egindako presioak Manzanasi Gurutze Handia eman izanak sortutako eskandaluaren kariatz bere burua zuritzeko saioaren tankera handiagoa izan zuela agintari frankistei botere publikoek omenaldirik egitea saihesteko zinezko borondatearen adierazlearena baino. Ikus *Diario de Sesiones de la Junta General*, 38. or. ([www.jjgbizkaia.net/registro/pleno/documentos/diariosesiones/diariosesionespleno20101026.pdf](http://www.jjgbizkaia.net/registro/pleno/documentos/diariosesiones/diariosesionespleno20101026.pdf)). Horrez gain, halako pertsonaiak goraitzeko proposamenak ez datoz bat Gerla Zibilean eta diktadura garaian jazarpena nahiz biolentzia jasan zutenei eskubideak onartzeko eta zabaltzeko, eta haien aldeko neurriak ezartzeko Espainiako Kongresuaren abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 15. artikuluko lehendabiziko idatz-zatian xedatutakoarekin. Izan ere, idatz-zati horretan legegileak honakoak kentzeko agindu die administrazio publikoei: «escudos, insignias, placas y otros objetos o menciones conmemorativas de exaltación, personal o colectiva, de la sublevación militar, de la Guerra Civil y de la represión de la Dictadura» («Ley 52/2007, de 26 de diciembre, por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura», *BOE* 310, 2007-12-27, 53.410.-53.416).
29. «Ley 2/2003, de 12 de marzo, de modificación de la Ley 32/1999, de 8 de octubre, de solidaridad con las víctimas del terrorismo», *BOE* 62, 2003-03-13, 9.763.-9.764.
30. Ikus *El País*, 2009-06-29, 18. or.
31. Horrez gain, kalte-ordain eskaeren gainean ebazteko Ministerioak eratu zuen batzordeak 2009ko azaroan amaitzen zen epe itxia ezarri zuen agiriak aurkezteko, eta kaltetutakoen senideei ez zien jakinarazi legeak eskubide hori onartzen ziela. Hori zela eta, Euskal Herriko 86 kaltetutakoetatik 12ren familiek baino ezin izan zuten eskaera aurkeztu, Ahaztuak



- 1937-1977 elkarteak salatu duenez. 2010eko apirilean, bederatzi eskaera zituen gibelera botata batzordeak, eta bat baino ez zuen onartua. Ikus *Berria*, 2010-04-30, 15. or.
32. «Una indemnización de 9.616,18 € se reconocerá al cónyuge superviviente de quien, habiendo sufrido privación de libertad por tiempo inferior a tres años como consecuencia de los supuestos contemplados en la Ley 46/1977, de 15 de octubre, hubiese sido condenado por ellos a pena de muerte efectivamente ejecutada» (7.2 art.). EAEn 1968. eta 1978. urteen artean izandako motibazio politikoko biolentzia-egoeran gertatutako giza-eskubideen urraketaren ondorioz izandako sufrimendu bidegabeen biktimei aitortpena eta erreparazio osoa egiteko Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren zirriborroa Espainiako Kongresuko 52/2007 Legea baino murriztaileagoa da. Izan ere, zirriborroaren 5. artikuluko hirugarren idatz-zatian zera ebatzi du Jaurlaritzak: «En ningún caso se considerarán sufrimientos injustos aquellos sufridos en el desarrollo de cualquier actividad violenta de motivación política por quienes la realizaran o pretendieran realizarla, aunque el fallecimiento o las lesiones se produjeran por los actos legítimos de la autoridad para evitar y repeler directamente esa acción violenta» («Decreto de declaración y reparación integral de las víctimas de sufrimientos injustos como consecuencia de la vulneración de sus derechos humanos producida en la Comunidad Autónoma Vasca entre los años de 1968 y 1978 en el contexto de la violencia de motivación política (Borrador)», [www.irekia.euskadi.net/assets/a\\_documents/1934/BORRADOR\\_Decreto\\_VAP.pdf?1330600746](http://www.irekia.euskadi.net/assets/a_documents/1934/BORRADOR_Decreto_VAP.pdf?1330600746)). 52/2007 Legearen 10. artikuluko lehendabiziko idatz-zatian, aldiz, legegileak ondokoa onartu zuen: «el derecho a una indemnización, por una cuantía de 135.000 €, a los beneficiarios de quienes fallecieron durante el período comprendido entre el 1 de enero de 1968 y el 6 de octubre de 1977», hildakoen jardueren helburua «defensa y reivindicación de las libertades y derechos democráticos» izatea baldintza bakarra hartuta.
33. «Por ser contrarios a Derecho y vulnerar las más elementales exigencias del derecho a un juicio justo, se declara en todo caso la ilegitimidad del Tribunal de Represión de la Masonería y el Comunismo, el Tribunal de Orden Público, así como los Tribunales de Responsabilidades Políticas y consejos de guerra constituidos por motivos políticos, ideológicos o de creencia religiosa». 52/2007 Legearen aipatu xedapenak eta 32/1999 Legeak dakartzan premisek nolako talka egiten duten ez dugu aztergai.
34. «Ley 29/2011, de 22 de septiembre, de reconocimiento y protección integral a las víctimas del terrorismo», *BOE* 229, 2011-09-23, 100.566-100.592.
35. Argi eta garbi eman zuten aditzera 2004ko martxoaren 11ko atentatuen biktimei 2010eko omenaldi-ekitaldian, José Bono Kongresuko orduko presidentek irakurritako adierazpen instituzionalean: «El 27 de junio de 1960, hace 50 años, ETA asesinó por primera vez» («Declaración institucional del presidente del Congreso», 2010-03-11 ([www.congreso.es/backoffice\\_doc/presidencia/discursos/133\\_1273748219238.pdf](http://www.congreso.es/backoffice_doc/presidencia/discursos/133_1273748219238.pdf))). Ekitaldi horretan bertan aldarrikatu zuen Kongresuak ekainaren 27a Terrorismoaren Biktimak Omentzeko Eguna.

36. Ikus Ainhoa Oiartzabal, «Egia: lehen biktima», *Berria. Igandea*, 2011-02-20, 4. or.
37. *La Vanguardia Española*, 1960-06-28, 5. or.
38. *Le Monde*, 1960-06-30, 5. or.
39. Ikus Ainhoa Oiartzabal, «Lehen atentatua eta lehen susmoak», *Berria. Igandea*, 2011-02-20, 6. or.
40. «Gratitud a los petardistas», *Abc*, 1962-12-04, 33. or.
41. Ikus Iñaki Egaña, «Begoña Urroz, la Policía española estaba infiltrada en los comandos que pusieron las bombas», *Gara*, 2010-12-18, 4-5. or.
42. Jorge Sotomayor [José Fernandes Vázquez goitizena], *Yo robé el Santa María*, Akal, Madril, 1978, 86. or. Santa María itsasontziaren bahiketaz Fernandezek idatzitako kontaketa zehatza jaso duen liburuan, agertu berri denean, Urroz hil zuen lehergailua non zen zuzendu egin du Xurxo Martínez Crespo historialariak. Izan ere, Urroz hil zuen bomba Bilboko geltokian eta hilaren 29an kokatu zuen Fernandezek. Lehergailu horrek, ordea, Donostiako Amara geltokian eta hilaren 27an egin zuen eztanda. Xurxo Martínez Crespo, «Biografía de José Fernandes ‘Comandante Soutomaior’», in José Fernandes, *24 homens e mais nada. A captura do Santa María*, Abrente, Santiago, 2010, 24. or.
43. Ernest Lluch, «ETA no nació contra Franco», *La Vanguardia*, 1993-12-16, 21. or.; «Se liquidó a los GAL», *La Vanguardia*, 1995-02-09, 19. or.; eta «La primera víctima de ETA», *El Correo Español*, 2000-09-19, 30. or.
44. José Antonio Pagola, *Una ética para la paz. Los obispos del País Vasco 1968-1992*, Idatz, Donostia, 1992, 20. or. eta 3. oin-oharra. Bidebar, erran dezagun Pagolak Amarako leherketaren data (hilaren 27a) eta Urroz hil zenekoa (hilaren 28a) nahasi egin zituela.
45. Ainhoa Oiartzabal, «‘Nire tesia liburuaren testu nagusian dator: ETAK 1968an hil zuen lehendabizikoz’», *Berria. Igandea*, 2011-02-20, 8. or.
46. A. Oiartzabal, «Egia: lehen biktima», aip. art., 3-4. or.
47. Jesús Duva, «La primera víctima de ETA», *El País. Domingo*, 2010-01-31, 2-4. or.
48. Jtxo Estebanz, «Las víctimas del engaño democrático», *Diagonal* 139, 2010-12-22, 33-34.



**ARTEA 81**

Bienvenidos a la educación  
Le Grand Tour  
Free University

**HAIZEA BARCENILLA**

**TEKNOZIENTZIA 87**

Alba  
Eskoziako zientzia-sistema  
Nolako energia?

**INAKI IRAZABALBEITIA**

**LITERATURA 94**

Literatura eta tatuaiak  
Tatuatuta ere literatura da  
Tatua ezazu euskal literatura  
Zer tatuatuko du lagunak?

**GOIZALDE LANDABASO**

**SOZIOLINGUISTIKA 101**

EAEko hizkuntza plangintza: Erregea hil da,  
gora Erregea!  
Konplexutasunaren paradigma soziolinguistikan  
eta plangintza egiteko momentuan

**LIONEL JOLY**

**GLOKALIA 109**

Italiar bidezidorrak  
Damutuak, disoziatuak eta irreduktibleak  
Azawad

**JOSU LARRINAGA**

## Bienvenidos a la educación

Gauzak aldatzen ez badira (hitz hauek idazterakoan espainiar estatua erreskate baten amildegia saihesten saiatzen ari da edozein errorik gabeko zuhaixkari helduz), sistema publikoak sufritu egingo du hurrengo urteetan. Eta egoera horrekin bat, arrisku handian dago hezkuntza publikoa, ez horrenbeste bere jarraipena, baizik eta batez ere bere balioak, kalitatea eta unibertsaltasuna. Unibertsitateari dagokionez, gutxi hitz egin bada ere, egoera larrian aurkituko da lege berriak inposatzen dituen aldaketak gauzatu egiten badira. Horren arabera irakasle bakoitzak 32 kreditu eman beharko ditu, hots, gaur egun ematen dituenak baino sei gehiago. Beharbada zenbaiti ez zaio gehiegi irudituko; baina ez dezagun ahaztu unibertsitateko irakaskuntza espezializatua dela, eta ondorioz irakasgai baten prestaketak suposatzen duen denbora ez dela astean ordu pare batekoa soilik. Irakurketa ugari behar dira, ikerketa serioa eta modu ulergarri eta didaktikoan antolatutako jakintza kantitate mordoa. Eta, noski, irakasleen ikerketa denbora murriztu egiten bada, are zailagoa izango da irakasgai gehiago seriotasun eta profesionaltasunez prestatzea.

Hezkuntzaren kalitatea jaitsiko da, beraz, eta kontrako joera erakutsiko dute estresagatik sortutako gaixotasunek. Egun jada ordezkapenak unibertsitatean arazo bat badira, ikusiko dugu bi urte barru zer gertatu behar duen. Haurtzaindegietan bezala, beste jakintzagaietako irakasleak gaztez betetako geletan sartuko ote dituzte, bi orduz hezkuntza espezializatua eman ezean, behintzat bideoekin entretenituz?

Kontua ez da hor amaitzen, ordea. Euskal Herrian alderik okerrenera euskarazko irakaskuntzak eramango du. Izan ere,

irakasleen eskola-karga igotzen bada, lehen helburu garbia irakasleak kaleratzea da: postu ziurra ez dutenak, jardunaldi erdian daudenak eta, orokorrean, gazteago direnak izango dira atetik irteten lehenak. Euren irakasgaiak postu finkoa duten irakasle titularrei ezarriko zaizkie, eta jakina da horien artean dagoela elebiduntasun mailarik baxuena. Beraz, karrera askotan ez da euskarazko irakaskuntza ziurtatzeko irakasle nahikorik egongo, eta taldeak elkartuko dira irakasle bakarraren pean. Horren ondorioa gaztelaniaren inposatzea izaten da maiz. Aurten jada, ordezkapenekin arazoak zirela eta, taldeen bateratze kasuak gertatu dira: hau da, euskarazko eta gaztelaniazko taldeak elkartzea irakasle bakar baten pean, eta nahiz eta elebakarrak klasearen erdia baino gutxiago izan, irakasgai hori gaztelaniaz ematea denen ulermenerako.

Beraz, beken kontua gora eta behera, arazoa ez da baka-rik hainbat ikaslek zailtasunak izango dituztela unibertsitatea ordaintzeko (badela ere arazo larria), baizik eta, gainera, zelakoa izango den emango zaien irakaskuntza: zein baliotan eta ikerketatan oinarritua, zein hizkuntzatan eta irakaslearen zelako dedikazioz. Hezkuntza legea betez gero, ez da hurrengo urteetan edozein irakaskuntzatan normala litzatekeen belaunaldi-freskatzerik izango, ezta eleaniztasuna bultzatuko (irakasle gazteenak izaten baitira, euskarazkoek gain, ingelesezko irakasgaiak ematen dituztenak). Horrek guztiak hezkuntza publikoaren kalitatea kolokan jartzen du, eta hori hain zuzen izaten da zerbitzuen pribatizatzerako erabili ohi den lehen aitzakia. Prozesu arriskutsu baten aurrean gaude, asko galaraz dezakeena; eta gelditzea lortzen ez badugu, atzerabidea gero eta zailagoa izango da.

## **Le Grand Tour**

A, le Grand Tour! XIX. mendeko britainiar aristokrata eta burges dirudunen hezkuntzaren atal nahitaezkoa, liburu erromantiko askoren testuinguru edo eragile, Historiaren

aztarnen inpresioen igorle eta edozein gizon heziren oinarritzko esperientzia!

Orokorrean Londresen hasten zen bidaiaria esanguratsua, Calaisera abiatuz. Britainiar gazteek laguntzaile bat izaten zuten, adineko gizon zentzuduna, askotan erlijioso, euren hezkuntza eta portaera gidatuko zuena. XVIII. mendean Frantzia izan ohi zen bisitatutako lehen lurraldea: Avignon, Lyon, eta noski, Paris. Bertan bidaiariak historiako artelan garrantzitsuak ikusi, idazleak ezagutu eta hiriko aristokraziarekin elkartzen ziren. Iraultzaren garaietan askok Alemania auke-ratzat hartu zuten, Hanburgo, Berlin, Halle edo Weimar bezalako lekuak bisitatuz; azken hiri horretan Goethe fama-tuak egiten zien gazte ingelesei harrera bere etxean bertan.

Ondoren, Alpeak zeharkatzen ziren (hortik erromantizismoaren paisaia torturatuak) Italiara iritsiz, hemen aurkitzen zirelarik bidaiaren irakaskuntza esanguratsuenetakoak: Venezia, Milan edo Erroman. Hiri Eternala zen, hain zuzen ere, nahi artistiko eta literarioak zituzten gazte askoren etxe denbora luzez, antzinateko artista eztabaidaezinen lan klasi-koak miresteko behar zuten denbora lasaitasunez hartuz. 1748tik aurrera betebeharezkoa bihurtu zen aurkitu berri zen Ponpeiara bisita, Erromako Inperioaren pintura ezohizko eta bikainaren aurrean txunditzeko.

Bidaiaria hilabete gutxi batzuetatik zenbait urtetara luza zitekeen, bidaiariaren aberastasunaren arabera; orokorrean, urtebete behintzat irauten zuen, eta askotan Paris edo Erroma bezalako hirietako egonaldiak bakarrik urte erdi bat har zezakeen. Gainera, bidaiaren bukaeran laguntzaileak gaztea bere baitan utzi ohi zuen, bere heldutasuna onartuz eta bizitzan lehen aldiz askatasuna eskainiz.

Le Grand Tourrari buruzko informazioa askotan aipatzen da egungo turismoaren aurrekari bezala, esaterako, wikipedian. Hori ez da guztiz zuzena. Le Gran Tourrak hezkuntza izaera bat zuen, bai kulturala eta baita soziala ere. Urte bat edo bitan, gazteek Europako artelan klasiko garrantzitsuenak ezagutzen zituzten; artistekin elkartzen ziren, euren es-

tudioak bisitatuz, eta idazle askok euren etxeetan hartzen zituzten. Baina, horretaz gain, hirietako aristokrazia eta burgesiarekin elkartzen ziren, industria eta negozio esanguratsuak ezagutzen zituzten, ideia politiko berriekin topo egiten zuten (Rousseau izan zen, esaterako, Le Grand Tourreko gazteei harrera egiten zien beste pertsonaia nabarmena). Guztia, kultura desberdineko pertsonekin harremanak izanez eta, askotan, hizkuntza desberdinak praktikaturaz, epe luzez testuinguru berri batean barneraturaz. Gaur egungo Erasmus programarekin edota truke kulturekin harreman handiagoa du, eta ez bi asteko Mexikoko birarekin, edota hondartza-eta-farra-astea oporraldiekin.

Gurutzatzen zituen paisaiak bezain kutsu erromantikoa du Le Grand Tourrak. Noski, horrelako hezkuntza sistema aberats, gizonezko eta mendebaldekoa gutxiengo batentzat pentsatua zegoen, eta gaur egungo munduaren arintasunarekin zerikusi gutxi du. Begi bistakoa da hierarkia sozial guztiz bidegabeetan oinarritzen zela horrelako esperientzia izatearen aukera. Baina batek ezin du, egungo hezkuntzak daraman pribatizatzeko eta printzipio galtzeko bidea ikusita, beste garai horietako pentsamendua ekidin, eta, modu bitxi batean, Europa kontserbadore eta garaiz kanpoko horren zerbait balio eta ohitura gaur egungo Europa kontserbadore eta garaikidean faltan bota.

## Free University

2001ean, Kopenhageko bi artistak, Henriette Heise eta Jakob Jakobsenek, Copenhagen Free University (CFU) sortu zuten. Euren etxebizitza unibertsitate izendatu zuten, unibertsitate ireki, ideologiko eta publikoa, guztion jakintza elkartu eta banatuko zuena. Danimarkako goi-hezkuntza sistemarekin desadostasunean, hezkuntza tresna ideologiko bat dela onartuz eta unibertsitate tradizionalak erakutsi ohi duen balizko zurtasuna kritikaturaz, non ustezko neutraltasunak ekonomi-merkatura daraman bidea zehazten duen,

ikasteko moduak eta metodologiak zabalitzen zituen ariketa ez kapitalista, autoantolatu bat bultzatu zuten.

Ekimen horrek aurkezpenak, artelanak, eztabaidak, proiektzioak, ikerketa talde heterogeneoak, telebista bat eta hainbat argitaratze bildu zituen, beste gauza askoren artean. Praktika eta ikerketa elkartu eta nahastutako jakinduriak bezala ulertuz, asko urruntzen zen tradizionalak diren klase magistraletatik. Jendea nahi zuenean zetorren, nahi eta interesen arabera, eta bakoitzak zekiena eta zeukana besteekin banatzen zuen.

Kopenhagekoari jarraituz, antzeko «instituzio komunak» sortzen hasi ziren beste lekuetan: Los Angelesen, Londresen, Manoan, Berlinen. Zenbaitetan «aske», bestetan «tangenzial» edo «informal» bezalako izenak hartzen zituzten, beti unibertsitatearen izenari lotuta. Gainera, ekimen guztiek webgune gaurkotua izaten zuten, lekuan lekukoentzat izateaz gain, munduan zehar euren eskaintza zabaldu ahal izateko. Pentsamendu antzekoan oinarritzen den zerbait bada orain dela gutxitik Euskal Herrian, Bilbon osatutako Bulegoa z/b espazioan. Bertan, «formarik gabeko hezkuntza» aldarrikatzen da, jakintzaren forma anitzak praktikara eramanez atea zeharkatzen duen edonorekin. Artea, kultura, aktibismoa, pentsamendua, zinema, literatura, soziologia eta politika topatu ahal dira horrelako ekimenetan, eta jakintzagaiez gain, pentsatzeko eta antolatzekeko modu alternatiboak ere igorri nahi dituzte.

Hala ere, 2007an CFUk bere ateak itxi zituen. Euren esanetan, erreferentzia konkretuegi batean bihurtu ziren, artearen eta zenbait ikuspegi akademikoren emantzipazio eta hezkuntzaren ikuspegi zehatza irudikatuz, eta ez zuten dualtasunaren jokoa jokatzen jarraitu nahi. Zeukaten informazioa Interneten zintzilikatu eta au revoir esan zuten, «We have won» (irabazi dugu) zioen txartela eskegiz.

Eta, hala eta guztiz ere, 2010ean Danimarkako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza ministerioa CFUrekin kontaktuan jarri zen, euren ekimena, hala nola autoantolakuntza



eta hezkuntza librearekin zerikusia zuen beste edozein, legez kanpo ezarri zutela jakinarazteko. Bazekiten, zioten eskutitzean, CFU desagertua zela, baina berriz eratzeko asmoa baldin bazuten, bertan behera uztea gomendatzen zitzairen, delitua izango zelako. Unibertsitate izena estatuak antolatutako eta ontzat emandako instituzioek eraman dezakete soilik, estatuak berak onartu eta kontrolatutako curriculumak eskaintzen dutenak.

Bada, egoera horren aurrean, CFUk ez du beste aukerarik izan: itzuli egin da. Eta hala egin du bakoitzari, munduan dagoen lekuan, bere unibertsitate libre eta propioa ezartzera gonbidatuz, bere ekintzen garrantzia nabarmenduz. Danimarkakoei, gainera, euren unibertsitate sortu berriaren existentzia gobernuari jakinaraztea eskatzen diete. Hezkuntza ezin delako izan ezarritako inposizio bat, ustez printzipiorik gabekoa, baina azken finean ideologiaz zamatuta. Eta kartzelan sartzen dituzten bitartean, hor daukazue Interneten, <http://copenhagenfreeuniversity.dk> izenpean.¶

## Alba

Izen hori ematen diote eskoziarrek beren herriari gaelikoz. Maiatzaren egun hondar hauetan beren nazioaren independentziaren alba eskribitzen hasi dira eskoziarrak milioi bat sinadura biltzearen erronka jarrita beren buruari. Erraz esaten da, gaitzagoa egiten, populazioaren %20 baita zifra hori.

Ez naiz Eskoziaren independentziaz jardungo lerro hauetan, Eskoziako zientziaz baizik. Sinaduren desafioa jaulki zen aste berean bisitari inportante bat etorri zitzaigun Eskoziatik Euskal Herrira. Sabino Arana Fundazioak zientzia-politikaz antolatutako mintegi batean Anne Glover-ek sarrerako hitzaldia egin zuen. Anne Aberdeengo Unibertsitatean biologia molekularreko katedraduna da lanbidez, baina urtarrilaz gero Europako Batzordearen Zientzia Aholkulari Nagusia da. Lehenago, 2006tik 2011ra, Eskoziako gobernuan funtzio bera izan zuen.

Aholkulari zientifikoaren postua ez da ohizkoa gure inguruan, nahiz eta hainbat herri anglosaxoietan ohizko figura den gobernuaren baitan. Ospeko zientzialari bat izaten da, gobernuaren egunerokotasunetik kanpo dagoena. Bere zeregina izaten da gobernuburuari eta gobernuari berari zientziaz eta teknologiaz aholkua ematea. Izan ere, gure inguruari begiratzea besterik ez dago jabetzeko gobernu-lanetan dihardutenek ez dutela normalean formazio zientifikorik; humanistak direla gehienak. Angela Merkel da salbuespenetako bat, kimikaria baita.

Aipatzekoa da berria dela postua Europako Batzordearen egituran eta Anne Glover izan dela lehen izendatua. Durao Barroso Batzordearen presidentea 2009an iragarri zuen postua sortuko zela. Dena dela, 2011ko udazkena arte ez da egin.

Zein da Europako Batzordearen Zientzia Aholkulariaren zeregina? Durao Barroso lehendakariaren aholkulari zuzena da, eta funtzioen artean hauek aipatzen dira Anne Gloverren izendapenean:

- Presidenteari aholku aditu independentea ematea zientziari, teknologiarri eta berrikuntzari buruz.
- Harremanak izatea goi-mailako aholku-gorputzekin, hala nola, Europar Ikerketa Espazioarekin eta Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzarekin.
- Harremanetan egotea jarduera bera duten EBko zein EBtik kanpoko antzeko egiturekin.
- Batzordeak egiten dituen proposamenetako batzuek oinarrian dituzten balio zientifikoak komunikatzea, iritzi publikoak zientzian eta teknologian duen konfiantza indartzeko, hots, europar herritarren artean kultura zientifikoa eta teknikoa zabaltzea.

Aholkulari zientifikoaren figura oso interesgarria iruditzen zait. Erabakiak hartu behar dituztenek ondoan zientziaren alorrean jakintza sakona duen pertsona bat izateak erabakien kalitatea hobetuko du. Ez al dituzte, bada, gobernuburuek mota askotako aholkulariak? Zergatik ez izan sozietatearen egunerokotasuna baldintzatzen duten zientziaz eta teknologiaz aholkua emango dien pertsona aditua aldean? Bestalde, zientziari berari ospea eta zentralitatea ematen zaio. Onartzen badugu zientzia XXI. mendeko gure gizartearen kulturaren osagai bazterrezina dela, logikoa dirudi zientziaren ikuspegia erabakigunetik ahalik eta gertuen egotea. Ene aburuz, onerako izango litzateke euskal gobernu-erakundeetan hain ugari diren aholkularietako bat zientzia-aholkularia izatea. Hurrengo lehendakariak helduko al dio erronka horri?

## **Eskoziako zientzia-sistema**

Eskoziako zientzia sistemaz hainbat datu eta zertzelada interesgarri eman zizkigun Anne Gloverrek. Euskal Herria-

ren ikuspegitik badu interesa ikustea nola antolatzen duten zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren esparrua Eskozian, bi herriok ezaugarri komun batzuk partekatzen ditugulako: estatu txikiak gara eta estatuaren erabakigune ekonomikoen periferian kokatzen gara. Erresuma Batuen kasuan, Londresen eta inguruan kokatzen dira, Espainian Madrilén nagusiki eta Bartzelonan parte batean.

Sistemari eragiten dioten beste faktore batzuetan desberdintasun aipagarriak ditugu. Eskoziako unibertsitate-sistema tradizio luzekoa da. Saint Andrews Unibertsitatea Erresuma Batuko hirugarren zaharrena da, Oxforden eta Cambridgeren atzetik, eta Erdi Aroan ditu sustraiak. Eskozian egun 21 unibertsitate daude, eta asko dirudite 5.000.000 biztanlerentzat, kontuan hartzen badugu 3.000.000 euskal herritarrok 7 ditugula. Alde hori, berriz, gure tradizio unibertsitario laburraren ondorioa izan daiteke. Dena dela, Anne Gloverren iritziz, unibertsitate gehiegi ei dira. Hala ere, unibertsitate-tradizio horrek ekarri du zientzialari ospetsuen artean eskoziarrek toki nabarmena izatea. Bakarra aukeratze-kotan, eredu elektromagnetikoa garatu zuen James Clerk Maxwell fisikaria aipa daiteke, baina irakurlea animatuko nuke Wikipediako zerrenda honetan izen ezagunak bilatzera: [http://en.wikipedia.org/wiki/Scottish\\_scientists](http://en.wikipedia.org/wiki/Scottish_scientists). Anitz izen ezagunak izango zaizkio.

Tradizioaz gainera, errealitatea ere badira. Unibertsitate horien artetik lau munduko unibertsitateen TOP200ean daude, eta bat TOP10ean. Horrek sistemaren kalitatearen neurria ematen du. Eskoziako gobernuak, hala ere, unibertsitateak sarean lanean aritzea bultzatzen ari da, hots, elkarlanean. Hainbat alorretan cluster modukoak osatu dituzte unibertsitateek. Adibidez, biziaren zientzien alorrean SULSA izenekoa da clusterra ([www.sulsa.ac.uk](http://www.sulsa.ac.uk)). Unibertsitateek ikerlanerako jasotzen duten diruaren zati bat clusterrean jartzen badute, gobernuak diru gehigarria ematen die. Egitura horrek ematen duen indarra eta finantzabideak baliatuta, lehen mailako kanpoko ikerlariak erakartzea jadesten

dute. Testuinguru horretan aipatzekoa da Eskozian unibertsitateen ikerketaren finantzazioaren %90 publikoa dela.

Zientzia- eta teknologia-sistemaren baitan, unibertsitatez aparte, Ikerketa Institutu delako batzuk dituzte, besteak beste, oinarritzko zientzia egiteko. Horiek %50eko finantzazio publikoa dute.

Bestalde, seinalatu beharra dago Eskoziako sektore pribatuaren inbertsioa I+Gn ez dela oso handia. Egiten den I+Gren %70 diru publikoz ordaintzen da, eta sektore pribatuak %30 baino ez du jartzen. Proporzio hori ez dator bat joera nagusiekin. Esaterako, I+Gko inbertsioetan lider diren Suedian eta Finlandian sektore bakoitzaren pisua alderantzizkoa da, eta EAEn ZTCP2015 delakoan jartzen den helburua inbertsio pribatua %70eraino iristea da. Orain EAEn enpresek inbertsioaren %52 egiten dute, zentro teknologikoen %24 eta unibertsitateek eta bestelako agenteek gainerakoa. Hortaz, erdibideko puntu batean gaude EAEn.

Inbertsio pribatua txikia izatearen arrazoia Erresuma Batuen Londreszentrismoa omen da, Londres, Oxford eta Cambridge inguruan biltzen baitira industria handiak, hots, inbertsio adierazgarriak egiteko gaitasuna dutenak. Eskoziako industria txikia eta ertaina denez, ez du I+Gn inbertsioak egiteko ahalmen handirik. Euskal Herrian antzeko egoera batean gaude. Gure industria-sarea ez dago enpresa handiz osatuta, salbuespen adierazgarri batzuez aparte, eta Espainian Madrilan kokatzen dira erabakigune ekonomiko nagusiak. Hortaz, pentsa liteke Eskoziako egoera ez dela oso egokia diru publikoaren menpekotasun handiegia duelako sistemak, baina Suedia eta Finlandia al dira ereduak? Ez dut uste. Erdibidean egon liteke puntu egokia gurea eta Eskozia bezalako herri batentzat, alegia, egun EAEn dugun egoeran.

Anne Gloverrek emandako datuen artean, batek erakarri zuen nire atentzioa, eta, esan dezadan, baita neurri batean harritu ere gorago aipatutako guztiaren ondorioz: I+Gn egiten den inbertsioaren ahaleginaren tamaina txikiak. Izan ere, Eskozian BPGren %1,48 baino ez da I+Gn inbertitzen, hots

Espanian egiten denaren parean (%1,38), EAEn eta EBko estatuen batez bestekotik beherago (%2,1 eta %2, hurrenez hurren) eta Europa iparraldeko estatuenetatik urrun (>%3).

Alabaina, zientziaren munduan egiten den ikerketaren eragina ezagutzeko erabiltzen den aipuen adierazleari so egiten badiogu, Eskoziako zientziak lortzen duen inpaktua izugarria da. Munduko lehena da 'aipuak/BPG' adierazlea baliatzen denean. Alegia, baliabide gutxiagorekin lehenen mailako zientzia egiten da Eskozian. Hausnarketarako puntu ederral

## Nolako energia?

Maiatzean eztabaidatu da Eusko Legebiltzarrean EAEn energia-plan berria. Plan horrek ezartzen ditu, besteak beste, 2020rako zein izango diren helburuak energiaren aurreztean, energia berriztagarriaren erabileran eta enparauetan.

Egia esan, planak eragiteko ardatz egokiak planteatzen ditu: energia aurrezte, petrolio-menpekotasuna gutxiagotzea, energia berriztagarrien ekarpena handitzea edo gas naturala trantsiziorako iturri moduan planteatzea. Alabaina, plana kamutsa gelditzen da helburuetan, eta, adibidez, energia berriztagarrien ekarpenaren hazkuntza oso txikia jartzen da itu moduan.

Petrolioarekin menpekotasuna gutxiagotzeko, aurreko planean bezala, gas naturalaren alde egiten da. Egokia da, baina 2020an energia-mixean ematen zaion pisua handiegia da, seguruenik Arabako eskisto-gasaren ustiaketa gogoan dutelako planaren diseinatzaileek. Horrek nabarmen oztopo egiten dio berriztagarrien alde tinkoago egiteari, eta horregatik jarri zaizkio horren ekarpen-helburu txikiak. Gas naturalaren ekarpenak 2010ean %42ko proportzioa izan zuen eta 2020rako %49koa aurreikusten da. Bestetik, petrolio-deribatuen proportzioa %36koa izatea aurreikusten da, 2010ean baino 3 puntu txikiagoa. Hortaz, gasaren ekarpenaren igoeira petrolioarenaren jaitsiera baino handiagoa da. Erregai fosiletatik tiratzen jarraitzeko estrategia darakusa.

Energia berriztagarrien ekarpenean jartzen den helburua da 2010eko ekarpena %87 igotzea, hots, eskaintza guztiaren %14 izatea. Helburua oso xumea da, eta eskaintza berriztagarriak, gutxienez, %20koa izan beharko luke nire aburuz Europako Batasunaren 20/20/20 estrategiarekin bat egiteko. Azpimarragarria da planaren aurreikuspenak biomasari ematen diola ekarpenaren parterik handiena berriztagarrien kuotari dagokiolarik: %74,9. Urruti gelditzen da haizearen ekarpena (%15,1) eta are urrutiago eguzkiarena (%2,4). Berriztagarrien alde eginiko postura makalaren seinale dira haizeak eta eguzkiak izango duten kuota.

Nire ikuspegitik, paradigma zaharra abandonatzeko printza batzuk ikusten dira planean, baina Jeremy Rifkinen hirugarren industria-iraultzan planteatzen duen paradigma-aldaketarantz abiatzeko kemen falta ikusten zaio ([www.thethirdindustrialrevolution.com](http://www.thethirdindustrialrevolution.com)).

Nire uste apalean, planak alderdi hauetan are gehiago sakondu beharko luke:

- Energia-sorrera banatuaren alde egitea eta banaketa-sare inteligenteak bultzatzea. Lehenak, energia-sorreraren oligopolioa apurtzea eta baliabide energetiko berriztagarrien ustiaketa egokiagoa ekartzen ditu. Bigarrenak, energia-sorrera banatua eraginkorra egiten du eta egungo sare elektrikoek dituzten galerak murrizten laguntzen du ([http://en.wikipedia.org/wiki/Distributed\\_generation](http://en.wikipedia.org/wiki/Distributed_generation)).
- Energia fotovoltaikoa eta minieolikoa indarrez zabaltzea eremu urbanizatueta (poligono industrialen sabaietan, esaterako) eta landa-eremuetako eraikin sakabanatueta. Horrek ez du esan nahi parke eolikoak edo eguzki-baratzeak alde batera utzi behar direnik.
- Olatuen energiaren aldeko postura handiagoa egin behar da. Energia-iturri horrek ahalmen handia du gure kostaldean. Ikuspegi teknologikotik merkatuan lehiakorra izateko oso hur dago, duela 15-20 urte eolikoa zegoen antzeko egoeran. Orduan Nafarroan gobernuak tinko bultzatu zuen haizearen energia, eta horrexegatik du eo-

likoak indar sendoa erreinu zaharrean. Beraz, gurean Eusko Jaurlaritzak traktore-lana egin beharko luke eta olatuen energiaren zabalkuntza tinko bultzatu. Ondorioz, 2020rako helburu moduan planta pilotu bat abian izatea oso kamutsa iruditzen zait. Ekoizpen-plantak lanean izateak beharko luke izan jomuga.

- Hidrogenoaren energiaren alde egin beharko litzateke energia sekundario moduan, hots, energia berriztagarriek sortutako energia soberazkoa metatzeko baliabide moduan.

Legebiltzarrean eztabaidatu ondoren egin zitzaizkion ekarpenek hobetu dute plana, baina ez gaituzte eramango energiaren auzian paradigma-aldaketara.¶



## Literatura eta tatuaiak

Duela aste batzuk hasi zen dena. Lagun bat etorri zitzaidan. «Tatuaia egin nahi dut». Hona arte normal dena. Azala berdinegi ikusi du eta marrazkitxoia egin nahi du; edota aspertuta dago bere bizkarrarekin eta kustomizatu nahi du; edota, beste barik, tatuaia egin nahi du. «Euskal literaturako esaldi bat nahi dut». (Hemen dator koska.) Berak, baina, ez zekien zein esaldi ezarri bere gorputzean (omoplatoan hain zuzen ere) eta laguntza eske zetorren. Nik ez nekien zer esan, nondik hasi, zer aholkatu. Gauza oso pertsonala da literatura gustua. Galdezka hasi nintzaion. Ez zuen esaldi luzea nahi. Hamar bat berbakoa, baina esaldia ona bazen luzatzeko prest zegoen. Ez zuen idazle oso ezagunik nahi. Jakina, Kaledonia Berriko edo Australiako edozein hirira zoaz, eta hamaika lagun aurki zenezake euskal idazle baten esaldia tatuaturik, edo beren beregi euskal esaldi batekin egingdako kamiseta batekin. Zerbait bila niezaion eskatu zidan, eta hor ibili nintzen hemendik eta handik euskal literaturako «esaldiaren» bila. Esaldiz beteriko burua daukat orain. Horrek artikulu honetarako hizpidea ekarri dit eta gaitzerdi. Zergatik? Saltseatu ostean konturatu naizelako literatura azalean tatuatzearena ez dela hain gauza arrotza. Ezta berria ere (laguna ez dela originala, alegia). Horretan nengoela Espainiako egunkari batean horren gaineko artikulua irakurri nuen. «Esaiozu literatura» zuen izenburu. Eta horrek webgune batera eraman ninduen: [www.contrariwise.org](http://www.contrariwise.org). Orrialde horretan literaturarekin lotutako esaldiak erakusten dituzte; beso, hanka edota gorputzeko beste ataletan. Argi gera dakizun: orrialde honetan agertzen direnak: BAT, literatura-zale dira; BI, ausartak. (*The Lord of the Rings* eleberriko

esaldi luze bat beso barruan tatuatzeko adorea behar da, gero.) «From the ashes a fire shall be woken, a light from the shadow shall spring; renewed shall be blade that was broken, the crownless again shall be king» (Sute baten errautsetatik esnatu zen, itzalen argitan, apurtu zen hostoa berregingo dute, Korobako erregea izango da berriz ere). J. R. R. Tolkienek idatzitako *The Lord of the Rings* liburuak estimu handia ei du azala tatuatzen dutenen artean. «Not all who wonder are lost» (Zoragarria den guztia ez dago galdua) bertako esaldi bat.

## Tatuatuta ere literatura da

Gehien-gehien tatuatzen den esaldia Kurt Vonnegut-ek idatzi zuen *Slaughterhouse Five* eleberriari dagokio. Alemaniako Dresden hiriaren kontrako bonbardaketaz jarduten du eleberri horrek. «So it goes» (Horrela izan zen) esaldia da gehien tatuatzen dutena. Beso eta bizkarrean tatuaturik ikusi dut batez ere. Liburu horrek ere badu oso erabilia den beste esaldi bat: «Everything was beautiful and nothing hurt» (Dena zoragarria zen eta ez zuen minik ematen). Euskaratu genezakeela esan nion lagunari, baina berak oso argi zuen: euskal literatura non, laguna han. Ez zuen oso maite esan niona. Bilaka jarraitu nuen. Lewis Carrollek idatzitako *Alicia's Adventures in Wonderland* goi-goiko zerrendetan dago. Hemen esaldi asko azaltzen dira: «Who in the world I am» (Nor naiz munduan). Hori baino arrakastatsuagoa, ordea, «We'll all mad here» (Zoratuta gaude hemen). Mundu liluragarria aurkitzen ari naiz lagunari esker. Eta eskerrak eman beharko dizkiot. Ranking bat aurkitu dut. Arestian aipatutakoak agertzen dira *top* zerrenda horretan. Hirugarren lekuan dago Maurice Sendak-en *Where the Wild Things Are*, gatzetxoentzat idatzitako liburua. Bertatik atera dut, esaterako, hauxe: «I could have never imagined how he would turn out to be such a fighter» (Sekula ez nuen pentsatu zelan bihur zitekeen borrokalaria). Bai, neuri ere luzeegi iru-

ditu zait, eta orratzaren mina sentitu dut tatuatzaileak lagunaren gorputz atalean eman dezakeen denboran pentsatzekoan. Bigarren lekuan (rankingarekin ari naiz) Antoine Saint-Exupéryren *The Little Prince* dago. Bere esaldirik eza-gunena «It is only with the heart that one can see rightly, what is essential is invisible to the eye» (Bihotzarekin baino ezin dugu zuzen ikusi, ezinbestekoa ikusezin zaio begiari). Irudika dezakezue beso batean? Beso osoa goitik eta behera hitz gotikoeekin? Lehenengo lekuan Chuck Palahniuk-en *Fight Club* dago. «It's only after we've lost everything that we are free to do anything» (Dena galdu ostean edozer egiteko libre gara). Itxura denez liburu horrek izugarritzko arrakasta dauka. Bada liburu horretan beste esaldi bat nahiko tatuatua izan dena: «Only after disaster can we be resurrected» (Suntsiketaren ostean berpiztea baino ez dago). Edgar Allan Poe eta Shakespeare ere eskari handiko idazleak dira. Poeren esaldi hau aurkitu dut behe-lepo batean. «All that we see or seem is but a dream within a dream» (Ikusi eta sentitzen dugun oro amets baten barruko ametsaren antzekoa da). Bide batez, Hollywoodeko izarra den Megan Fox-ek badu William Shakespeareren tatuai bizkarrean. Lagunari esan diot, eta «Nor da hori?» galdetu dit. Bestetik, lagunari ez zaio Shakespeare askorik gustatzen. Oso Poezale ere ez da. Berak euskal idazlea nahi du. «Bihotzera zuzenean sartuko zaidan esaldi bat».

Hariari tiraka, bada beste webgune bat hizpide bera duena: *The Word Made Flesh* (tattooilit.com). Hemen ere literatura azalarekin nahasita ikus dezakezu. Esaldi asko, eta hanka, berna, izter barru, bizkar, esku eta beso gutxi batzuk literaturaz jantzita. «Write hard and clear about whats hurts. Don't avoid it. It has all the energy. Don't worry, no one died of it. You might cry or laugh, but no die» (Mintzen gaituenaz idatz ezazu gogor eta argi. Ez ezazu sailhestu. Energia guztia du. Ez estutu, inor ez da horretaz hil. Barre edo negar egin dezakezu, baina ez hil). Orratz elektrikoa ñññññ-ka eltxo deserosoa bailitzen norbere azalaren gainean surf egi-

ten. Aiii. Ernest Hemingwayren esaldiak gorritzatu du nekaren besoko barru aldea. Sakonagoak ere badira, esaterako, Ferdinand Foch-en esaldi eder hau: «The most powerful weapon on earth is the human soul on fire» (Lurreko armarik indartsuena sutan dagoen giza arima da). Azken urteotan oso modako jarri da George R. R. Martinen lana: *A Song of Ice and Fire*. Bertatik asko tatuatzen ari omen den esaldia da «The winter is coming» (Negua badator). Samuel Becketten esaldirik ere hartu izan da azalean betikotzeko. «Ever tried. Ever failed. No matter. Try again. Fail again. Fail better». (Beti ahalegindu zen. Beti porrot egin zuen. Arazorik ez. Ahalegindu zaitez berriro. Porrot egin ezazu berriro. Porrot egin ezazu hobeto).

Tira, lagunaren esaldiaren aitzakiarekin inguruko lagunentatu aietan gabezia bat ikusi dut: eurenetan ez dago hitzik. Eta eskaria egin didanak, berriz, hitzak nahi ditu. Azaldu diot gaur atsegin duzun esaldi bat gorrota dezakezula hamar urte barru, eta agian damutuko dela aukeratutako esaldiarekin. Baina dagoeneko tematuta dago. «Ez duzu ezer aurkitu, e!». Eta esaldiak apur bat haserretu nau. Ez dakit esanarazi nahi izan didana zer izan den. Euskal literaturan rankingik ezin dezakegula egin? Ez dagoela betiko gordeztea (edo kasu honetan azalean eramatea) merezi duen esaldirik? Ez naizela esaldi ziztrin bat aurkitzeko gai? Eta tematasunak (edo temakeriak) harrapatu nau.

## Tatua ezazu euskal literatura

Ez dakit rankingerako balioko duen, baina lagunaren gustuak aintzat harturik nolabaiteko zerrenda egin dut. Uste dut goi-goian Joseba Sarrionandia legokeela. Eta asko dira aurkitu ditudan esaldiak. «Nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak». Hori ederra begitandu zait. Baina Sarrionandiarekin esaldi asko sor litezke. «Hire irudia dakusat kaleidoskopio orotan». Hori ere ederra da. Beharbada desegokiagoa. Beste bat ere aurkitu dut: «Hezurretan gaude, min zaha-

rren batek gure baitan hezurrezko xirulak jotzen ditu». Baina denetatik gehien gustatu zaidana: «Gaur agertzen ez bahaiz herenegun itxadongo haut ezinezko beste kantoi batean». Eta zerrendan apuntatu dut. Jose Luis Otamendik ere badu esaldi ederrik. «Sinesten ez dudan iraultza bat helduko da, jendea lo dela aldatuko ditu gauzen neurriak aldi baterako bederen». Gehiago gustatzen zaidan beste bat aurkitu dut: «Gu munduarenak gara baina mundua ez da gurea». Ez da oso luzea, beraz laguna orratz elektrikoaren minetik babes-tuko du, eta ederra da. Miren Agur Meaberen «Nire geroa beti da beste alanbrada bat», Xabier Leteren «Haruntz noa-kizue betirako, ametsen galbidetik adiskide maitatu gaur ia ahaztuok» eta Amaia Lasaren «Une batean bizitzeko ametsa egingo bagenu» gehitu dizkiot. Gabriel Aresti ere ranking berezi honen goiko tokian legoke. «Ni hilen naiz, nire arima galduko da, nire askazia galduko da, baina nire aitaren etxeak iraunen du zutik». Hori ere bizkarrera egokitu dakiok lagunari. Baina hain da berezia... Bilatzen jarraitu dut. Leire Bilbaoren esaldi honekin egin dut topo: «Eman dezagun gaur ez duela irentsi bere burua irensteko desioak». Indarra du esaldi horrek. Apurka-apurka esaldi artean bizitzera ohitu naiz. J. A. Artzeren esaldi ezin hobea aurkitu dut: «Nor zaitugu? Zu nauzu». Bernardo Atxagak idatzi eta Ruper Ordorikak kantatutako «Herdoilaren tristeziarekin batera, ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da». Bederatzi hitz. Sar liteke. Jon Benitok ere badu esaldi borobilik. «Samurragoa da galerna hondoratzen goazela irri egiten baduzu». Martin Larralde, *Bordaxuri* moduan ezaguna zenak, gutxienez esaldi on bat ere utzi du: «Kontseilu bat banikek hiri emaiteko». Harkaitz Canok ere esaldi gogoangarriak idatzi ditu. «Akatsik txikienengatik galtzen dugu zorion handia» edo «Merezi zuen gaua izatea». Pako Aristiren «Hamar lerro ez dira hamar arratoi» eta Luigi Anselmiren «Gauaren olatuak lehertzen diren tokian aurkituko nauzue». Lasterketan sartuta abiadari eustea besterik ez dago. Ur Apalategiren «Ez dago arbola garairik zoriontsuen artean, belar gozoa baizik»

eta Iñigo Aranbarriren «Ekarridazu harri bat inon ez diren herrietara zoazenean» esaldiak gustatu zaizkit. Akordura etorri zait Anjel Erroren bat baina laster joan zait. Eta bueltatu denean apuntatu dut esaldia: «Guk, lehorrekook, gure lehorrean inola ere ez dakiguna da marinelak itsasoan bakarka zeren minak ote dauden, zeren». Esaldiak arakutzen hasi eta leku guztietatik jasotzea bat dator. Jon Gerediagarekin pasatu zait: «Ni bakarrik geratuko naiz hiri abandonatuan kearen erdian adjetiboak bilatzen». Edota Oier Guillanen «Gorputz honetan daude noizbait izandako gorputz guztiak eta izango direnak eta baita izango ez direnak ere». Bitoriano Gandiaga: «Nire isiltasun hau hitzetan jarriko dut». Jose Angel Iriagarayren «Baina bizitza goizeko ihintza bukaerarik gabeko borroka maite dut eta nahi dut bizi». Eta bereziki gustatu zait Fertxu Izquierdoren «Zauriak zeharkatuz mugituko naiz or-bainen mugetan barrena». Koldo Izagirrearen bat ere aurkitu dut: «Zuek ez dakizue zer den bakarrik egotea bakarrik bakar-daderik ere gabe». Konturatu naiz esaldi klasikorik ez diodala hartu. Eta hasi naiz buruz zerrendatzen. Nemesio Etxanizen «Badu pozak iturria; baina maiz eteten zait haria». Estepan Urkiaga *Lauaxetaren* «Gabaz argi zakusat, egunez berriz ilun». Bilintx: «Nahiz hanka bana hautsi, berriak badi-ra». Jose Maria Iparragirrearen «Eman ta zabal zazu munduan fruitua». Eta amaieran ikusi dut iragarlea izan litekeen esaldia, Antonio Casado da Rocharena. «Betirako da dena, maitea». Eta azken hori ezin egokiagoa begitandu zait. Betiko azalean itsatsita geldituko zaizun esaldiari ironia dario, eta gustatu zait.

## Zer tatuatuko du lagunak?

Gustatu zait; lagunari, baina, ez. Esaldi laburra iruditu zaio. Eta esan egin diot, esaldi borobila dela, beso batean ederto gera daitekeela. Berak, ordea, omoplatoan nahi du eta gorriz, «odolarekin idatzi dela pentsatuko dute». Orduan konturatu naiz laguna jota dagoela.

Amorratu egiten naute hauek kontuok. Lan izugarria egin paperontzi batean amaitzeko. Lagunari esan diot, ia esaldi horien guztien artean ez ote dagoen gustatzen zaion bateren bat. Moldatu ere egin genezakeela baten hasiera bestearen amaierarekin. Ez dakit, Bilintx eta Miren Agur Meabe, edota, Sarrionandia eta Leire Bilbao. Ezetz. Eskertzen didala lana, baina klasikoa nahi duela, eta dagoeneko aurkitu duela. Hara! Hainbeste saltseatu eta bazuen, ba, esaldirik. Zein?, esan diot, jakin-minari ezin eutsirik. Etxepareren esaldi ezagun hori, «Jalgi hadi plazara». Zer esan ez dut jakin. Gauza bakar bat baino ez diot esan, «hitzak beltzak izan daitezela». Bera, ordea, tematuta dago. Odolaren kolorekoak nahi ditu. Eta kokagunea aldatu du. Omoplatoan ez da askorik ikusiko. Izterretan egitea erabaki du (!). Lagunari ezin dakioke gauza handirik esan; hortaz, Etxepareren berba ezagunak zabalduko ditu lagunak. Gorriz, zabaldu ere.¶



## **EAEko hizkuntza plangintza: Erregea hil da, gora Erregea!**

EAEn gaur egun indarrean dagoen Euskararen Biziberri-zeko Plan Nagusia (EBPN) hiltzear dago; horren ordez, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) ezarri nahi du Eusko Jaurlaritzak. Asmoa ESEP Eusko Legebiltzarrera uztailean igortzea da onetsia izan dadin, eta 2013. urtearen hasieran abian jartzea.

Hizkuntza plangintza batek lau fase nagusi izaten ditu: 1) egoeraren azterketa egin plangintza behar den edo ez zehazteko, 2) plangintza definitu eta osatu, 3) plangintzaren neurriak abian jarri, 4) egindakoaren ebaluazioa egin. Behin lau-garren pausora iristen garenean, berriz lehenengo pausora itzultzen gara. Trantsizio politikotik 30 urte baino gehiago eta EBPNren 1999ko onarpenetik hamar urte baino gehiago pasa direnean, egokia dirudi egindakoa ebaluatzea eta etorkizunari begirako hizkuntza plangintza egokitzea. ESEPi buruz hedabideetan jaso dugun informazioaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) eta Euskararen Aholku Batzordearen elkarlanetik sortutako dokumentua da ESEP. 2011ko Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleen txostena ([www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)) baliatu dute azken hamabi urteetako egoera soziolinguistikoaren bilakaera ebaluatzeko. Badirudi txosten horren arabera eta V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzen arabera onartu direla bereziki ESEPen ildo nagusiak.

Ez dakigu EBPNren ondorioz sortutako neurri zehatz bakoitzaren emaitzak neurtu diren. Horrek neurri bakoitzaren eraginkortasuna ezagutzeko eta horren arabera neurri zehatzekin jarraitzeko edo ez jarraitzeko balioko luke. Egia



da azken ebaluazio horiek egitea askotan aski zaila izaten dela hizkuntza plangintzen kasuan: plangintzaren neurrien ondorioak epe ertain luzeetan hasten dira agertzen; gainera, egoeraren bilakaeran eragina zein neurri zehatzek izan duen zehaztea zaila izaten da. Askotan neurrien sinergiek bultzatzen dute egoeraren bilakaera (edo egoeraren bilakaera eza). Horrez gain, neurri konkretu bakoitzaren kasuan adierazle esanguratsuak zehaztea zaila egiten da. Kausa-efektu erlazioa ez da askotan norabide bakarrekota eta unibokoa, errekurtsibitatea ere kontuan hartu behar izaten da. Gainera, egoera soziolinguistikoen bilakaeretan aurreikusi gabeko kanpoko faktoreek, gizarte-giroarekin lotuta izaten direnek (bilakaera demografikoa, politiko-operatiboa, ekonoteknikoa, psikologikoa edota soziokulturala), hizkuntza plangintzak berak bezainbesteko eragina edo eragin gehiago izan dezakete. Neurri konkretuen ebaluazioa, bistan denez, ez da batere erraza...

EBPNren kasuan, dokumentuari heltzen badiogu, plangintzaren norabidea eta ekintzak zehazteko AMIA matrize bat erabili zen: Aukerak (euskararen biziberritzeko kanpoko faktore positiboak), Mehatxuak (kanpoko faktore negatiboak), Indarguneak (euskararen biziberritzeko barruko faktore positiboak) eta Ahuleziak (barruko faktore negatiboak) zehaztu ziren. Agian aukerak eta mehatxuak oso labur aipatu ziren EBPN-n eta mehatxuen eta indarguneen azterketa modu zehatzagoan egin zitekeen. Baina egin, egin zen, eta suposatuko dugu ESEPen osagaiak erabakitzeke mota horretako azterketa egin zela, nahiz eta ez dugun horrela adierazita ikusi ESEPen aurkezpenean. Hori bai, ESEPen ildo nagusiak zehazteko *Euskara 21* ekimenaren hamalau ondorio nagusiak hartu dira oinarri. Horren arabera helburu nagusi bat zehaztu da:

Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizazioa biltzen duen hizkuntza politika hogeita hamar urte betetzera doan garai honetan, gero eta argiago nabaritzen da egungo eta etorkizuneko erronka nagusia, *Euskara 21* gogoeta prozesuan aipimarratu zen bezala, hizkuntzaren erabilera dela (ESEP: 7).

Hiru helburu estrategiko ere zehaztu dira: euskararen jabe-kuntza, euskararen erabilera eta euskararen ekoizpena. Helburuak lortzeko bi zehar-lerro ere zehaztu dira: euskararen aldeko motibazioak eta euskararen zabalkundea. *Euskara 21* ekimenaren hamalau ondorioak bezala, soziolinguistikaren ikuspuntutik RLS (*Reversing Language Shift*, hizkuntza indarberritzeko ahalegina) lortzeko egokiak dirudite helburu horiek.

Gure artean ez dira berriak, hala ere. Ikus ditzagun adibidez EBPNk «datozen hamar urteetarako erronka nagusiak» nola zehazten zituen 1999an. Helburu nagusia modu hone-tan definitzen zen:

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea (EBPN: 51).

Horretarako hiru helburu estrategiko zehazten ziren: euskara ondorengoetaratzea, euskararen erabilera eta euskararen elikadura. EBPNren eta ESEPen helburu nagusia (kasu batean euskararen berreskurapen osoa eta bestean euskararen normalizazioa) berdina da eta berdinak ere helburu estrategikoak. Erregea hil da, gora Erregea!

Hori, hala eta guztiz ere, ez da harritzekoa. Fishmanek, bere HINBE/RLS ereduan, mintzaldaketak ezagutzen dituzten eremu soziolinguistikoak neurtzeko eskala bat sortu zuen: *Graded Intergenerational Disruption Scale* (GIDS) deitzen dena, Mikel Zalbidek BAEN deitu izan duena (Belaun Arteko Etenaren Neurria). Eskala horren arabera, eta Fishmanen *Reversing Language Shift* eredia kontuan hartzen bada, erabilera eta bereziki EBPN eta ESEPen zehaztutako hiru helburu horiek dirudite oinarri-oinarrizkoak. Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren kasuan ere gauzak antzekoak dira. Izan ere, 2006an onartutako hizkuntza politika proiektuan hiru lan-lerro nagusi zehazten dira: euskara transmititu, euskaraz bizi eta euskara indartu; 2011-2016 urteetako hizkuntza plangintzaren garapena bide beretik

doa: transmisioa eta erabilera indartzea. Hori bai, Fishmanen RLS irakurrita, ekintza konkretuak zehazteko informazio anitz ematen da eta ordena konkretu bat zehazten du GIDS/BAEN eskalaren arabera. Mikel Zalbidetik Euskal Herriko eredu horren aplikazioa egin du eta zehaztu izan ditu lehentasunek zein izan behar duten Fishmanen ereduaren arabera (Mikel Zalbide, «Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE», [www.erabili.com](http://www.erabili.com), 2004).

Fishmanen RLSk toki berezia aitortzen die gertuko eremuei, Mikel Zalbidetik laburtu zuen moduan:

Etxeko giroan, lagunartean, auzo hurbilean eta eguneroko kale-bizitzan euskaraz jarduteak, eta jarduteko aukera zabalak izateak, lehenengo-lehenengo kezka bidea izan behar duela guretzat. Hori gabeko gramatika-batzordeak, bertso-saioak, telebista-emanaldiak eta kajero automatikoak alferrik ditugula: berez bezala eroriko direla lorpen horiek, goian esandako oinarri hori ahuldu eta gesaldu ahala. Euskal arnaguneei eustea, eta gure euskal herriak zabaltzea, lehentasun osoko egin-kizuna dutela (dugula) HINBEzale guztiok (Zalbide 2004).

Gertuko eremu horiek, euskararen etorkizuna ziurtatzeko ezinbestekoak izan ezik, hizkuntza plangintza egiteko justifikazioa dira. Zein mailatako justifikazio praktikoa luke, gaur egun, latinaren normalizazioaren aldeko hizkuntza plangintzak Vatikanotik kanpo? Irlandako kasua ere gogoe-tarako oso egokia da.

Azken finean, maila teoriko-metodologikoan aipatzen diren hitzak funtsezkoak badira ere, maila praktikokoan hartzen diren neurri konkretuek dute eguneroko errealitate soziolinguistikokoan eraginik. Ezin dira zalantzan jarri Kurt Lewin-en hitz famatuak, «Ez dago teoria on bat bezain praktikoa den ezer», neurriak norabide jakinik eta eragin kortasunik gabe hartu nahi ez badira behintzat. Hala ere, behin teoria egokia sortuta, praktikara eraman behar da. Horretarako hartzen diren neurri konkretuak dira, hain zuzen ere, hizkuntza plangintza batetik bestera egon daitekeen alde handiena. ESEPen behin-behineko txostenean ekintza zerrenda aurkeztzen da, arlo bakoitzaren arabera. Helburuen araberrako

hamasei lan-lerro zehaztu dira (ESEP: 13) eta kasu bakoitzean neurri «konkretu» batzuk proposatu. Ez ditugu hemen zere-  
rendatuko lan-lerro horiek eta haiei loturik dauden ekin-  
tzak. Ekintzak nahiko modu orokorrean aipatuak daude, eta  
ikusi beharko da etorkizunean benetan zer dagoen puntu  
bakoitzaren atzean. Adibide bat ematearren, «euskararen ja-  
bekuntza» den helburu estrategikorako hiru lan-lerro nagusi  
zehaztu dira: 1) familia bidezko transmisioa, 2) irakaskuntza  
eta 3) euskalduntze-alfabetatzea. Familia bidezko transmi-  
sioaren aurreneko proposamena «Sentsibilizazioa eta moti-  
bazioa etengabe lantzea» da, eta aurreneko ekintza konkretua  
«Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lan-  
tzea». Bistan denez, nahiko proposamen generikoa da; beste  
kasu batzuetan pixka bat zehatzagoak dira proposatutakoak,  
baina hala ere ikusi beharko da etorkizunean nola bete nahi  
den plana eta zein sendotasun hartzen duen ESEPe.

## **Konplexutasunaren paradigma soziolinguistikan eta plangintza egiteko momentuan**

Hizkuntza plangintza egiteko orduan, baina baita erreali-  
tatea deskribatzeko edo analizatzerakoan ere, konplexuta-  
sunaren paradigma kontuan hartu behar da. Agian, ekintza  
praktikoak zehaztu baino lehenago, berriz heldu beharko  
genieke giza zientzietako oinarri-oinarriei eta hizkuntza so-  
ziologiaren hainbat oinarriei.

Hemen oinarri soziofilosofikoei heldu nahi diegu une ba-  
tez. XX. mendearen bigarren erdian, errealitatea atzemateko  
eta aztertzeke garaian, konplexutasunaren paradigma ezin-  
bestekoa bihurtu da. Mendebaldeko ikerketetan ordura ar-  
te objektua baino ez bazen kontuan hartzen, subjektua iker-  
ketaren parte bihurtu da, behatzailearen paradoxa nabar-  
menduz. Paradoxa horren arabera, subjektua (behatzailea)  
ikerketaren parte dela kontuan hartu behar da. Hori horre-  
la, hauxe azpimarratzen da bereziki: errealitatea ezagutzeko  
modua irudikapenen bitartez egiten da; ezagut dezakegun

errealitate bakarra irudikatua da. Schrödingerrek idatzi zuen bezala: «gizakiari dagokionez, munduaz duen pertzepzioa izpirituaren eraikuntza bat da eta beti hala izango da, ez du froga daitekeen beste existentziarik» (Paul Watzlawick, *Le langage du changement. Éléments de communication thérapeutique*, Paris, Seuil, 1980: 51). Ikertzailea, gizaki oro bezala, lege horren menpe aurkitzen da, nahiz eta, Jaspersek esan zuen bezala:

Ez da dudarik zientzia ikerlariok etengabe tentazio bera dugula, hots: munduari behatzea gu, hori ezagutzeko kargua dugunok, horren parte ez bagina bezala, horri loturik ez ba-geunde bezala. Mundua ikertu nahi genuke, kontuan hartu gabe gu geu garela horren ezaguera hartzen dugunok (Watzlawick 1980: 51).

Beste era batera esanda, errealitate objektiborik ez dago (edo behintzat gizakiak ez du lehen graduko errealitate horretara hurbiltzeko modurik), hots, errealitate bat irudikatua da, hori da gizabanakotik edo taldetik bereganatua, bererraikia bere sistema kognitiboan eta integratua bere balio sisteman.

Objektua eta subjektua ikerketen parte bihurtu ondoren eta, beraz, irudikapenen garrantzia azpimarraturik, soziologiaren eta gure kasuan hizkuntza soziologiaren azter eremua erabat sartzen da konplexutasunaren paradigman. Hizkuntza plangintza egiteko garaian ez da baztertu behar hori. Gizartearen eta gizartearen bilakaeraren arrazoen azterketan funtsezkoak dira irudikapenak, Guimellik dioen bezala: «Ce n'est pas la réalité objective de la situation qui permet de [...] comprendre (les faits sociaux), mais bien la manière dont les groupes se l'approprient» (Christian Guimelli, «La fonction d'infirmière. Pratiques et représentations sociales», in Jean-Claude Abric (zuz.), *Pratiques sociales et représentations*, Paris, PUF, 1994, 83-108: 106).

Hizkuntza plangintza egin nahi izateak konplexutasunaren paradigman murgiltzea dakar. Edgar Morinek konplexutasuna oihal batekin konparatzen du:

Qu'est-ce que la complexité? Au premier abord, la complexité est un tissu (complexus: ce qui est tissé ensemble) de constituants hétérogènes inséparablement associés: elle pose le paradoxe de l'un et du multiple (Edgar Morin, *Introduction à la pensée complexe*, Paris, Points Seuil, 2005 [1990]: 21).

Konparaketa bat egiteko, Morinek tapizeria garaikidearen adibidea hartzen du (Morin 2005: 113). Tapizeria horiek kolore ezberdinetako eta mota ezberdinetako hariz osatuak daude. Tapizeria horiek ezagutzeko hari bakoitzaren ezau-garriak ezagutzea ez da nahikoa: alde batetik, hari bakoitzari buruzko ezagutza horiek ez dira nahikoak errealitate berria osatzen duen tela ezagutzeko; bestetik, ez digu informaziorik ematen tapizeriaren forma edo konfigurazioaz. Kontuan hartu behar da, beraz, metodologia bakoitzak ezinbestez suposatzen duen sinplifikazioa tresna bat dela errealitatera hurbiltzeko, baina ez da errealitatea bera. Eta noski, behin hari bakoitza analizaturik, ikuspuntuari osotasuna eman behar zaio. Morinek dioen bezala: «Toute théorie, y compris scientifique, ne peut épuiser le réel, et enfermer son objet dans ses paradigmes» (Edgar Morin, *Le paradigme perdu*, Paris, Seuil, 1973: 229).

Hizkuntza plangintza egiteko garaian, eta egoera soziolinguistikoaren errealitatea analizatzeko, ezinbestekoa dirudi sinplifikazioetatik pasatzea (hari bakoitza analizatzea). Behin hari guztiak aztertu direnean, osotasunaren eta konplexutasunaren analisia abiatzen da. Errealitatearen eraikina deseraiki ondoren, berreraikitze lan bat egin behar da osotasunera berriz heltzeko. Horixe da, hain zuzen ere, hizkuntza plangintza zehaztu nahi duen eragilearen lana. Bost fase nagusi daude, beraz, hizkuntza plangintzaren ekintza zehatzak erabakitzeke: 1) egoera soziolinguistikoari buruzko informazioa bilatu; 2) informazio hori diskriminatu eta sailkatu (deseraikitze lana), 3) hizkuntza soziologiaren edo RLS lortzeko erabili nahi dugun eredu teoriko-metodologikoaren arabera informazioa analizatu eta sailkatu, 4) analisiari bere osotasuna eman (berreraikitze lana), 5) neurri konkretuak

zehaztu aurreikusi zaizkien ondorioen arabera eta konplexutasunaren paradigma kontuan harturik. Paradigma horretan, bereziki garrantzitsuak dira plangintzatik kanpoko faktoreak eta bilakaerak, gizarte-giroari lotuta daudenak. Hori ikuspuntu bat baino ez da, noski; beste proposamen asko egon daitezke, batzuk kontrajarriak eta beste batzuk osagarriak: AMIA, PDCA zikloa...¶

## Italiar bidezidorrak

Lerrook idazterakoan sikatu gabe dago oraindik Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren komunikatuaren eta horrek ekarri dituen erantzunen tinta uholdea. Uholdea ez bada izan, emari handiko ibaia gutxienez, eta dena azkenean ezer berririk ez dagoela egiaztatzeko: kolektiboko presoek Aieteko eredia onartzen dute, borroka armatuaren aroa lurperatzen dute, sortutako min eta sufrikarioagatik nolabaiteko ardura ametitzen dute eta euren erakunde oraindik armatuari ematen diote amnistia eta autodeterminazioa negoziatzeko ahalmena. Alderdi gehienek ezer berririk ez dagoela diote, zenbait mediok Ezker Abertzaleko hainbat politikaririk —zeinek esana baitzuten presoek pauso azkarragoak eman beharko lituzketela gaur egungo egoerara egokitzeko— jasotako muzina azpimarratzen dute eta soilik gutxi batzuek nabarmentzen dute Kolektiboak barneko batasuna ez apurtze aldera tentu handiz ibili behar duela eta horrek zapuztu dituela puztutako espektatibak. Eta Ezker Abertzalea bera bakarrik gelditu da jadanik bake prozesua abiarazteko aitzakiarik ez dagoela esanez.

Eta arrazoia dute aitzakiarik ez dagoela eta onartu behar zaie laster urtea beteko duen prozesua alde horretatik bakarrik abiatu zela eta aldebakartasun horrek tiratzen duela bertatik eta beste aldean gauzak gutxika-gutxika mugitzen direla, baldin eta mugitzen badira. Eusko Legebiltzarrerako laster egingo diren hauteskundeetan espazio asko irabazi edo ez galtzeko asmoak dauzkaten partiduek lehia horri begiratzen diote, eta Madrilen dagoen gobernuak susto larregi dauka arrisku primarekin. Europarekin, interbentzioarekin batera, etorriko al da bultzada politikoa? Ez dirudi.



Loiolako prozesua akabatu zuen T-4ko atentatuak biktima kolateral argi bat utzi zuen: ETaren sinesgarritasuna, bai Euskal Herriko jende askoren aurrean, bai eta Espainiako sistema politikoko alderdien artean ere. Panorama horretan —beti ere krisi ekonomiko larriak eskatzen dituen arreta eta energiak kontuan hartuta—, Euskal Herrian bizi izan dugun gatazka politiko armatuaren ondorioz preso dauden pertsonen askatzeak beti gerorako lagatzen den kontua dirudi, Gabonak aldera mobilizazio-ahalegintxoak eskatu eta gero udako jaietan agerpen sasi-folklorikoa emango duena, argazkiak eta betiko parafernalia eta beste urte ustel bat. Preso zaharrenak —euren ekintzak legitimazio sozial altuko egoera batean egin zituztenak eta kapital sozial handia dutenak— badoaz hala-hola irteten (eta ez denak), eta besteak gelditzen dira.

Testuinguru honetan, Ezker Abertzalean orokorrean eta presoekiko elkartasunaren eta horren diseinuaren monopolioa mantentzen saiatzen ari den sektorean, Irlandako ereduari bakarrik begiratzen zaio. Han, berriz, borroka armatua lagatzeko momentuan zegoen egoera eta Euskal Herrian dagoena ez dira oso parekagarriak, ez abiapuntuetan, ez eta, batik bat, indarren korrelazioan eta alde diferenteen legitimazioan ere. Eta irteera ereduak ez da batere parekagarria. Berriki Jaurlaritzaren aldetik Italiako ereduari begiratu zaio, hangoa bide bakarra eta mimetizagarria bailitzan. Baina kasu horretan ezjakintasuna handia da; herri horretan gertatutakoa nahiko desitxuratuta ailegatu da askotan gurera, eta oraingoa areago desitxuratzeko saioa dela ematen du.

Eta pena da prozesu hori gurean hain gutxi ezagutu izana. Eta ezagutzeko aukerak, egon, badaude. Adibidez, Txalaparta argitaletxeak orain urte batzuk, 1994an, atera zuen gatzelaniaz Renato Curcio Brigata Rosse-etako militante eta buruzagiaren memoriak laburbiltzen dituen elkarrizketa formatuko liburu txit interesgarria (eta Curcio bera ekain honetan Donostiatik ibili da bere argitalpen proiektuak aurkezten). Inor gogoratzen al da hor esaten eta kontatzen zue-

naz? Are interesgarriagoa da Curcioren liburua paraleloan irakurtzea bere kide izan zen Mario Morettiren antzeko liburu batekin, kasu honetan Akal argitaletxeak 2002an gaztelaniaz argitaratua. Brigata Rossetako buruzagi historikoak dira biak —talka armatu batean zendu zen Margherita Cagol-ekin batera—, baina leku diferentetatik datoz (Trentoko Soziologia fakultatetik Curcio; fabriketako lanetik, tekniko ertain moduan, Moretti), eta, batez ere, patu militante oso bestelakoak izan zituzten Brigata Rosseen ibilbidean: ia hasieratik kartzelaratua egon zen Curcio eta Moretti klandestinitatean egon zen luze, Aldo Mororen bahiketa eta hilketan rol protagonista eduki zuelarik. Oso argigarria da irakurtzea ibilbide horiek zeharo nola markatzen duten bakoitzak egiten duen (euren) errealitatearen irakurketa.

Baina liburu horietan eta beste askotan —zentzu epiko batean Nanni Ballestrinirenak izugarri ederrak dira, eta Curcio bera Progetto Memoria izeneko argitalpen sorta ederra egiten ari da— ezagutu daiteke ikuspegi militante batetik Italiako historian «berunezko urteak» izenarekin ezagutzen den tarte, eta bertatik irakaspen batzuk atera daitezke, Euskal Herrian aplikatzekoak. Han, borroka armatua ez zen egon askapen nazionalari lotua, eredia izan zen oso difusoa eta errizomatikoa, talde armatu askotxo egon ziren, eredu diferentetako komunismoak eta gero gurera ere inportatu ziren talde autonomoek garrantzi handia izan zuten.

## Damutuak, disoziatuak eta irreduktibleak

Jende askok praktikatu zuen borroka armatua, oso era *alaitzuan*, garaipena bertan balego bezala, eta estatuaren errepresioa erabatekoa izan zen. Laurogeiko hamarkadaren hasieran sarekadak orokorrak eta anitzak izan ziren, eta horietan jausi ziren militante armatuak eta inguruan zebiltzan aktibistak eta intelektualak (Toni Negrirena izan zen kasu ezagunena). *Alaitasun* horren ondorioz atxiloturiko jende asko erakunderik eta erreferentzia argirik gabe zegoen, pres-

takuntza ere ez zen oso maila altukoa izango, eta horren ondorioz nahiko ohikoa bilakatu zen jende asko atxilotua izan bezain pronto poliziarekin kolaboratzen hastea, bere kideak salatu eta horrela zigorraren arintzea lortzeko. Bertan damutuak deitu zieten horiei.

Euskal Herrian urte horietan ETApm-ren disoluzio prozesua gertatzen ari zen, eta horiei, asmo peioratiboz, adjektibo hori aplikatu zitzaizen borroka armatuaren beharra defendatzen segitzen zutenen aldetik, nahiz eta batzuen eta besteen jarrerak eta ekintzak parekagarriak ez izan. Gero Italian beste fenomeno bat egon da, disoziazioa: hau da, kartzelan luze egon eta gero euren erakundeetatik bereizi eta legalitatean sartzeko prozesua erabili duten presoena. Orain, hemen, Jaurlaritzaren eta nolabait ere Madrilgo gobernuaren aldetik, eredu hori bultzatu nahi dela dirudi.

Italian bide horri muzin egin ziotenak «irreduktibleak» deituak izan ziren; baina, adibidez, Curciok bere jarrera markatzen du Txalapartak argitaratutako liburuan: ez-damutua, ez-disoziatua, ez-irreduktiblea. Bide bat topatu behar zuen, kartzelan segitzeak ez zuen zentzurik proiektu iraultzailea desegin zenean, eta horri ekin zion. Geroago, berak, Morettik eta Brigade Rosseetako beste buruzagi batzuek erakundea disolbatu zuten, espetxean egonik, eta negoziazio molde diferenteak erabili zituzten euren egoerak konpontzeko. Denak daude gaur kalean, baina noizean behin agertzen dira oraindik italiar taldeetako militante ohiak munduan zehar, sasian bizi izan direnak, eta estraditatuak izateko arriskuan daudenak. Curciok pertsona izan nahi duela eta ez ikurra esaten du liburuan, baina bere bizitzan garrantzi handia eman izan dio bere garaiko memoria militantea eraikitzeari. Morettiri galdetzen diote elkarrizketa-egileek —Carla Mosca eta Rossana Rosanda— memoria eta kartzelaren edo ahanztura eta askatasunaren artean aukeratzeko, eta «eman askatasuna eta memoria» esaten du.

Gurean aspaldian sartu gara memoriaren inguruko guda sinbolikoetan, eta aldi berean lehengo gerra ez hain sinbo-

likoetan kalteturiko biktima askoren egoera eta nahiak omen dira ezbai horretan gehien kontsideratu behar diren kontuak. Gizarte postmodernoak biktimen gizartea da hein handi batean, denok gaude oso eroso biktima izaten; kontu horri beste egun batean egin beharko diogu aurre, gaia korapilatsua da eta. Baina biktima horien artean badago sektore berezi bat, gaur aipagai dugun presoena, alegia, eta kasu horretan argi dago eurek ere euren bidearen memoria aztertu eta eraikitzeari ekin behar diotela ahalik eta baldintza hoberenetan. Espainiako kartzeletan sakabanaturik ezin dute ezer aportatu, bakarrik biktimismoz gaixoturiko sektore batzuen mendeku gosea asetzea. Euskal gizartean preso horiek kaleratzeko eta hurbiltzeko ekimenak ugaritu beharko dira —eta ez soilik zentzu kuantitatiboan, kualitatiboan ere—, baina batez ere onartu beharko da gatazka politikoa *normalizatuta* dagoenean edozein proiektu pertsonal zilegi dela eta ez dagoela On eta Gaizkiaren artean marra markatzen duen proiektu iraultzaile orohartzailerik. Disoziatuak eta irreduktibleak eta zuri eta beltzen arteko grisak onartu eta babestu beharko ditu gizarte honek, damutzearen fenomeno tristearen gurean eman ez delako pozik.

## Azawad

Eta bitartean, Bizkaia aldean futbolaren *potentzial askatzaileaz* gogaituta gaudenok, Raxoik, Europari erreskatea eskatu ondoren, Eurokopan zeinen ondo pasatzen duen ikusi behar. «Mundua suntsitzen da gure inguruan eta gu maitemintzen gara», esaten dio Ingrid Bergmanek Humphrey Bogarti *Casablancon*, baina euskaldun asko ez dago Espainiarekiko maitasun kontuatarako. Subiranismoak burua altxatzeko arrazoiak topatzen ditu eta dudarik ez gaiak luze eta zabal joko duela hurrengo hilabete elektoraletan.

Begira, gainera, esango du batek baino gehiagok, tuareg nomada eta antropologikoki libertario horiek ere (inoiz baino hobeto esanda, estaturik gabe eta merkatarizatit bizi den

herri bat libertario izan behar, ezta?) estatu propioa eratu dute Saharako parte batean, lurralde horren gaineko subiranotasuna Maliri eztabaidatuta. Tuaregek estaturik ez baina lurralde bat bai eduki dute haiena moduan. Deskolonizazio ondorengo erregela eta kartaboiek lurralde hori Libian eta Malin zegoela erabaki zuten. Tuareg batzuk militarismoan trebatu omen dira Gaddafi zenduarekin, eta militarrek beti dute estatuarekiko zaletasuna. Paktua egin omen dute islamistekin, eta ez dago batere argi oraindik Azawad izeneko estatu berriaren ibilbide laburrean zeinek izango duten indar gehiago, islamista emirerrizaleek edo tuareg libertarioek. Donostiako Zinemaldian aurten sari nagusia irabazi zuen Isaki Lacuestaren *Los pasos dobles* film gogoangarrian ikasi genuen lurralde magiko horretan ia ezer ez dela dirudiena.¶